goiena“
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-06-03
EGUBAKOITZA
667. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Uema eguna bihar Bergaran



Bollar eta Barruso. | I.G.

Egun osoko egitaraua prestatu dute Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko jai handirako | 4



Gorlako auto igoeran 82 pilotuk hartuko dute parte bihar | 28

Presoen eta txiroen aldeko elkartasun egunak Arrasaten | 12



Mugarri berriak jarriko dituzte Antzuolan aurtengo udan | 25

## 60 postu baino gehiago bihar Eskoriatzako ferian


lazko feria. | GOIENA

## Larrainetik Bergarara ekarriko dute pastolara | 31

## Oñatin batuko dira aurten Euskal Herriko historialariak

'Euskal lurraldeak eta Nafar Estatua' gaia landuko dute | 4

Bergaran amateur mailakopuntako bi lasterketaegingo dituzte asteburuan: Euskal Herriko erlojupeko txapelketa bihar eta errepidekoa domekan.Biharko proban Euskal Herriko ziklista onenak batuko dira. Zirkuitua Labegaraietako zuzengunean hasiko da. | 29

# PUNTAKO AMATEURRAK ASTEBURUAN BERGARAN



Bergarako Lokatza ziklismo taldeko kideak, probetako kartela eskuetan dutela; atzean, taldeko ziklistak. | XABIER URTZELAI







**SINADURAK**

Kontsumo taldeak | 6 — ENEIDA ITURBE
Medikuarekin be euskaraz! | 6 — ARANTZAZU EZKIBEL
Tripetako hizkuntza | 12 — OIHAN ZUBIZARRETA
Benetako demokrazia? | 27 — SEBASTIAN ARANTZABAL
Zaude lasai; BDO | 40 — XABIER ZUBIZARRETA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# Osasun Pastorala, gaixo psikikoen makulua

▸ Parrokiako boluntario taldetxo bat buruko gaitzak dituztenei lagun egitera joaten da
▸ Batez ere, gaixorik dauden gazteen inguruko kontzientzia piztu nahi dute aurten
▸ Jendea eta, bereziki, gazteak animatu nahi dituzte astean ordu bete eskaintzera



Ezkerretik eskumara, Libe Goitia (boluntarioa), Mila Arenaza (erizaina), Mertxe Mogilnicki (boluntarioa), Juanita Zabalo (boluntarioa) eta Iñaki Amutxastegi (apaiza). | LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Astean edo hamabostean behin euren denbora librearen zati bat gaixoei eskaintzen diete, musu truk eta bakarrik laguntasuna emateko gogoak bultzatuta. Debagoieneko Osasun Pastoraleko kideak dira, talde txikia, baina sendoa konpromisoz. Aurten, buruko gaixotasunetan jarri dute arreta, eta batez ere gaixotasun horiek dituzten gazteei laguntzen diete.

Apaltasunez azaltzen dute egiten duten lana; denbora aldetik ez du hainbeste hartzen, baina norbere aldetik borondate sendoa eskatzen du. Juanita Zabalo antzuolarrak honela azaltzen digu: "Osasun Pastoralak duen lana da gaixoenganako begirunea eta sentsibilitatea izatea; euren beharretara moldatzea eta maitasun handiz eurengana hurbiltzea, norbere gertutasuna eskaintzea eta euren premietarako prest egotea. Ulermen handia ere behar da. Sarritan, eurei entzun diezaieten besterik ez dute behar".

### Edozer egiteko gertu

Debagoienean, Aita Menni eta San Juan de Dios dira gaixo psikikoak zaintzen dituzten bi osasun zentroak. Bada, haiek dituzte erreferentetzat Osasun Pastoraleko kideek, eta han dauden gaixoekin denbora ematen dute, Mertxe Mogilnicki boluntarioak esaten digun moduan: "Erretiratu nintzenean, denbora libre asko izaten hasi nintzen, eta erabaki nuen denbora horretan besteei laguntzea. Astean hiru ordurako Aita Mennira joaten gara, gaixoekin egoteko eta eurak zaintzeko. Etxeetara ere joaten gara eta, orokorrean, beste edozer gauza egiteko ere prest nago".

> **ESANAK**
> "Gaixoengandik gertuan egoten gara, beharrei erantzuten"
> JUANITA ZABALO | BOLUNTARIOA

Gaixo horiek, sarritan, ez dute beste bisitarik izaten; batzuetan, ez dute seniderik ere: "Gu gara euren familiakoak bezala", esaten du pastoraleko kide Libe Goitiak. "Jangelara eramaten ditugu, kafesnea hartzen dugu eta, gero, abestu. Ordu eta erdi ematen dugu han". Eta soilik horrekin, asko egiten dute: "Eurak pozik geratzen dira eta gu ere bai. Gaixo horiek maitasunez oso aberatsak dira, eta daukaten guztia ematen dute", esaten du Goitiak.

Borondatez, bihotzez egindá ondoen egiten den lana da. Honela diosku Aita Menni ospitale psikiatrikoko erizain Mila Arenazak: "Maitasunez lan egitea da garrantzitsuena. Gaixo horiei maitasuna eta ulermena ematen diegu, eta norberak harreman ona baldin badu eurekin, segituan erakusten dute gustura daudela. Niri, eurekin lan egiteak lasaitasuna eta maitasuna eman dizkit".

### Aisialdiaren zatitxo bat

Pastoraleko kide gehienek badute adin bat, eta eurei bereziki zaila egiten zaie hilero-hilero Arrasateraino joatea, esaten digu Zabalok. "Meritu handia dute; jende gehiena edadetua da eta sakrifizioa egiten duten sakrifizioa baloratzekoa da. Baina denok batzea askoz aberasgarriagoa da, ideia berriak sortzen dira-eta".

> **ESANAK**
> "Denbora librea laguntzeko dedikatzea erabaki nuen"
> MERTXE MOGILNICKI | BOLUNTARIOA

Horregatik, eta are gehiago gaixotasunak dituzten gazteak izanda aurtengo kanpainaren gaia, pastoralak dei berezia egiten du: "Gu, adinagatik, pentsaeragatik... ez gaude gazteenganako hain gertuan, eta eurek nahiago izaten dute beste gazte batzuekin egon. Horregatik, dei egingo nieke gazteei, antolatzeko eta euren denbora librearen zatitxo bat gaixo horiei eskaintzeko. Ikusiko dute zein estimagarria den eta gaixoek zenbat bueltatzen duten euren esker onarekin".

Dagoeneko zenbait gazte badabiltza boluntario gisa: "Astean edo bi astean behin, bi ordurako joaten dira ospitaleetara, eta gai-




ARRITXU BARRUSO

# "Badakit egunen batean zoriontsu izango naizela"

**Goienaren bisita jaso zuten, eta ondo baino hobeto prestatu zuten kameren eta mikrofonoaren aurrean esan nahi zutena Pellok, Angelek eta Jose Ignaciok. Laster osatzea, etxebizitza bat izatea eta familiarekin egotea, horiek dira euren ametsetako batzuk, eta horiek kontatu zizkiguten.**

**PELLO**
GAIXO PSIKIKOA

## "Lana izan eta egun bakoitza bizi nahi dut"

San Juan de Dios ospitalean "oso ondo" dagoela esaten du. "Txikia da, bakarrik", esaten du.

Lan bat izatea eta "eguna bizitzea" gustatuko litzaioke. "Arrebarekin, aitarekin..." gehiago egongo dela ere esan digu.

Ametsak egia bihurtzeko, bere ustez, bide hau dago: "Drogak alde batera laga eta ondo portatu, besterik ez".

**ANGEL**
GAIXO PSIKIKOA

## "Ondo egoteko, ona izan eta gutxi gastatu"

Beretako, osasunak eta ondo egoteak zer esan gura duen galdetu genion Angeli, eta hauxe esan zigun: "Osasuna zer den? Osasuna da norbera ondo sentitzea, eta denok dugu dohaineko osasunera eskubidea. Eta noizbait jausten bagara, norbera bere egoera horretatik irtetea eta noizbait ondo sentitzea lortzea".

Bere kasuan eta ospitalean dauden gainerako gaixoen kasuan, baikorra da: "Urteak pasa ahala, ez dakit zenbat urte pasatuko diren... beharbada 10, 30, 40... ez dakit zenbat, baina egunen batean nik badakit zoriontsu izango naizela, zoriontasuna topatuko dudala".

Ametsa horiek egia izan daitezen, honako formula proposatzen du berak: "Zer behar den ametsak egia bihurtzeko? Ondo portatzea, diru asko ez gastatzea... Aita-amak ere zaindu nahi ditut... zahartzen ari dira-eta... Nik 39 urte dauzkat eta etxebizitza bat lortu nahi dut; hemendik kanpo bizi izateko etxebizitza bat", esaten digu.

**JOSE IGNACIO**
GAIXO PSIKIKOA

## "Bikotekidea eta umeak izan nahi ditut"

Esateko asko zuen Jose Ignaciok, eta erreibindikazio batekin hasi zen: "Gaixo psikikoa naiz, eta gaixo psikikook estigmatizatuta gaude".

Drogengatik dago gaixorik: "Nire medikuak esaten dit drogen erruz nagoela gaixorik, *speed*-arengatik eta haxixarengatik". Baina azkenaldian, askoz hobeto dabil: "Usurbilen sei hilabetez egon nintzen, eta hemen hilabete eta erdi daroat, *speed*-a eta porroak kontsumitu barik. Bakarrik alkohola hartu dut, hiru aldiz, Usurbilen. Egonaldi luzera bidali naute", azaltzen du.

Etorkizunerako bere ametsak hauek dira: "Bikotekide finkoa izan gurako nuke, seme-alabak izan, berriz automobil bat erosi, eta etxebizitza bat eduki".

xoak oso pozik egoten dira ikustean jende gaztea ere eurekin arduratzen dela", gaineratzen du Juanita Zabalok.

Herri guztietan eman daiteke izena, norbere parrokiako Osasun Pastoraleko kide batengana joaz. Haiek harremanetan daude Aita Menniko eta San Juan de Dioseko boluntarioen arduradunekin, eta haiek antolatzen dute dena: norbera ze gaixorekin egotea komeni den eta gainerako alderdi guztiak.

ESANAK

**"Askotan, ez dute seniderik; gu gara euren familiakoak"**

LIBE GOITIA | BOLUNTARIOA

**"Asko kostatzen da"**

San Juan de Diosen, Roberto Garcia arduratzen da boluntarioak koordinatzeaz. Gaur egun, sei boluntario dituzte, eta, Garciaren hitzetan, "asko kostatzen da" jendea topatzea: "Beharbada buruko gaixotasunek ematen duten beldurragatik, edo gazteendako erakargarriagoa izan daitekeelako boluntario izatea nazioarteko brigadak moduko ekintza batean..." Gaixo psikikoekin egiten den lana oso bestelakoa da: "Asteroko konpromisoa behar da. Gure boluntarioek astean ordu bete ematen dute eurekin".

Batetik, lagun baten bisita izaten dute astero, "eta on handia egiten die, bakoitzak badakielako hain justu bera bisitatzera joango dela lagun hori", esaten du Roberto Garciak. Batzuetan, boluntario bakoitza gaixo bakarrarekin egoten da beti, eta, beste batzuetan, talde txiki batekin. Asteroko harreman horretatik, maitasunez eta adiskidetasunez betetako "lotura" sortzen dela esaten digu arduradunak.

Beste helburuetako bat da gaixoei ospitaletik irteteko aukera ematea: "Batzuk igerilekura joaten dira, beste batzuk trago bat hartzera... eguneroko bizitzako giroan ibiltzen dira", azaltzen du koordinatzaileak.

Hori dena antolatzeko, boluntarioen interesak eta bisitatuko duen gaixoarenak bateratzen ahalegintzen dira, betiere gaixoaren terapiari traba egingo ez diola zainduta.

ESANAK

**"Gaixooi maitasuna ematea, hori da garrantzitsuena"**

MILA ARENAZA | ERIZAINA

Orain dituzten sei boluntarioetatik, hiru gazteak dira, eta beste hirurak, helduak. Denak, emakumeak. "Berdintasunaren alde egiten den guztiarekin, badirudi lagun hurkoa zaintzea emakumeei dagokiela, azkenean. Beharbada, emakumeak solidarioa izaten hobeto ikasi du", esaten du Roberto Garciak.

**Gipuzkoan, 700 kide**

Donostiako Elizbarrutiaren gizarte eta osasun arloaren adar bat da Osasun Pastorala; besteak Caritas eta Espetxe Pastorala dira.

Osasun Pastoralaren helburu orokorra da elizbarrutiaren bizitza indarberritzea eta "askotariko kausengatik sufritzen dabiltzanen zerbitzura egotea", Donostiako Elizbarrutiaren hitzetan. 26 urte egin ditu aurten Osasun Pastoralak, eta 700 lagunetik gora dabiltza, borondatez, horren barruan lanean, Gipuzkoak dituen 100 parrokia eta 14 artzapez-barrutietan.

Osasun pastoralak hainbat erakunderekin harreman estua du, bere helburuak lortzeko, eta helburu horietako bat da edozein gaitz dutenei ahalik eta osasuntsuen bizi izaten laguntzea, eta, gaixoek hala gura duten kasuetan, pastorala zerbitzuak jaso ditzaten lagundu. Horretarako, boluntarioek denetariko lanak egiten dituzte: gaixoak eta familiak etxean atenditu; osasun zentroetan lagun egin...

## "Bizitza osasuntsua egin dezatela"

Drogek gazteei egiten dieten kaltearekin oso kezkatuta dago San Juan de Dioseko Martin gaixo psikikoa: "2.000 laguni egindako inkesta baten, 13 urteko %25ek esan zuten drogak hartzen zituztela, eta 13 eta 16 arteko %75ek. Gurasoei eskatzen diet kolaboratzeko, erakusteko seme-alabei zer den ona eta zer ez". Garai txarrak bizi ditugu, bere iritziz: "XXI. mende hau ez dakit zeinek asmatu duen, baina gero eta txarragoa da: drogak... denetarik". Berak 23 urte darama San Juan de Diosen, eta beti "oso ondo, mimatuta" egon dela esaten digu.

**Bizitza orekatua**

Noelia gaztea ere ospitalean dago. Irribarre batekin hitz egiten digu: "Etxebizitza bat izan eta ariketa fisikoa egin", hori gura du berak. Eta honela laburtzen du beretako eta gazteendako nahi duena: "Drogak alde batera utzi, eta bizitza osasuntsua eta orekatua izan".




Nabarraldeko, Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak. | MIREIA BIKUÑA

# Oñatin egingo dute Euskal Herriko historialarien II. biltzarra irailean

Unibertsitatean egingo dute irailaren 16an, 17an eta 18an

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Albako Dukeak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte beteko dira laster, eta, horren harira, Euskal Herriko historialarien II. biltzarra egingo dute Oñatin irailean. Nabarraldek antolatutako biltzarra irailaren 16an, 17an eta 18an egingo dute Oñatiko unibertsitatean. Asteon egin dute aurkezpena, eta ekitaldian egon ziren Nabarraldeko eta Udaleko ordezkariak.

Biltzarra irailean izango den arren, dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Interesatuek irailaren 8ra arte eman dezakete izena 948 21 10 57 telefonoan edo *info-biltzarra@nafarroa.biz* helbidean. Lekua mugatua denez, antolatzaileek diote lehenbailehen izena emateko. "Iaz 200 bat lagun egon ginen, eta asko kanpoan geratu ziren. Halako biltzarretan lekua mugatu beharra dago, bestela, arazoak izango genituzke-eta antolaketan", esan zuen Nabarraldeko kide Angel Rekaldek.

### Bi gai nagusi

Biltzarraren gai nagusia izango da *Euskal lurraldeak eta nafar Estatua*. Euskal lurraldeen, batik bat mendebaldekoen, eta Nafar Estatuaren arteko hartu-emanak aztertuko dituzte. Gai nagusi horrek bi eztabaida esparru izango ditu: alde batetik, euskal lurralde historikoen lotura Nafar Erresumarekin; eta, beste alde batetik, mendebaldeko lurrek 1512ko konkistan jokatutako papera.

Bestalde, bi tailer egingo dituztela aurreratu zuten: *Antzinako dokumentuen irakurketa nola egin*, bata, eta *Dokumentatzen ikasi*, bestea. Gainera, Lope de Agirreri buruzko liburu baten aurkezpena egingo dute, eta musikaldia eta bisita gidatuak antolatzeko asmoa ere badutela esan zuten.

### "Ohorea"

Euskal Herriko historialarien II. biltzarra Oñatin egitea "ohorea" dela esan zuten Lourdes Idoiaga jarduneko alkateak eta Mikel Biain alkatetzarako hautagaiak. Biak ala biak egon ziren biltzarraren aurkezpenean.

## Bihar Bergaran egingo den Uema egunean parte hartzeko dei egin diete herritarrei

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

2011n 20 urte bete ditu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eta *Gure hizkuntzak har dezan arnas* leloa praktikan jarriz ospatuko dute data berezia. Aurten, gainera, festa Bergaran izango da, eta antolatzaileek egun borobila prestatu dute.

Izan ere, egun osoko ekitaldi sorta antolatu dute. Besteak beste, aipatzekoa da, esate baterako, egun horren barruan lehenengoz egingo den hitz gurutzatuen binakako txapelketa.

### Herritarren parte-hartzea

Festa egun hori behar bezala ospatzeko jendearen parte-hartzea ezinbestekoa izango da. Horregatik, ekintza gehienetan herritarrak izango dira protagonista nagusiak.

## AHTren kontrako plataformak manifestazio nazionala deitu du ekainaren 11rako, Arrasaten

AHT Gelditu! koordinadorak ekainaren 11rako manifestazio nazionala antolatu du Arrasaten, *Trena gerarazteko argumentu ugari dauzkagu, AHT gelditzera goaz!* lelopean. Herriko Plazatik irtengo da martxa, 18:00etan. Manifestazioaren helburua da AHTren aurka dauden sektore sozialen bilgunea izatea, azpiegitura horren obrak geldiarazteko. Horrez gainera, gaur egungo garraio eta lurralde antolaketa ereduaren gainean eztabaida sozial zabala ireki nahi dute antolatzaileek.

## Debagoieneko Atzegi elkarteak zapatuan ospatuko du urteroko festa Bergarako Munibe plazan

Urtero moduan, Debagoieneko Atzegik batzarra eta festa antolatu ditu. Aurten, Bergaran egingo du ekitaldia, eta oraingoz 110 pertsonak izena eman duten arren, 135 izatera iristea espero dute antolatzaileek. Zapatuan, 12:30ean, Zabalotegi aretoan batzarra egin ostean, 14:00etan Munibe plazan bazkaria izango dute. Ondoren, bertaratzen direnak, musika eta dantzaren laguntzarekin, jai giro algaratsuan murgilduko dira.


Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*blasaga@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Zubillagako suhiltzaileen parkea. | MIREIA BIKUÑA

# Lantalde txikiegia dutela salatu dute suhiltzaileek

Foru Aldundiak 2006an sinatutako hitzarmena betetzen ez duela esateko agerraldia egin dute

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Suhiltzaileak haserre daude Foru Aldundiarekin. Erakundeak 2006an sinatutako hitzarmena ez duela betetzen salatu dute. "Hitzarmen horren arabera, guk soldata txikitzea onartu genuen, eta, trukean, Aldundiak parke bakoitzean lau suhiltzaile egongo zirela agindu zigun", esan digute Zubillagako suhiltzaileek. Eurek emandako datuen arabera, urte hasieratik, 70 alditan egon dira parkeak lau suhiltzaile baino gutxiagorekin.

Txanda bakoitzean gutxienez kopuru hori ez egoteak segurtasunean eragina izan dezakeela uste dute. "Normalean, ez da ezer gertatzen, baina Egubakoitz Santuan bi suhiltzaile bakarrik zeuden Oñatin, eta sutea egon zen Arrasaten. Legazpiko suhiltzaile bati deitu behar izan zioten. Bada, sute bat hiru suhiltzailerekin itzaltzea arriskutsua da, guretako eta etxe barruan daudenendako. Bestalde, Zapatu Santuan suhiltzaile bakarra zegoen Eibarko parkean, eta Legazpiko eta Irungo suhiltzaile bana egon ziren lagun egiten".

**Bizkaikoak baino okerrago**

Suhiltzaileek beste kexa bat ere badute: Bizkaiko Foru Aldundiko suhiltzaileen lan baldintzekin duten aldea. "Bizkaiko parkeetan, gutxienez, sei edo zortzi suhiltzaile daude txanda bakoitzean, egutegi-ordutegi hobea dute eta guk baino %18 gehiago kobratzen dute", esan digute.

Maiatzaren 22ko hauteskundeko emaitzek Foru Aldundian aldaketaren bat ekar dezaketela kontuan hartuta, arazoa konpontzeko esperantza badute: "Orain arte ez dugu ezer lortu. Gure helburua ditugun arazok konpontzea izan da, baina adabaki hutsak eskaini dizkigute. Aldaketarik badago, akaso hurrengoekin...".

**Mariano Ferrer** | Kazetari erretiratua

# "Epaileek iritzi politikoa izatea normala da; arazoa da ideologia erabiltzea epaia ematean"

'Nork epaitzen gaitu' hitzaldia izango da Bergarako UNEDen, zapatuan, 12:00etan

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE


Mariano Ferrer. | GOIENA

Hitzaldia ez da bakarrizketa izango, hamaika eztabaidatan entzun dugun Mariano Ferrerrekin batera Juanjo Alvarez, Miguel Castells eta Artemio Zarco egongo dira. Zertaz hitz egingo duten aurreratzeko Ferrerrz ekin izan gara.

**Bidezkoa da epaileek ideologia jakin bat edukitzea?**

Nik ez nuke *bidezko* hitza erabiliko, baina argi eduki behar dugu epaileak pertsonak diren neurrian ideologia jakin bat edukitzea, baina horren atzean gauza gehiago dago. Epai ezberdin horien atzean bi partidu handien interesak ageri dira. Arazoa ez da legea interpretatzeagatik gertatzen, arazoa interpretazio horren benetako arrazoietan dago. Hor dago epaitegi boteretsu hauek kontrolatzeko nahiaren gakoa.

Dutela. Hemen gertatzen dena oso bestelakoa da; euren ideologia erabiltzeaz gainera, Auzitegi Nazionalera iristeko lagundu dieten partiduei men eginez haien interesetara moldatzen dituzte epaiak.

**Bi partidu handiek hain eragin handia dute goi mailako epaitegietan?**

Kontuan izan behar da PPk eta PSOEk aukeratzen dituztela epaileak, eta, noski, euren ildokoak aukeratzen dituzte, epaileen kontrola ziurtatzeko. Noizean behin, baina, CIU eta EAJ ere aukera txiki bat izatera iritsi dira.

**Normalak dira Auzitegi Gorenaren, Konstituzionalaren eta Nazionalaren arteko kontraesanak?**

Bai eta ez, ezin dizut erantzun borobilik eman. Normala da epaile bakoitzak bere ikuspuntua edukitzea, baina horren atzean gauza gehiago dago. Epai ezberdin horien atzean bi partidu handien interesak ageri dira. Arazoa ez da legea interpretatzeagatik gertatzen, arazoa interpretazio horren benetako arrazoietan dago. Hor dago epaitegi boteretsu hauek kontrolatzeko nahiaren gakoa.

**Alderdi popularra boterean egongo balitz, Bildu legala izango litzateke?**

Hori zin dut ziurtatu, baina ezetz esango nuke. PP boterean egon den urteetan Alderdien Legea era zorrotzago eta baztertzaileagoan aplikatu da.

**Euskadiko Epaitegi Gorenean ere politizazio hori horren argia da?**

Ez. Maila txikiagoko epaitegietan ez da horren erabilpen politikorik nabaritzen.

# Papereko euskarrien artean sendotu egin du nagusitasuna Goienak gure eskualdean

'Goiena.net'-eko erabiltzaileak %31 gora eta Goiena telebistak 12.000 ikusle

**GOIENA** | ARRASATE

GOIENA da paperekoen artean irakurriena Debagoienean. Alde nabarmenarekin, gainera: 32.000 irakurle ditu. Bigarren irakurrienak, *El Diario Vasco*-k, 19.000 irakurle ditu gure eskualdean. Atzetik datoz *Gara* (5.000), *Berria* (3.000) eta *Noticias de Gipuzkoa* (3.000). CIES erakundearen 2011ko lehen neurketatik, udaberrikotik, ateratako ondorioak dira. GOIENA paperak, Gipuzkoan, 35.000 irakurle ditu. Laugarren papereko irakurriena da lurraldean. *El Diario Vasco*, *Hitza* eta *Gara*-ren atzetik.

**Goiena telebista: 12.000**

Bestalde, Goiena telebistak datu ikusgarriak lortu ditu Gipuzkoan. Izan ere, 12.000 lagunek ikusten dute egunero Goiena telebista lurraldean. Gero eta gehiago dira Debagoienetik kanpo Goiena telebista ikusten dutenak, Euskaltelen kableari esker. Hala, Gipuzkoan gehien ikusten den bigarren tokiko telebista da Goiena, Teledonostiren atzetik (23:000) eta Gipuzkoa Telebista (7.000), Goierri Telebista (6.000) edo Hamaikaren (6.000) aurretik. Debagoienean, 5.000 lagunek ikusten dute Goiena telebista egunero. Antena 3 (4.000) edo TVE2 (1.000) kateen aurretik dago eta ETB1 edo Cuatroren antzera (6.000).

**'Goiena.net': erabiltzaileak gora**

*Goiena.net*-ek ere geroago eta erabiltzaile gehiago ditu eta aurten hainbat errekor hautsi ditu. Google Analytics-en arabera, urtarriletik maiatzera %31,6 igo da erabiltzaile kopurua 2010eko epe berarekiko, eta maila antzekoan (%31,4) orrialde bisitatuak. Bestalde, maiatzaren 23a, hauteskunde biharamuna, izan zen *Goiena.net*-en bisitari eta orrialde bisitatuen inoizko errekorra. 41.410 orrialde bisitatu ziren eta 7.425 bisitari edo erabiltzaile izan zituen *Goiena.net* atariak.

txatxilipurdi

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2011ko ekainaren 16a.
**Tokia:** Kultur Ateko Loramendi aretoa
**Ordua:** 17:30an, lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarren deialdian.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2010ko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2010ko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
3. AED eta Txatxilipurdi elkarteei hiru elkarteona den inbertsio funtsetik bakoitzari 11.800 euro emateko proposamenaren onarpena.
4. ATEAren diru funtsa hiru titularren artean banatzeko proposamenaren onarpena
5. 2011ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.
6. 2011ko egitasmoak eta aurrekontua, eta hala badagokio, onarpena.
7. Zuzendaritza Batzordea berritzea.
8. Garabide elkartean erakunde laguntzaile izatea.
9. Elkartearen jakinarazpenak.
10. Galdera eta erreguak.

Irati Pagoaga / Lehendakaria
Arrasaten, 2011ko maiatzaren 31a

aed arrasate euskaldun dezagun

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2011ko ekainaren 16a
**Tokia:** Kultur Ateko Loramendi aretoa
**Ordua:** 17:30ean lehengo deialdian eta 18:00etan, bigarrenean.

**GAI-ZERRENDA**

1. Aurreko Ohiko eta Ez ohiko batzar nagusietako akten onarpena
2. 2010eko jarduera eta diru-kontuen azalpena eta, hala badagokio, onarpena.
3. AED eta Txatxilipurdi elkarteei hiru elkarteona den inbertsio funtsetik bakoitzari 11.800 euro emateko proposamenaren onarpena, iazko defizitari eta aurtengo diru irteerei aurre egin ahal izateko
4. ATEAren diru funtsa hiru titularren artean banatzeko proposamenaren onarpena
5. 2011ko bazkide ekarpenaren zenbatekoa finkatzea
6. 2011ko egitasmo eta aurrekontuaren azalpena, eta hala badagokio, onarpena.
7. Zuzendaritza Batzordearen berritzea
8. Egoitzari buruzko jakinarazpena
9. Galdera eta erreguak

Eñaut Muxika / Lehendakaria
Arrasaten, 2011ko maiatzaren 31a

Ekin Emakumeak • AED

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**Eguna:** 2011ko ekainaren 16a.
**Tokia:** Kultur Ateko Loramendi Aretoa.
**Ordua:** 17:30 lehenengo deialdia eta 18:00tan bigarrena.

**GAI-ZERRENDA**

1. 2010eko Batzar Nagusiko aktaren onarpena.
2. 2010eko jardueraren eta diru-kontuen azalpena eta onarpena, hala badagokio.
3. AED eta Txatxilipurdi elkarteei hiru elkarteona den inbertsio funtsetik bakoitzari 11.800 euro emateko proposamenaren onarpena.
4. ATEAren diru funtsa hiru titularren artean banatzeko proposamenaren onarpena.
5. 2011ko bazkide ekarpenaren
6. zenbatekoa finkatzea.
7. 2011rako egitasmoa eta aurrekontuaren onarpena, hala badagokio.
8. Zuzendaritza Batzordearen berritzea.
9. Galdera eta erreguak.

Errukane Aperribai / Lehendakaria
Arrasaten, 2011ko maiatzaren 31a

## ZABALIK



**ENEIDA ITURBE**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Kontsumo taldeak

Azken egunotan ezinbesteko bihurtu da pepino mordo batek Europan zehar egindako bidaia zein izan den zehatz-mehatz jakitea. Helburua: zenbait hildako eragin dituen infekzioaren jatorria ezagutzea.

Sarri janariak munduari bira erdia eman dio gure mahaira ailegatu aurretik. Hala, supermerkatuan urte osoan izango ditugu jakizu nondik ekarritako kalabazinak eta tomateak. Aitaitaren edo amamaren ortuan egun edo aste batzuetan bakarrik ikusiko ditugu, aldiz.

Joera horren kontra, azkenaldian zenbait kontsumo talde sortu dituzte Debagoienean. Benetan albiste ona iruditzen zait! Taldeko kideek garaiko barazki eta fruituz osatutako saskia jasotzen dute astero eta erlazio zuzena daukate baserritarrekin, bitartekari barik.

> **"Baserritarrak badaki astero erosleak izango dituela"**

Akordio ezin hobea da: baserritarrak badaki astero erosleak izango dituela eta ekoizpena planifikatu ahalko du. Kontsumo taldekoek bertako produktuak jango dituzte, eta garaian garaikoak.

Taldeotan askotariko jendea elkartzen da. Kide batzuen ardurarik handiena bertako baserritarrei babesa ematea da; beste batzuek, berriz, jaten duten hori ekologikoa izatea jartzen dute aurretik; zenbaitek supermerkatu kateen boterea salatu nahi dute eta sistema horretatik at baserritarrekin erlazio zuzena bilatzen dute.

Motibazio horiek guztiak elkartuta, beste zenbait ekimen bultzatzeko plataforma ere izan daitezke kontsumo taldeak. Beste era batera kontsumitu nahi badugu, nekez konformatuko gara barazki eta fruta erosteko modua aldatzearekin. Haratago joan nahiko dugu! Truke azokak, hitzaldiak, mendi bueltak, zineforumak edo beste zenbait ekintza antola ditzakegu.

Duela hiru aste Antzuolan hitzaldia egin zuten kontsumo taldeak zer diren azaltzeko eta talde bat sortzen laguntzeko asmoz. Herrian Pikunieta eta Lapatza bezalako ekoizle ekologikoak izanda, taldea osatzeko jendea besterik ez da falta. Zein animatzen da?

## USTEAK USTE

**ARANTZAZU EZKIBEL** | 'aezkibel@goiena.com'

# Medikuarekin be euskaraz!

*Euskara gaixo* ikus-entzunezkua egin dau Behatokiak Kepa Elortza oñatiarraren testingantzan oiñarrituta. Osakidetzan euskarak dakon presentzia eta hizkuntza eskubidien urraketa kontaitten da bertan. Nere familixako medikua erdalduna da eta iñoiz ez dot kexarik jarri edo euskaraz artatzeko eskubidia aldarrikatu. Burutik pasau be ez xat egin. Medikuarengana noian hurrenguan be gazteleraz egingo dot; lotsiagatik, erosotasunagatik edo auskalo zergatik ez doten nere eskubidia betetzeko eskatuko. Erakundien biharra da legeak betearaztia, baiña uste dot gure lana be badala gure eskubidiak aldarrikatzia eta beteten ez diranian salaketia. Animauko ete naiz hurrenguan?

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Futbolkrazia eta despotismoa

**Leire Narbaiza Arizmendi**
http://eibar.org/blogak/leire/

Gaur egungo gaitz bi.

Maiatzeko asteburuak oso konplikatuak izaten dira, denetatik izaten baitugu. Badirudi uda baino lehen mundua amaituko zaigula, eta elkarte, lagun-talde eta eskolek jaiz et ebentoz betetzen digute aisialdia. begira bestela Asier Sarasuak zelakoa izan duen maiatza.

Antza denez, futbol txapelketa ia guztiak ere maiatzean amaitzen dira, edo amaitzear daude. Hori dela eta, partida pilo bat ematen dituzte telebistan eta egunkariek hil ala bizko dueluez hitz egiten digute; eta mendeko matchak jotzen dira asteburu baten bai, bestean ere bai.

Ez litzateke hain txarra izango futbola aitzakia hutsa ez balitz, edo foballa (Eibarren esaten diogun moduan) zikina estaltzen duen tapiza bihurtuko ez balute: arazoak badaude, erratza erabili eta futbol-alfonbrapean ezkutatu.

Asteburu honetan horren adibide bi izan ditugu, bata Bartzelonan, bestea Eibarren. Bartzelonan Champions-aren aitzakian, Katalunia plazan zeuden suminduak botatzeko euren eskuetan zeukaten indar guztiarekin. Eskusa ezin hobea nahi zutena egiteko. Zorionez, plazara itzuli ziren hurrengo egunean bertan.

Eibarren ere despotismoa erabili da fulbolkraziaren loriarako. Asteburuan 46. Euskal Jaia ospatu dugu (ondo diot ospatu, disfrutatzeko festa delako). Horretarako Untzaga plazaren alde biak erabiltzen ditugu jaia herriaren bihotzean egon behar delako, nahiz eta karpa jartzea askori ez gustatu. Dantzak harmailen aldean egiten dira, eta karpa udaletxe aldean jartzen da. Aurten Eibar futbol taldearen partida ere bazen larunbat arratsaldean, eta posiblea zen 2. mailara igotzea, eta jokalariei ongietorria egitea Untzagan.

Hori dela eta, alkatearen idazkariak astelehenean deitu zien Klub Deportibokoei (Euskal Jaiko antolatzaileak) batzar bat egiteko, eta bertan plazak trukatzea proposatu zien. Batzordekoek bilera egin ondoren, idatzi bat prestatu zuten alkatearendako, txarto iruditzen zaiela aldaketa esateko, eta trukatu barik ere, jai biak konbinatu zitezkeela. Horretarako, bestelako proposamenak ere egin ziren. Desadostasuna ere adierazi zioten, eta bere esku laga erabakia. Hori guztia, asteartean izan zen.

Asteazken eguerdian alkatearen idazkariak esan zien ahoz erabakia plazak trukatzea zela, eta idatziz ere jasoko zutela erantzuna. Komisiokoek SD Eibarko presidente eta direktibo batekin hitz egin zuten egindako gestio guztien berri emateko. Ostegun goizean etorri zen alkatearen erantzun definitiboa idatziz: alkatearen dekretua! Nik diodalako, nik nahi dudana egingo dut. Beraz, karpa harmailen aldean, eta dantzak udaletxe aldean. Gora demokrazia!!

Gero, ez igotzeko, gainera! Dantzariena izorratu (jendea zutik luzaroan eta ganoraz ikusi ezinda) eta ongietorririk ez! Megafonia ekipo oso bat alokatu, erabili barik itzultzeko! Krisi sasoian! Baina futbolarendako dena da ona, dena da zilegi! Molestatzen duena baztertu, estalki perfektu batekin! Futbolkrazia despotismoaren mesedetan, eta alderantziz, sinbiotikoak dira-eta!

Herritarrak etsita, aspaldi amore emanda. Eta berari botoa ematen jarraitzen diote.... Ikasiko ote dute inoiz?

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

### Bejondeizula, literaturzale!

**Itxaro Artola**
(AED elkartearen izenean)
Arrasate

Irati Axpe, Sara del Campo, Arkaitz Biain, Esther Merino, Saioa Uriarte, Suhar Macias, Maria Oses, Magali Gomez, Jokin Bereziartua, Iñaki Peña, Bea Garai, Maria Heriz, Ane Errarte, Alaiñe Olabarria, Xabi Betzue, Maite Ilarduia, Jon Azkoaga, Paula Rodriguez, Alaitz Barrutia, Eider Altube, Sara Lasagabaster, Irantzu Salaberria, Mirentxu Amozarrain, Olatz Altzua, Unai Bergaretxe, Nagore Iraola, Ainixe Uribarren, Lierni Etxebarria, Lorea Sanchez, Maitane Uribe, Miren Heriz, Maider Aldai, Amaia Arrieta, Karmelo Uribarren, Miren Olazabal, Koldo Etxebarria, Hirune Iribekanpos, Aitor Elizaran, Ines Sofia Jesus, Apolo Zepeda, Ane Errasti, Amaia Arana, Ane Inda, Aitziber Aranburuzabala, Eneko Barberena, Jokin Orobengoa, Ainara Bordes, Maider Alzelai, Itsaso Pol, Joxe Otadui, Iurgi Etxebarria, Zahar-Berriren aldeko azokarako liburuak eman dizkiguzuen ezagun eta ezezagunok, *Liburuak Aske!* posible egin duzuen Susa, Elkar, Txalaparta, Alberdania, Pamiela eta Erein argitaletxeak, astean zehar entzule-ikusle izan zaituztegunok, artez edo moldez programa aurrera ateratzen lagundu diguzuenok… zuk, zuek, zuetako bakoitzak jarritako tantarekin lortu dugu Arrasate Literaturjauzietan blaitzea bigarren urtez.

Esker mila eta bejondeizuela!

### Noiz arte horrela?

**Txipi Ormaetxea**
Gasteiz

Gaur, maiatzak 30, M-15eko mugimendutik deitua zegoen ekintzari kasu eginez, banketxeetara joan naiz dirua ateratzera (egia esan, iruditzen zait ekintza ez dela behar bezala antolatu; nire inguruan, behintzat, jende askok ez zeukan ekintza horren berri).

Hala, lehenengo Euskadiko Kutxara jo dut ekintzan iragarritako 155 euroak ateratzera. Nortasun-agiria eskatu dit erdara batuan kutxako langileak. Karnet euskalduna eman diot, eta azkenean onartu egin du, baina zalantzak izan ditu; antza, ez du balio holako eragiketa sinple bat egiteko ere. Eta euskararena, benetan salagarria. Bi langile jendaurrean, eta biak erdaldunak. Gauza askotan harro nago gure herriaz, Arrasatez, baina Caja Laboralari asko falta zaio oraindik Euskadikoa (?) izateko.

Ondoren Vital Kutxara joan naiz eragiketa berbera egitera. Hango langile gazteak euskaraz hartu nau, eta poztu naiz, ez da hori ohikoa eta. Baina EHNA ez dit onartu; pare bat minutuz aritu da ez dakit non begiratzen, eta azkenean ezin duela onartu esan dit. Nire harridura azaldu diot, eta berak ere harritu itxura egin du; benetakoa begitandu zaidana, egia esateko.

Nire galdera: noiz arte horrela?

### Eskerrik asko, Lasarte jauna

**Xabier Iturbe**
Arrasate

Izan ere, zerbait izan bada orain arteko Realeko entrenatzailea, jauna izan da, serioa, adeitsua, bere ideiei zintzo eutsi diena.

Bada, bota egin dute.

Argi eta garbi adierazi zuen agur-prentsaurrekoan ze helburu jarri zizkion zuzendaritzak: mailaz igotzea, lehenengo mailari eustea, hamaikakoan %80k etxeko jokalariak izan behar zutela, Realaren espirituari eustea…

Eta horiek guztiak lortuta ere, bota egin dute.

Zintzo agertu zen prentsaurrekoan Lasarte, jendea bereganatu du eta jakin izan du hemengo filosofiarekin bat egiten.

Ez zuen zuzendaritzaren argudiorik entzun nahi izan, urte asko daramatza-eta futbolean. Rivas etengabe zelairatzea izan zitekeen horietako bat. Agian.

Baina Lasartek bere ustez jokalari onenak zirenak ateratzen zituen, ez beste inork inposatutakoak.

Ederra egin du zuzendaritzak orain, beste behin.

A, kontu larriagoa: oraindik ere ez dauka entrenatzailerik Realak datorren denboraldirako.

Besterik gabe.

Eskerrik asko eta laster arte, Martin.

### Jaiak 'all over the world'

**Imanol Gallego**
Arrasate

Badatoz jaiak, bai, badatoz, eta bagoaz.

Denok ere –edo gehienok– desiratzen egoten gara herriko jaiak noiz iritsiko zain, egitarauari errepasoa egiteko, ze ekintzatan parte hartuko dugun programatzeko… Ba ez, kanpora joateko! Benidormera, Saloura… ahal den urrunen.

Hori bai, kexatu ere kexatuko gara egitarauarekin, ez dagoela ezer, beti antzeko ekintzak, "jende gutxi aurtengo jaietan" titularrarekin barre egingo dugu eta ez dugu ezer ere egingo jaiek iraun dezaten, herriak iraun dezan.

Hori bai, askok kanpoan ospatuko dituzte sanjuanak, sanpedroak, andramaixak… desiratzen egoten baitira enpresan astebete jai hartu eta ospa egiteko.

Munduan zehar ospatuko dira hemengoak bertakoak diren jai gehiago hemen bertan baino.

Egin dezagun esfortzutxo bat eta bete ditzagun herriko jaiak jendez, ez fantasmaz.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

**Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA**



**Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz**

EUSKARAZKO
HEDEBIDE
EZ PUBLIKOAK

**Jon Bollar** | Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria (Uema)

# "Euskararen Legea onartu zela 30 urte dira eta mediku euskaldunak eskatzen ari gara oraindik"

- Euskaraz normal bizi izateko arnasguneak aldarrikatzen ditu Uemako lehendakariak
- Uema eguna ospatuko da zapatuan Bergaran, mankomunitatearen 20. urteurrenean

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Uema eguna ospatuko dute Bergaran zapatuan udalerri euskaldunek, sortu eta 20 urte betetzen diren honetan. Jon Bollar lehendakariak eman dizkigu mankomunitate horren eta zapatuko egunaren berri.

**Uemak, Euskal Herriko Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, 20 urte betetzen ditu aurten. Zorionak, lehenik eta behin.**

Eskerrik asko. Hil honetan bete ditu 20 urte. Euskararen normalizazioaren alde lanean hasi ginenean 20 udalerri ginen Ueman eta gaur egun 60 gara; hortaz, osasuntsu beteko dugu urteurrena.

**Ze prestatu duzue zapatuan Bergaran ospatuko den Uema egunerako?**

Batzar nagusia egingo dugu. Eta hainbat ekitaldi antolatu ditugu. Esaterako, hitz gurutzatuen lehiaketa lehenengo aldiz. Umeendako jolasak eta tailerrak ere izango dira. Eta bazkaria, erromeria, musika kontzertuak…

**Zein da zapatuan Bergaran egingo den Uema egunaren helburua?**

20 urte betetzen ditugula-eta, hausnarketarako hartu dugu urte hau. Egindakoak aztertu eta aitortu; eta ondoren, eztabaidatu etorkizuna zelan aurreikusten dugun, ze helburu jartzen dizkiogun geure buruari… Orain dela 20 urteko Euskal Herria eta gaur egungoa ez da iguala. Eta ondorio batera heldu gara hausnartze prozesu honetan: arnasguneak aldarrikatu gura ditugu. Udalerri euskaldunei edo euskaldun kopuru handia dutenei deitzen diegu arnasguneak. Zergatik? Bada, pertsona batek bizi izateko, arnas hartzeko, behar duen moduan ingurune konkretu bat, euskaraz bizi izateko ere arnasgune horiek behar ditugulako euskaraz normal bizi izateko. Esaterako, ni banoa Bergarara edo Leitzara, arazo barik bizi ahal izango naiz euskaraz. Baina hori ez zait gertatuko, esaterako, Donostian. Arnasgune horiek zenbat eta gehiago izan eta zenbat eta harreman handiagoa izan batak bestearekin, azkarrago lortuko dugu benetako normalizazioa.

**Lurralde guztietan daude udalerri euskaldunak?**

Egon izan dira, baina egun, Hego Euskal Herrian bakarrik daude. Gehienak Gipuzkoan. Bizkaian ere bai; Araban, bakarra (Aramaio)…; gehiago ezin dira egon egoera sozio-linguistikoarengatik. Nafarroan ere, egon ahal diren gehienak daude. Faltan sumatzen ditugu Iparraldeko herriak. Agintaldi honetan berriro ere erakarri gura ditugu Iparraldeko udalerri euskaldunak Uemara.

**Gure eskualdean lau dira, ezta?**

Bai. Aramaio betitik egin da; Antzuola ere aspalditik. Eta agintaldi honetan, batu dira Bergara eta Elgeta. Eskualde honetan aukera dute Oñatik eta Leintz Gatzagak ere, baina ez dira kide. Agintaldi berriarekin batera, gurako genuke horiek ere Uemara ekarri.

**Zein da Ueman sartuta dagoen udalerri handiena?**

Biztanle kopuruari begira, Bergara eta Azpeitia. 1.000 biztanletik beherako herri asko izan ditugu, baina azkenaldian ikusi dugu herri handiagoak ere etorri direla. Gaur egun, 115.000 herritar inguru batzen gara Ueman. Udalerri euskaldunetan, ordea, 280.000 biztanle inguru daude. Eta gure erronka da agintaldi honetan bikoiztea Uemako kide diren herritar kopurua.

**Zein da baldintza Uemako kide izateko?**

Bi dira: bat, udalerri horretan, biztanleen %70etik gora euskalduna izatea. Gure helburua da udalerri horietan euskaraz funtzionatzea. Beste baldintza: borondate politikoa izatea euskaraz funtzionatzeko.

**Zer eskatzen zaie udalerri horiei, ze erantzukizun hartzen dute Uemako kide izatearren?**

Lehenbizi, herritarrei ezer eskatu aurretik, udal barruko egoera zein den aztertzen da. Eta horren arabera planifikazioa egiten da. Urte gutxiren epean, euskaraz bakarrik funtzionatzeko edo bide horretan jartzeko. Orain arte ez dugu herritarren artetik arazorik izan.

**Badira, ordea, Uemako kide izateko baldintzak bete arren bertako kide ez diren udalak ere, ezta? Zein da arrazoia?**

Kontzientziazio falta, akaso. Udalerri askok uste dute euskaldunak izanik hala jarraituko dutela aurrerantzean ere, baina guk esaten diegu euskaldunak izan arren geroago eta erdaldunagoak izan daitezkeela neurririk hartu ezean. Uemako udalerri txikienak nahiko ahulak dira zentzu batean: txikiak izanik, migrazio handi baten aurrean, etxeak-eta egin direlako, esaterako, zaurgarriak gerta daitezke eta, egun batetik bestera, udalerria erdaldun daiteke asko.

**Zein da Uemaren helburu edo izateko nagusia?**

Herriak euskalduntzea eta egunero euskaraz funtzionatzea. Esaterako, har dezagun Madrilgo udalerri bat: Pinto. Hark gaztelaniaz normal funtzionatzen duen neurrian, hemen, Bergaran, esaterako, euskaraz normal funtzionatzea. Borondate politikoa dagoelako, baina baita legearen aldetiko babesa dugulako. Gustatuko litzaiguke egunen batean Euskal Herriko udalerri guztiek %70etik gorako euskaldunak edukitzea.



Jon Bollar, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

> "Ea udalerri guztiek %70etik gorako euskaldunak dituzten laster"

> "Normalizazioa azkarrago lortuko dugu arnasgune gehiago edukita"

> "Etorkinei eskuorria ematen diegu euskaraz eta euren hizkuntzan"

> "Hizkuntza ahulak babesteko ez da nahikoa borondatea; legeak behar dira"

**Hainbat lan arlo edo esparru ditu Uemak, ezta?**

Arlo politikoan ahalegintzen gara gainerako erakundeetan eragiten, hizkuntza politika egokia erabil dezaten. Salatu beharrekoa salatzeaz gain, laguntasuna eskainita. Bestalde, arlo teknikoan egitasmo ezberdinak ditugu, hainbat esparrutan.

**Euskal Herrira etorri berriak direnekin lan egiten duzue.**

Bai; udalerri guztietan protokolo bat daukagu, etorkin bat erroldatzera udalera datorrenean jarraitu beharrekoak zehazten dituena. Etorkinei eskuorri bat ematen diegu euskaraz eta haien jatorrizko hizkuntzan dagoena eta, bestalde, hainbat informazio eskaintzen diegu, premiazko zerbitzuena. Bestalde, bizpahiru udalerritan Auzoko izeneko egitasmoa dugu etorkinak bertan integratzen laguntzeko.

**Uemaren eginkizunetako bat da herriz gaindiko administrazioetan euskara bultzatzea. Ze emaitza lortu dira horretan?**

Nota txarrak jarriko nizkieke Osakidetzari eta justizia administrazioari. Izan ere, Euskararen Legea onartu zela 30 urte bete dira, eta mediku euskaldunak eskatzen ari gara. Tragikoa da. Justizian ere hainbat traba ditugu. Umeak euskaraz erregistratzeko arazoak daude.

**Ze zailtasun ditu Uemak bere lan jarduna burutzeko?**

Gainerako erakundeekin, goiko erakundeekin, harremanak ez dira samurrak. Utzikeria nabaritzen dugu erakunde horietan. Gaur egungo legea oztopo da, ze ez baitu baimentzen euskara hutsean bizi izatea gaur eta hemen.

**Uemaren aldarrikapen nagusia?**

Udalerri euskaldunak babesteko lege babesa behar dugu, egiten ditugun funtzio guztiak euskaraz izan daitezen. Hizkuntza bat ahul dagoenean, bere habitata edo esparru sozio-lingusitikoa babestu behar da. Eta hori egiten da funtzioak euskara hutsean emanda. Horretarako, legez babestu behar da. Borondate politikoa ez da nahikoa.


TORRA+PORTELLA
Zapore, plater, nahasketa berriak aurkitzea atsegin duzu. Modernotasuna unean bertan gozatzea, estiloan aukera freskoena gozatzea. Horregatik, Kibucen aurkituko dituzu sukaldeko espazioa zure gustura sortzeko errezetarik onenak. Zuk egiten duzu Kibuc.
ZU zara freskotasuna
zuk egiten duzu kibuc
KIBUC Gure Ametsa
Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com
www.kibuc.com
Proiektu eta eraberritze integralak
KIBUC
altzariak eta osagarriak
Azkenean etxean

## DUELA 10 URTE

2001-06-01

### AHTren kontrako errekurtsoa Antzuolan

AHTren proiektuaren kontrako errekurtsoa aurkeztu zuen Antzuolako Udalak 2001eko ekainean. Abiadura Handiko Trenak ingurumenari eragingo zizkion kalteak salatu zituen. Euren hitzetan, AHTk ez zituen kontuan hartzen Europako Batasunak ezarritako irizpide eta arauak.

AHT Gelditu Elkarlana erakundeko kide zen Antzuolako Udala, beste bederatzi udal eta beste hainbat erakunde eta talderekin.



AHT eta Beasaingo korridorea. | GOIENA

2001-06-01

### Urbiako txaboletan otordurik ez

Urbiako txaboletan otorduak ematea debekatu zuen Partzuergoak 2001eko ekainean. Euren esanetan, ez zutelako baimenik eta ez zituztelako Osasun Sailaren arauak betetzen. Kexa ugari jaso ondoren jarri zen Foru Aldundia Partzoneriarekin hartu-emanetan. Artzainek esan zuten Partzuergoarekin zuten akordioak zehazten zuela txabolaren jabeak zuela ostalaritzako esklusibotasuna.

## DUELA 5 URTE

2006-06-02

### GOIENKARIAk irakurle gehiago

CIES erakundearen datuen arabera, 2006ko martxoaren 15etik apirilaren4ra arte egindako neurketetan, GOIENKARIAk 38.500 irakurle zituen eta irakurriena zen Debagoienean eta Aramaion. Bestalde, GOITBk 6.000 ikusle zituen, eta *Goiena.net* euskara hutsezko seigarren atari ikusiena zen.

## HERRITARRAK

OÑATI

**Manolo Cambeses** Galizia tabernako barran ezagutu dute askok, eta orain sukaldean egiten du lan, besteak beste, olagarroa prestatzen. Ourensekoa da, baina 38 urte dela bizi da Oñatin. | MIREIA BIKUÑA

# "Txikiteoa asko aldatu da: egun egiten dena askoz selektiboagoa da"

Manolo Cambeses (1954, Loña, Ourense) orain dela 38 urte heldu zen Oñatira. Emaztearen gurasoek zeukaten tabernan hasi zen lanean, eta egun, bertan dihardu. Herrian *Galitziko Manolo* moduan ezagutzen dute gehienek. Harekin egin dugu berba herriak izan duen bilakaeraz, krisiaz eta haren amaginarreba Encarnak egiten zuen olagarroaren sekretuaz.



Manolo Cambeses Galizia tabernako barran. | MIREIA BIKUÑA

**Nola heldu zen Ourenseko mutila Oñatira?**

Aitaginarreba Loñakoa zen, eta oporretan joan ziren urte baten, gerora emaztea izango zena ezagutu nuen. Ezkondu aurretik etorri nintzen Oñatira. Hemen ezkondu ginen.

**Eta zuzenean tabernara sartu zinen.**

Galizia tabernak 58 urte bete berri ditu eta nik 57 dauzkat. Hori horrela, ibilbide luzea egin du tabernak.

**Galizia eta Euskal Herria oso antzekoak dira eguraldiari eta naturari dagokionez. Baina aldaketarik sumatu zenuen?**

Egia da, ezaugarri antzerakoak dituzten lurraldeak dira. Hasieratik gustura sentitu nintzen, eta horren lekuko da Oñatin geratu ginela.

**Nolako bilakaera izan du tabernak?**

Gizartea moduan, asko aldatu da. Tabernan lanean hasi ginenean eguneko menu asko ematen genituen. Hijos de Juan de Garaiko langile asko etortzen ziren gurera. Bestalde, orduan egiten ziren txikiteoak ikaragarriak ziren. Txikiteorako tradizio izugarria zegoen. Koadrila asko ibiltzen ziren eta bezero fidelak genituen.

**Eta txikiteoa zenbat aldatu da?**

Kopuru aldetik, askoz pertsona gutxiago ibiltzen da egunero. Baina badira txikiteoa atsegin dutenak. Esango nuke txikiteoa asko aldatu dela. Egungoa selektiboagoa da. Guregana datozen bezero asko ardoak probatzera datoz.

> "Olagarro gozoaren sekretuetako bat olagarroa Galiziakoa izatea da"

> "Ez dugu arazorik izan Tabakoaren Legearengatik; bezeroak ohitu dira"

**Krisia nabaritu duzue?**

Askorik ez. Oñati leku pribilegiatua da. Langabezia tasa oso txikia dago. Akaso, nabaritu dugu ardo on gutxiago zerbitzatzen dugula. Dena den, krisiaren aurretik pintxoa jaten zuenak orain ere jaten du.

**Olagarroa zuen eskutik heldu zen Oñatira.**

Hala da. Amaginarreba Encarna hasi zen olagarroa prestatzen, eta harrera ona izan zuen.

**Zein da Galizia tabernako olagarroaren sekretua?**

Ba, sekretua da. Olagarro plater gozoa egiteko, prestatzeko modua inportantea da, baina olagarroa ona izatea ezinbestekoa da. Guk Vigotik ekartzen dugu, baina leku askotan, Galiziako olagarroa dela esanez saltzen dizute, eta Mexikotik edo Kubatik ekarritakoak dira. Kolorean, tentakuluen eta buruaren forman... antzeman daiteke Galiziakoak ez direla. Eta, zer esanik ez, dastatzeko orduan. Zaporea eta testura oso bestelakoak dira. Olagarroak itsaso basatikoa izan behar du.

**Sekretua belaunaldiz belaunaldi gordeko duzue.**

Bai, hala da. Dena den, ez da aparteko ezer behar olagarro gozoa prestatzeko.

**Lehen barra atzean, orain sukaldean. Beti amantalarekin. Bezeroekin adeitsu. Hori da zuri buruz dudan ikuspegia. Baina ze beste zaletasun dituzu?**

Asko. Lanak ordu asko kentzen dizkit. Taberna familiako negozioa denez, guztioak dihardugu han, eta, halabeharrez, zaindu egin behar dugu. Baina *Galitziko Manolo*-k beste hainbat zaletasun ere baditu: adibidez, Errioxara askotan joaten naiz, batez ere Dueroko Erriberako jatorri izena duten ardoak probatzera. Ardoaren mundua zaletasuna da niretzat. Bestalde, asko irakurtzen dut. Baditut zaletasunak. Familiari eta aisialdiari lekua egin behar zaie.

**Familiako taberna izanda, noiz hartzen dituzue oporrak?**

Beti abuztuan: erdiko bi asteetan taberna ixten dugu eta oporretan joaten gara Galiziara.

**Gustura egongo zara Bartzelonak Txapeldunen Liga irabazi duelako.**

Bai. Bartzelonazalea naiz, baina ez naiz jarraitzaile sutsu horietakoa. Real Madrilgo jarraitzaile diren askoren laguna naiz, eta, modu sanoan, tira-birak izaten ditugu.

**Zer moduz Tabakoaren Legearekin?**

Ondo. Bezeroak segidan ohitu ziren, eta guk ez dugu arazorik izan inorekin.

## NIRE HERRIAN

**:) HIRIGINTZAKO LANAK**

Oñatik bilakaera itzela izan du azken urteotan. Lan dotorea egin dute udal arduradunek. Batez ere, azpimarratuko nuke hirigintza arloan egindako lanak: Roke Azkune auzoko eraberritze lanak, Atzeko kalekoak, Errekaldekoak, Bidebarrieta, erdiguneko kaleak oinezkoendako egitea, lur azpiko aparkalekuak...

**:( SEGURTASUN TXIKIA**

Azkenaldian lapurreta asko egon dira. Uste dut segurtasun txikiegia daukagula. Ez nuke esango Oñati Bronx denik, baina orain dela gutxi, aste berean, bitan lapurtu zuten Kale Barriko lurrin-denda baten. Gauetan paseatzera joaten naiz, eta ez naiz beldurtuta joaten, baina negozioendako segurtasun handiagoa behar dugu.

# HERRIAK

ESKORIATZA

# 40 urte Leintz aldean hezten

- 1970eko iraila ezkero dago martxan Luis Ezeiza, Elizate, Gatzaga eta kaleko ikasleekin
- Ikastetxearen urteurrena dela-eta, erakusketa, aste kulturala eta jaialdia egingo dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurtengo ikasturtean 40 urte beteko dira Eskoriatzako Luis Ezeiza eskola eraiki zenetik. 1970eko irailean estreinatu zuten ikastetxea eta inaugurazioa 1971ko udaberrian egin zuten, orduko gobernadore eta guzti. Eskolak eraikina egiteko tramiteak egiten hasi ziren, eta ikastetxea martxan jarri aurretik hil zen alkatearen izena darama; hain justu, Luis Ezeiza.

Herrian ikastetxea martxan jartzeak elizateak eta Leintz Gatzaga eskola barik uztea eragin zuen, eta ikasle guztiak Luis Ezeizan batu ziren. Ordutik hona hamaika aldaketa izan ditu, hala nola Francoren heriotza, trantsizioa eta gainerako urteak; garai bakoitzean, agintariek eskolak jokatu behar zuen paperaren araberako legeak sortzen zitutzen.

Egungo zuzendari Arrate Landak gogorarazi du gaztelania hutsetik euskara "komunikazio hizkuntza printzipala" izatera pasa direla. Horren harira, adierazi du 80ko eta 90eko hamarkadetan egindako lan nekeza emaitza ematen ari dela. Honakoa esan du Landak: "Eskoriatza herri txikia izanda eta bi eskola eduki arren, matrikula gorantz doa. Hizkuntza eredua D da eta metodologia arloan Antzuolako eskolaren eredua jarraituz eta haiengandik ikasiz, ikasleen interesetan oinarritzen den pedagogia eraikitzailea dugu helburu".



1970-71 ikasturteko ikasleak jolastokian. | LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

### Erakusketa kultura etxean

Urteurrena gogorarazteko datozen egunei begira, hainbat ekimen antolatu dituzte Luis Ezeizako eskola kontseiluak eta guraso elkarteak. Hain justu ere, datorren astean, urteroko aste kulturalarekin batera, erakusketa eta jaialdia egiteko asmoa dute antolatzaileek.

Batetik, eskolaren bilakaera jasoko duen *Luis Ezeiza, 40 urte* erakusketa zabalduko dute astelehenean, hilak 6, herriko kultura etxean. Hain justu ere, zapatura arte egongo da hori zabalik. Horretan, besteak beste, herritarrek utzitako 30 argazki zahar inguru ikusi ahal izango dira, azken hamarkadako beste hainbat erretraturekin batera. Horretaz gainera, eskola bertatik eta Ibarraundi museotik hartutako liburuak, proiektoreak eta bestelako materiala egongo dira ikusgai kultura etxean. Esan bezala, argazki zaharrak eskoriatzarrek utzitakoak dira. Urte hasieran, urteurrena zela-eta, eskolako irudiak etxean gordeta zituztenei lagatzeko eskaera egin zien.

Erakusketarekin batera, aste kulturalaren harira, martitzenean 2. mailako ikasleek tsunamien gainean egindako proiektua aurkeztuko dute kultura etxean; egindako sismografoa ere erakutsiko dute horretan. Eguaztenean, ostera, 1. mailakoen txanda izango da. Dinosauroak aztertu dituzte maila horretako ikasleek, eta horren gaineko proiektua aurkeztuko dute. Bata zein bestea 18:00etan hasiko dira.

### 'Ekolapiko' hitzaldia

Aste kulturala ere egingo dute datorren astean. Astelehenerako, esaterako, gurasoendako hitzaldia antolatu dute, 18:00etan. Aloña Gonzalezek eta Sabrina Patok egingo dute *Ekolapiko: haurrendako elikagai ekologikoekin* berbaldia.

Martitzenean, Biblioteka Eguna egingo dute eta eguaztenean, 5. eta 6. mailetakoek Txiapasi buruzko argazki emanaldia ikusiko dute. Eguenean, Huhezikoek antolatuta, jolasak izango dituzte umeek eta egubakoitzean, *Kontukantoikin* ipuin saioa.

### Zapatuan, jaialdia

Bestalde, 40. urteurrenaren ikasturteari bukaera emateko, jaialdia ere egingo dute ekainaren 11n. Urtero, ekain aldera, eskolako jaia egiten dute; bada, aurtengoa berezia izango da. 11:00etan hasiko dira egun horretan ekitaldiak, Herriko Plazan egingo duten umeen emanaldiarekin. Ordubete geroago, eguerdian, jolasak izango dira toki berean.

Aurtengo berrikuntza eguerdian iritsiko da, Biolurrek gertatutako bazkari ekologiko ederrarekin. Horren harira, Landak jakinarazi du 50 lagun inguruk eman dutela izena eskolako jolastokian egingo den bazkarirako. Bazkalostean, berriz, askotariko ekimenak izango dituzte umeek. Besteak beste, apar festa, puzgarriak, jokoak eta musika izango dituzte toki berean. Landak ohartarazi du eguraldi txarra egiten badu, pilotalekuan izango dela jaia.



Ikasle taldea, gelan. | LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

# Galparsoro: "Agintaldi erosoagoa izatea opa diet"

## Hilaren 11n amaituko den agintaldia "gogorra" izan dela dio; datorren alkateari laguntzeko gertu dago

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Amaitzera doa agintaldia, ekainaren 11n osatuko da udal gobernu berria. Bilduk gehiengo osoa lortu du eta Inazio Azkarraga-Urizar izango da alkate berria. Ordura arte, baina, jarduneko alkate izaten jarraituko du Ino Galparsorok eta hauteskundeetako emaitzak jakin ostean, heldu da agintaldiaren balorazio txiki bat egiteko ordua, baita Inazio Azkarraga-Urizar hurrengo alkatearen kargu-hartzearen gainean galdetzeko ere; martitzenean Arrasate Irratiko estudioetan izan zen Galparsoro.


Ino Galparsoro, asteon, Arrasate Irratiko esatari Oihana Elortzarekin. | JULEN IRIONDO

Azkarraga-Urizar "ilusio handiz" ikusten du, eta zeregin berria "lasai" hartzea gomendatu dio: "Zorterik onena opa diet datozenei eta gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu ez daitezen hutsetik hasi", gaineratu zuen. Izan ere, gogoratu du Galparsorok, duela lau urte hutsetik hasi behar izan zirenez, "gogorra" izan zen agintaldiaren hasiera. Bada, ostekoa ez zen errazagoa izan: "Egoera ekonomikoak eraman gaitu udaletxeko hainbat gastu eta proposamen erabateko zorroztasunez aztertzera. Eta hori gutxi balitz, Estatuak Arrasate ezker abertzalearen aurkako erasoen erdi-erdian kokatu zuen, eta gu hor, tartean", esan du.

Arlo pertsonalean, espetxean egin zituen hiru hilabete. Egun oraindik ez daki auzia zein egoeretan dagoen, izan ere, Garzonek zeraman auzia orain beste epaile batek darama. Auzia argitu artean astero sinatu behar du epaitegian eta ezin da Espainiatik irten.

**Bilduren esker onak herritarrei**

Arrasatearrei eskerrak eman gura die Bilduk: "Guregan jarritako konfiantzagatik, proiektu honetan sinesteagatik, prozesu guztian laguntzeagatik eta une garrantzitsu honetan herri bezala erantzukizun lezioa emateagatik, eskerrik asko".

Bestalde, Udalean ordezkaritza lortu duten gainerako taldeekin harremanetan jarriko direla jakinarazi dute, datorren astetik aurrera.

## NIRE USTEZ


**OIHAN ZUBIZARRETA**

# Tripetako hizkuntza

Duela ez asko, munduko hizkuntza minorizatuen egoeraz hizketan ari ginela, lagun batek munduko pertsona orok gure baitan dugun hizkuntzaz hitz egin zidan. Norbere buruari hitz egiteko erabiltzen dugun hizkuntza horri, tripetako hizkuntza deitzen zion berak. Ama hizkuntza izan edo ondoren eskuratua izanik ere, gure tripek hizkuntza bakarrean hitz egin ohi digutela esaten zuen nire lagunak.

Hizkuntzen gaineko aurreiritzi okerrak irentsi eta elebitasunaz uste faltsuak hedatzen diren garaiotan, gogoeta ederra irudi zitzaidan, hizkuntza bakoitzari dagokion espazioa itzultzeko, tripetatik abiatzea, alegia –baina buruarekin jokatuz–.

Egunotan, tripak dantzan ibili ditugu askok. Askori tximeleten zirrara berezia bildu zaigu tripan, beste askori tripak nahastuko zitzaizkien akaso. Eta tripek agindutakoa buruarekin egitea baino ez zaigu geratzen. Tripa asko eta desberdinak garela ohartuta, baina norbere triparen hizkuntza, gogo eta bulkadari, buruak eskaintzen dion argitasuna eta pentsamendua emanez.

Batzuentzat gutxi gara, beste batzuentzat asko. Garenaren %100 baino ez gara ordea, eta errespetu bera merezi dute gure buru, tripa eta mihiek. Buru eta tripen oreka horretan, mingain bakoitzak dauka-eta bere hitza.

# Elkartasun Eguna bihar, presoen oinarrizko eskubideen defentsan

**J.B.** | ARRASATE

Bihar ospatuko da euskal presoen aldeko Elkartasun Eguna. Bost urte beteko ditu Portaloira topaguneak antolatzen duen ekimenak. Urtero moduan, egun osoko egitaraua prestatu dute eta aurten. Zuzeneko musika izango da protagonista aurten ere –kontzertuen gaineko xehetasunak 15. orrialdean–.

**Parrillada bost eurotan**

Irati tabernan hasita, 12:30ean bertso eta trikitiz bustitako poteoaz ekingo diote egunari, Jokin Labayen eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin batera. Gero, herri-parrillada egingo dute Biterin, 14:00etan. Iazkoari eutsiko diote: txartelak unean bertan erosiko behar dira, bost eurotan. Bi menu aukeran: normala eta begetarianoa.

**EGITARAUA**

**12:30** Bertso–triki poteoa, Irati tabernatik hasita.

**14:00** Parrilada herrikoia Biteri plazan.

**17:00-20:00** Kontzertuak 13 tabernatan.

**22:30** Kontzertuak gaztetxean, lau talde. Sarrera: bost euro.

# Herri txiroen aldeko Elkartasun Egunaren 13. edizioa bihar

**J.B.** | ARRASATE

Harreman gbernuz kanpoko erakundearen eskutik, herri txiroekin elkartasuna adierazteko eguna ospatuko da bihar Seber Altuben. 13. edizioa da aurtengoa eta haur zein helduendako egitaraua prestatu dute –ondoan–. Gainera, gune ezberdinak izango dira: bidezko merkataritzaren aldekoa, tedastatzearena, Ankur-eko (India) umezurtegiaren aldeko Ibai-Arteren tonbola, GKE ezberdinen erakusketak, umeendako puzgarriak eta Arizmendiko ikasleek antolatutako elkartasunezko euroa, besteak beste.

**EGITARAUA**

**10:00** Irekiera ekitaldia.

**12:00** Puzgarriak.

**12:30** Arrasate Musikaleko banda txikiaren kontzertua.

**17:30** *Kontu kontari, kontu-kantari* ikuskizuna.

**18:30** Herrixa Dantzan.

**19:30** Portaloi, zuzenean.

**20:30** Eroski Bidaien sarien zozketa.

Ekitaldiak, Seber Altuben.

# Ibai-Artek 100 eurogatik trukatu ahalko diren txartelak zozketatuko ditu ekainean

**J.B.** | ARRASATE

Maiatzeko baserritarren produktu ekologikoen eskaintzaren ostean, ekainean 100 euroko txartelekin sarituko du Ibai-Artek bezeroen fideltasuna. Ekainerako eskaintza berezia da eta zozketan parte hartzeko merkataritza elkarteak Arrasaten dituen 163 saltokietan Ibai-Arte txartelarekin egin behar dira erosketak.

**Trukatu, uztailaren 2an**

Erosketaren ostean txartel irabazleetako bat jaso duenak txartela 100 eurogatik trukatzeko Maala kaleko Rural kutxaren bulegoetara joan beharko du uztailaren 2an, 12:00etan.

MATRIKULA ZABALIK




Euskara ikasteko bide zuzena

Udako ikastaroak 2011

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**
Nafarroa kalea 2, 4 • ARETXABALETA
Intxaurtxueta 10 • ESKORIATZA
Tel.: 943 79 21 68
*leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net*
**Matrikulazioa: ekainaren 24ra arte**

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**
Arimazubi plaza 2 • ARRASATE
Tel.: 943 79 70 77
*euskaltegi@arrasate-mondragon.net*
**Matrikulazioa: ekainaren 17ra arte**

HABEren dirulaguntzaz
www.udaleuskaltegiak.net

UDAL EUSKALTEGIAK
EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO ENTITATE OFIZIALA

# Urritik aurrera gaztegunea martxan egotea espero dute

## Ekainean lanak amaitzea espero du Udalak; hurrengo astean bizilagunekin eta Txatxilipurdirekin batuko dira

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Pablo Urangan kokatuta egongo den erdiguneko gazte txokoari gero eta gutxiago falta zaio errealitate bihurtzeko. Tokiko gobernu batzarrak asteon onartu ditu gaztegunearen kudeaketa gastuak. Hau da, gaztetxoendako egoitza berriak izango duen funtzionamenduaren gaineko nondik norakoak onartu dira. Horien berri emango diete bizilagunei eta Txatxilipurdiko ordezkariei datozen egunotan.


Amenabar enpresako langileak lanean, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

**Udan, gaztetxoekin egon**

Izan ere, obrak azkenetan daude; Amenabar enpresak ekainerako lanak amaitzea espero du Udalak. Hala ere, egoitza berria uda ostera arte ez da irekiko, eta denbora tarte hori aprobetxatuko du Gazteria Sailak gaztetxoei lokala erakutsi eta etorkizunean izango duen erabileraren gaineko erabakiak elkarlanean hartzeko. Blanca Jauregi Gazteria Saileko arduradunak honela azaldu du: "Gure asmoa da egoitza berria ireki aurretik gaztetxoei lokala erakutsi eta eurekin batera, besteak beste, lokalaren banaketa zehaztea. Udaixe programan, adibidez, ekintza moduan aurreikusi dugu, izan ere, eredu parte-hartzailea bultzatu gura dugu".

Urrian jarriko da martxan; Maritxu Kajoi osteko astean zabaltzea da asmoa: "Prisekin ibili baino, nahiago dugu dena ondo lotuta dugula martxan jartzea", adierazi du Jauregik.

Asteburuko aisialdi eskaintza osatzea, gaztetxoendako eta erdigunean. Hori izango da Gaztegunearen helburua. Udalak aspaldi ikusi zuen Arrasaten hiru gazte txoko izan arren –Musakola, San Andres eta Erguin–, erdigunean 12 eta 17 urte artekoendako eskaintza hankamotz zegoela.


SUDC ELKARTEA

## 830 lagun erretiratuen bazkarian

SUDC elkarteak antolatuta, maiatzaren 28an erretiratuek bazkaria egin zuten Musakolako kiroldegian. 830 lagun elkartu ziren mahaiaren bueltan, giro ederrean. Eguerdiko mezaren ostean, autobusez, anbulantziaz eta oinez joan ziren kiroldegira. Eta bapo bazkaldu ondoren, oparien banaketa eta dantzaldia etorri ziren. Erretiratuak pozik eta baita antolatzaileak ere, eguna arazo barik joan zelako. Juan Luis Arkauz SUDC elkarteko presidentearen arabera, "ederto" joan zen eguna: "Ez da arazorik izan, dena ondo joan da".

## Segurtasun enpresa batek zainduko du garagardo jaiko karpa asteburu honetan

**J.B.** | ARRASATE

"Bandalismo ekintza bat, formarik puruenean". Hala azaldu ditu Arrasate Errugbi taldeko Ramon Barrutiak joan den eguen eta zapatu gauean izandako gertakariak: "Karparen oihala laban batekin pitzatuz sartu ziren bi gauetan, eta denetariko materiala apurtu, garagardoa edan eta jatekoa hondatu ziguten. Pentsa, gau baten kaka ere egin ziguten karpa barruan; guretako galera handia izan da".

Atzo hasi zen bigarren asteburua, eta bihar arte egongo da zabalik. Gertatutakoak ikusita, antolatzaileek segurtasun enpresa bat kontratatzea erabaki dute, eguenetik zapatura.

Aretxabaletan, Txarapeako etxeetarako eskaintza berezia



OPARIA
Indukzio-plaka
uztailaren
15a arte

iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

# Nazioarteko zazpiko txapelketak hamar talde batuko ditu bihar

## Horrekin batera, kadete mailako errugbi zazpiko finalak ere jokatuko dituzte

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Bihar, zapatua, Mojategin jokatuko duten nazioarteko zazpiko txapelketa inoizko fisikoena izango da, zelai erdi erabili beharrean zelai osoan jokatuko dutelako: "Zazpiko errugbia kirol olinpiar izango da hurrengo Olinpiar Jokoetan, eta modalitate horretara moldatzeko guk ere txapelketa halaxe jokatuko dugu", adierazi du aste barruan klubeko ordezkari Isei Barberok Arrasate Irratian: "Hori dela-eta, txapelketa jokatzeko errugbi zelaiarekin batera mojategiko futbol zelaia ere erabiliko dugu".

Hala, Arrasateko eta torneoan egongo diren gainontzeko bederatzi taldeetako ordezkariek gogotik egin beharko dute korrika, zelai osoan jokatuta lerroen arteko hutsuneak handiagoak izango direlako, eta paseetan ere zorrotzago ibili beharko dute.



Arrasatekoak, zazpikoan, 2009ko edizioan. | GOIENA

### Hamar talde izango dira

Arrasatek gonbidatuta Bera Bera, Hernani, Ordizia, Zarautz, Elorrio, La Unica, Gaztedi, Getxo eta Bordeleko Etudiant Club taldeak izango dira bihar Mojategiko berdeguneetan (15:00). Arratsalde osoa beharko dute txapelketa jokatzeko, baina bi zelai erabiliko dituztenez antolatzaileek aurreikusten dute 20:00etarako sari banaketa egitea, plazako karpan.

Nagusien txapelketarekin batera, baina, goizean (10:30ean hasita) kadete mailako zazpiko txapelketako finalak jokatuko dituzte, eta hor ere Arrasatek izango du ordezkaritzarik, Arrasateko eta Durangoko jokalariz osatutako taldea finalean izango delako.

# Dragoikoak irabazle eskola arteko txikien mailan

Euskadiko 29. eskolarteko kirol jokoetan Arrasate Dragoi Gimnasia taldekoek txikien binakako txapelketa irabazi zuten. Eider Altubek eta Miren Amozarrainek ezin hobeto egin zuten lana, lehenengo sailkatuta. Arrasatekoak Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako gimnastekin lehiatu ziren.



ARRASATE DRAGOI

# Danel Sagasta eta Iker Eskibel Gipuzkoako txapeldun mendikoaz

X.U. | ARRASATE

Joan den asteburuan Dorletako Amako ziklistak errepideko bizikletak alde batera utzi, eta Gipuzkoako mendiko bizikletako txapelketan izan ziren, Pasaian.

Kadetetan JMAko Danel Sagasta lehenengo sailkatu zen eta Lizarralde Kirolak taldeko Julen Axpe eta Andoni Sanchez ondoan izan zituen podiumean, bigarren eta hirugarren.

Kadete mailako emaitzekin konformatu barik, gazte mailan Dorletako Amakoak ere protagonista izan ziren. Errepideko lasterketetan erakusten dabilen gorputzaldia mendian berretsi zuen Eskoriatzako Iker Eskibelek (Mugarri-Jay), hura ere, Sagasta moduan, lasterketako irabazle izan zen-eta. Eskibelekin batera, talde bereko Jon Ander Kortabarria hirugarren izan zen.



Kadete mailakoek podiumeko postu guztiak bete zituzten. | I.KORTABARRIA



Eskibel lehenengo eta Kortabarria hirugarren. | I.KORTABARRIA

# Bihar 17:30ean jokatuko dute Ciprisek eta McAwenDauenek Zaldibarko finala

X.U. | ARRASATE

Bihar, zapatua, jokatuko da Zaldibarko finala, eta Cipris –eskoriatzarrak– eta McAwen Dauen –arrasatearrak– izango dira zein baino zein gehiago denboraldiko lehia erabakigarrian (17:30). Hala, finalerdietan hainbat ezuste egon ziren; izan ere, faboritoek ez zuten aurrera egin. Bazirudien aurten ere Dribling eta Lasagabaster finalean egongo zirela, iaz bezala, baina kanporaketan ez zuten asmatu, eta bihar hirugarren postuagatik lehiatu beharko dute, 16:30ean.

Urtero moduan, irabazleek antolatzaileekin ospatuko dute txapelketa, afaria eginda.

# Josu Letona lehenengoa izan da Espainiako kenpo txapelketan, pisu astunetan

X.U. | ARRASATE

Lesio batetik errekuperatu berri, eta txapelketa ondo prestatzeko asti barik, halaxe irabazi zuen joan den asteburuan Arrasate Kenpo Taldeko Josu Letonak Espainiako txapelketa. Letona pisu astunen kategorian lehiatu zen, eta gerriko marroien eta beltzen mailan nagusitu.

Letonarekin batera, Arrasateko eta Eskoriatzako kenpo taldeko beste ordezkari batzuk ere bikain ibili dira. Hala, Aretxabaletako Karla Zabala ere lehenengo sailkatu zen 85 kilo arteko mailan, hura ere puntuka. Eta gazte mailan Joseba Fernandez de Arroiabe ere lehenengoa izan zen.

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta
arrasate
beinke

# Punk-rock gaua, Berlingo 90eko hamarkadako musikak girotuta

## Elkartasun Egunaren barruan antolatu dute kontzertua, gaztetxean, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Elkartasun Eguna ospatuko dute bihar Arrasaten. Horren barruan hainbat musika emanaldi antolatu dituzte. Egunean zehar herriko kaleetan eta tabernetan musikaz gozatzeko aukera paregabea egongo da eta gauean, ostera, gaztetxean egingo dute kontzertua. Azken urteetan indar handia hartu du elkartasun festak, eta musikak protagonismo berezia izan du beti.

Punk-rock kontzertua izango da gaztetxean eskainiko dutena. 22:30ean hasiko da eta sarrera 5 euro kostako da.



Slamtilt taldeak berriro ere joko du gaztetxean. | GOIENA

**Berlingo doinuak**

Alemaniatik etorrita, Slamtilt taldeak jardungo du gaztetxean. 90eko hamarkadako Berlingo taldea da. Ez da lehenengo aldia Arrasateko gaztetxean jardungo dutena; izan ere, bai Arrasaten eta baita Euskal Herriko beste gaztetxe batzuetan ere jardundakoak dira Slamtilt taldekoak.

Musika zuzena eta bortitza egiten dute, punk eta hardcore arloan pareko gutxi dituzte.

Berlingoak izango dira protagonista nagusiak, baina gaztetxeko agertokira beste hiru talde ere igoko dira: Arrasateko, Mungiako eta Elorrioko taldeak, hain zuzen.

**Etxekoak ere oholtza gainean**

The Motherfuckers etxeko taldea Enboskada, Des-Kontrol, Dirty Acoustic Brothers eta beste hainbat taldetan ibilitako kideek osatzen dute. Beteranoak diren arren, aspaldiko partez elkartuko dira punk-rock emanaldi dotorea egiteko bihar.

Sermonds Elorrioko taldeak bigarren diskoa aurkeztuko du Arrasaten. Gitarra indartsu eta melodia nabarmeneko punk-rock doinuak egiten dituzte bizkaitarrek. Azkenik, Itziarren Semea Mungiako ska, punk, hardcore eta reggae taldeak jardungo du gaztetxean.

**Tabernetan 13 talde**

Arratsalde partean, 17:00etatik 20:00etara, 13 taldek girotuko dituzte tabernak. Punka eta oi! doinuak nagusituko dira, baina punk-rock, psikodelia eta popak ere izango dute lekutxoa.

# La Madriguerak Gure Leku girotuko du gaur

## Kontzertua 23:00etan hasiko da; bihar, ostera, MobyDick bakarlariak Irati kanpoan joko du

A.E. | ARRASATE

Arrasateko taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan –23:00–. "Uzten digutenera arte egongo gara jotzen", esan digu Juantxu taldekideak.

2007an sortutako taldea da La Madriguera, eta 2008an lehenengo maketa argitaratu zuten. Bost lagunek osatzen dute taldea: Juantxu, baxua eta ahotsa; Ivan, gitarra; Vilvi, bateria; Sergio, gitarra eta ahotsa; eta, Andoni, ahotsa.

**Bigarren kontzertua**

Gure Lekun eskainiko dute "era berriko" bigarren kontzertua musikariek. Izan ere, Iban San Jose gitarra-jole berria du taldeak –Txipiren ordezkoa–. "San Andresko jaietan eskaini genuen elkarrekin lehenengo kontzertua", azaldu du Juantxuk. "Erguinen jo genuen azkeneko aldiz; gero, bateria-joleak taldea utzi zuen eta bateria-jole berriarekin kontzertu bakarra eskaini dugu, San Andres jaietakoa", gaineratu du. Hala, taldekideak gogotsu azaldu dira gaurko kontzerturako.

**Rock doinuak**

Rock doinuak egiten dituzte arrasatearrek. "Extremoduro, Platero y Tu... dira gure erreferenteak musika munduan, baina berezko estiloa duen taldea gara", dio Juantxuk. Dagoeneko hainbat abesti sortu dituzte eta euren asmoa da uda ostean diskoa grabatzen hastea. Hortaz, abesti berriak entzuteko aukera egongo da gaurko saioan Gure Lekun.

**Irati tabernan MobyDick**

Bestalde, Orhipean kultura eragintzak kontzertu aparta antolatu du domekarako. Irati tabernaren kanpoaldean MobyDick bakarlariak jardungo du. 19:00etan izango da saioa.

Getxoko MobyDick bakarlariak abesti propioak eta bertsio ezagunak tartekatzen ditu. Sentimenduz beteriko ahots indartsua dauka bizkaitarrak eta gitarra akustikoa besterik ez du izaten lagun agertokian. Ospe handia hartu du azkenaldian; izan ere, Bilbao Hiria lehiaketan 3. sailkatu da pop-rock sailean, bakarlari batendako ohikoa ez den saria.

# Poesiak eta antzerkiak bat egingo dute domekan gaztetxean

A.E. | ARRASATE

Gaztetxean antzezlan umoretsuaz gozatzeko aukera egongo da domekan. Poliposeidas antzerki taldeak *Poliposeidas* antzezlana eskainiko du, 19:00etan.

**Bi aktore taula gainean**

Laura Gallego eta Cesar Rosado aktoreak eta Antonio Romero soinu teknikaria dira protagonistak. Umorea ardatz hartuta, barre itolarria sorrarazikо duten uneak antzeztuko dituzte. Mundu errepikakor atsegin-desatsegin honen inguruko kritika eta gorabeherak planteatuko dituzte.

"Ikuskizun poetiko atipikoa, antzezlan paregabea, ezberdina, barre itolarria sorraraziko dizuna eta, era berean, buruari buelta pare bat ematera ere bultzatuko zaituena"; hala azaldu dute gaztetxeko lagunek domekako lana.

*Poliposeidas* antzezlana polipoetika alorrean kokatu behar da; hau da, ohikoa ez den poesia mota bat da, besteak beste, *performance* poetikoa bere baitan hartzen duena.

# King Kong neskarekin txundituta ikusleak

*Emakumeak eszenan* antzerki zikloaren barruan *King-Kong neska* antzezlana eskaini zuten eguaztenean Kulturaten. Josune Monton aktoreak ordu erdiko ikuskizun bikaina eskaini zuen. Antzezlan horren ondoren jabetze eskolako ikasleek eskaini zuten emanaldia Kulturaten. Harrera ona izan zuten emanaldi biek.



JOKIN BEREZIARTUA

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

EZKIÑA
ZABALDU BERRI!
7:30tan zabaltzen dugu
•
Plater konbinatuak, bokatak eta pintxo hotzak eta beroak
•
Ostegunetan PINTXO POTEA
Olarte kantoia 25 - Arrasate Tel.: 943 77 18 40

# Urbano zerbitzua Boluraino iritsiko da datorren urtean

## Bestalde, astelehenetik domekara luzatuko dute zerbitzua

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Urbano zerbitzua ustiatzeko baldintzak onartu zituen udalbatzak ahoz batez, asteleheneko osoko bilkuran eta orain lehiaketara aterako dituzte.

Baldintzon arabera, oinarrizko bi linea zirkular egongo dira erdigunea lotuko dutenak puntu hauekin: Ibarra kalea, Ozaeta, Zubiaurre, Bolu, San Lorentzo, Amillaga eta Matxiategi. Berrikuntza Bolu izango da, orain arte ez zen eta zerbitzua haraino iristen –ziburuen ondoko biribilgunean geratuko da–. Linea bakoitzak 20tik gora geldialdi egingo ditu.



Gaur egungo urbanoa. | GOIENA

### Astelehenetik domekara

Maiztasuna areagotu egingo da. Lanegunetan, astelehenetik egubakoitzera, urte osoan –abuztuan izan ezik– 07:00etatik 21:0etara izango da zerbitzua, eta kadentzia 20 minutukoa. Zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zerbitzua, 40 minuturo. Eta domeka eta jai egunetan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, 40 minuturo. Prezioari dagokionez, bidaia batek 1,10 euro balioko ditu eta 10 bidaiako bonuak, berriz, 6 euro.

Zerbitzua emateko hiru ibilgailu berri egongo dira –bi zirkulatzen eta bat erreserban– eta irisgarritasun baldintzak beteko dituzte.

# Ekainaren 9an, eguena, inauguratuko dute Xabalote gazteleku berria

**M.B.** | BERGARA

Ekainaren 9an, eguena, inauguratuko dute Xabalote gaztelekua. 18:30ean izango da ekitaldia eta jan-edana eta musika egongo dira. Gainera gaztelekuko gelak zabalik egongo dira edozein herritarrek ikusi ahal izateko.

Inaugurazioaren ostean Pazkoak datozela kontuan izanda, gaztelekua haien ostean zabalduko dute, ekainaren 16an, hain justu ere.

### Ordutegia

Eguenetik domekara egongo da zabalik, eguenetan, 17:00etatik 20:00etara; egubakoitz eta zapatuetan, 17:00etatik 21:30era; eta domeketan, 17:00etatik 20:00etara. Abuztuko oporraldian itxita egongo da eta irailean berriz irekiko dute.

# Bigarren kontsumo taldea osatzeko batzarra deitu dute ekainaren 9rako

**M.B.** | BERGARA

Basherri kontsumo taldea asteon hasi da baserriko produktuak modu normalizatu batean jasotzen. Otsail aldean hasi zen martxan, eta hasieran produktu gutxi batzuk baino ez zituzten jasotzen. Orain, berriz, barazkiak, ogia, fruta, bildotsa, sagardoa eta txahal okela jasotzen dute. Kontsumo talde horretan 15 familia batzen dira eta bost ekoizlek hartzen dute parte.

Bada, herritarrek erakutsitako interesa dela eta, bigarren kontsumo talde bat martxan jartzeko aukera aztertzen dihardute eta batzarra deitu dute horretarako ekainaren 9an, 19:00etan, Oxirondo azokan.

# Txalo artean agurtu zuten astelehenean herritarrek Udal Gobernu taldea

## Azkeneko ohiko osoko bilkuran esker hitzak jaso eta eman ere egin zituzten

**M.B.** | BERGARA

Hunkigarria izan zen asteleheneko ohiko osoko bilkura. Agintaldiko azkena zen eta herritar ugari batu zen gobernu taldeari agur esan eta eskerrak emateko.

Hain justu, esker hitzak izan ziren batez ere astelehenean entzundakoak. Iñigo Iñurrategi Aralarko zinegotziak egin zituen lehenak, bertsotan, eta esker hitzak izan zituen zinegotzi guztiendako eta herritarrendako.

Gero, Agurne Barruso jarduneko alkateak hartu zuen hitza eta gainerako zinegotziei zuzendu zitzaien: "Udalbatza osatzen dugun gehienok hurrengo agintaldian ez gara hemen izango, arrazoi desberdinak tarteko. Batzuek zuek hala erabakita utziko duzue kargua, beste batzuek herritarrek horrela nahi izan dutelako eta Ezker Abertzaleko zinegotziok gaur egun oraindik ere, eta batzuek ezkutatu nahi duzuen arren, herri honetan pertsona askoren eskubide zibil eta politikoak urratuta daudelako".

### Elkarlanaren eredu

2008ko mozio etikoa eta "herriko sei lagun euren lan politikoagatik kartzelaratu izana" gogora ekarri ostean, Ezker Abertzaleak eta Aralarrek "herriaren onerako egindako Gobernu Ituna" aipatu zuen: "Aberatsa izan da Aralarko zinegotziekin izan dugun elkarlana. Elkarrekin hausnartu, eztabaidatu dugu, eta, garrantzitsuena, elkarrekin eraiki dugu".

### Herri mailako harriak

Hauek aipatu zituen jarduneko alkateak: "Permutaren inguruan oposizioko alderdi nagusiak, EAJk, erakutsi duen egoskorkeria; gobernuaren elkarlanerako eskaintzen aurrean erakutsitako ausardia falta; ezin ahaztu hauteskunde kanpainan gure gestioaren inguruan EAJk esandako gezur eta faltsukeriak".

Horrekin ere, Barrusok agintaldiko alderdi hauekin geratuko direla azpimarratu zuen: "Jose Luis etxera ekartzeko ia-ia hautetsi guztiak batu izana; herritarrek udal gestioan inplikatzeko izan duten jarrera ezin hobea; laguntza eta aholku-eske joan garenean herritarrengandik jaso tako harrera; eta Plan Estrategikoa egitean norbanakoek izan duten ardura eta inplikazioa".

### Lagunak eta etxekoak gogoan

Lagun eta familiakoendako esker hitzak ere izan zituen, eta horiek izan ziren une hunkigarrienak.

Batetik, Jesus Mari Garitanorendako esker hitzak izan zituen: "Kargurik eta hautetsi aktarik gabe erantzukizun osoz jardun duena lau urte hauetan. Gari, zu gabe ezingo genukeen egin eta posible izan bada, zati handi baten, zuregatik izan da".

Bestetik, familiakoak ere izan zituen gogoan: "Polita izan da gobernuko lana, baina guretzat polita izan bada ere, gogorra izan da gure etxekoentzat eta gure azken pleno honetan gogora ekarri nahi ditugu. Eskerrik asko. Zuena ere bada meritua".

### "Pozik goaz"

Halaxe esan zuen: "Pozik goaz. Etxeko lanak eginda izatearen sentsazioarekin. Zorte on hurrengo agintaldian hemen jarraituko duzuen lau zinegotziei. Batez ere Lauriri oposiziotik gobernurako urratsa emango duzulako. Eta zorte on zuen bizitzan ekainaren 11n etapa berri bat hasiko duzuenoi. Guk gure aldetik herrigintzan jarraituko dugu; ireki den eskenatokiak guztion ahalegina eta lana eskatzen du eta orain ez gara etxera joango".

# Jardun elkarteak ikasturte bukaerako jaia egingo du gaur

Jardun euskara elkarteak ikasturte amaierako jaia egingo du gaur, egubakoitza. 18:00etan hasiko da, San Martin plazan, elkarteko bertsolariek, trikitilariek, dantzariek... parte hartuko dute. Talde horiek egingo duten emanaldiaz gain, bestelakoak ere egongo dira ikasturte bukaerako jai horretan.

# Astelehena ezkero salgai daude Pazkoetako bazkarirako txartelak

Kultura etxean, Deporren, Ariznoan eta Frontoiko tabernan daude salgai, ekainaren 8ra arte –aurrez ez badira guztiak agortzen–. Prezioa 15 euro da; 10 euro, 10 urtetik beherakoendako –horiek kultura etxean bakarrik salduko dira–. 700 txartel jarri dituzte salgai. Zeliakoek kultura etxera deitu beharko dute.

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92


1799
1999
Mariaren Lagundia ikastola
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
Benda bat edukitzeaz nekatuta?
Harantzago ikusteko prestatzen zaitugu
Gizarte Integrazioko
Goi Mailako Teknikaria
MATRIKULAZIOA:
ekainaren 1etik 10era
Inoiz pentsatu baduzu...
zergatik ez errealitate bihurtu?
HAUR HEZKUNTZAKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA
Profesionalak gertatzen 1976-tik
• Praktikak Europan egiteko aukera (Erasmus)
• GMHZtan lan munduratze altuena %85a
• Plaza mugatuak
informazio gehiago:
www.mlagundia.net

# Gipuzkoako Kopa irabazita, domekan Gasteizera

**XABIER URTZELAI** | BERGARA
Joxerra Lasaren eta Iñaki Lazkanoren neskek –infantil mailakoak– domekan esango diote denboraldi borobilari agur, Gasteiztik gonbidatu dituzte-eta, Gipuzkoako Kopa irabazi ostean, Lakuan torneo bat jokatzera.

Denboraldiko hirugarren garaikurraren bila joango dira, Gipuzkoako Kopa jasotzearekin batera, duela hilabete jokatu zuten Gasteiz Cup txapelketan ere lehenengo sailkatu ziren -eta, penaltietan Urki mendean hartuta.

**Gipuzkoan txapeldunak**
Zalantza barik, Gipuzkoako Kopa izan da aurtengo lorpen handiena. Joan den zapatuan jokatu zuten finala, Donostiako Vasconiaren kontra, eta mahoneroak erraz nagusitu ziren (5-1). Irati Lazkanok lau gol sartu zituen, eta Maddi Alberdik bosgarrena.

**"Benetako taldea dira"**
Hain zuzen, iaztik hona talde moduan egin duten aurrerapena azpimarratu du Iñaki Lazkanok: "Kategoria hauekin aurretik egin den lana azpimarratu behar da, eta ikustekoa da talde honek urtebetean ze aurrerapen egin zuen. Iaz emaitzak bestelakoak izan ziren, baina aurten oso ondo dabiltza. Kategoria hauek finkatzeko egin behar dugu kirol elkartean lan".


Bergarako neskak, dominak benetako diren ikusten. | DIAZ



Herri Mugimenduko kideak, Xaxau lagun dutela, Bideberrin. | MONIKA BELASTEGI

# Egitarau oparoa egin du Herri Mugimenduak

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA
Herri Mugimenduak dagoeneko prest du Pazkoetarako antolatu duen egitaraua, eta eguaztenean aurkeztu zuen Bideberrin, txosnagunean.

Egitarau oparoa izango da eta askotariko ekitaldiz osatua, ondoko taulan ikusten denez.

Herri Mugimendukoen esanetan, aurten ere Xaxau birusa "borrokarako eta festarako indar eta gogoarekin" dator eta herritar guztiak gonbidatu dituzte jaietan parte-hartzera. Horrekin batera, "jaiez gozatzeko aukerarik izango ez duten guztiak" ere ekarri zituzten gogora.

**Hiru txosna**
Azken urteetan bezala, txosnagunea Bideberrin egongo da eta han hiru txosna jarriko dituzte: bi edariak banatzeko eta hirugarrena ogitarteko eta arrazioekin. Horrekin batera, kontzertuetarako agertokia ere egongo da, baita mahai eta eserlekuak ere.

Bestalde, aurten ere, edalontzi berrerabilgarrien aldeko apustua egingo du Herri Mugimenduak txosnagunean, eta, eguazteneko aurkezpenean esan zutenez, herritarrak animatu nahi dituzte txosnagunetik kanpo ere edalontzi horiek erabiltzera.

## TXOSNAGUNEKO EGITARAUA

**EKAINAK 10**

**14:30** Ikasleen bazkaria San Martin plazan. Gero, trikipoteoa.

**20:00** Txosnak irekiko dituzte.

**22:30** Kontzertua Bideberrin: Zezenaren taldea, Bizardunak eta Band Sound System.

**EKAINAK 11**

**14:30** Bertso bazkaria Bideberrin, Amets Arzallus eta Jone Uriarekin.

**22:30** Kontzertua Bideberrin: Los Galerna, Slamtilt eta Arkada Sozial.

**05:00** Kulero eta galtzontzilo leihaketa.

**EKAINAK 12**

**18:00** Baltsa jaitsiera.

**20:00** Kontzertua Bideberrin: Garate, Anari eta Sorkun.

**EKAINAK 13**

**20:00** Joxpa erromeria taldearen kontzertua Bideberrin.

**23:00** Kontzertua Bideberrin: EH Sukarra eta Dolce Tangana.



KARATE
F.G.K.
Gipuzkoako Karate Federazioak homologatutako zentro ofiziala.
**Karatea umearen heziketa prozesuan gehien lagun dezakeen kiroletako bat da, gorputza eta burua gara dezake-eta.**
***Dibertigarria, parte-hartzailea eta hezigarria da.***
GIARTZU gimnasioa / estetika zentroa
Tel.: 943 76 30 05 / 943 76 35 71 BERGARA www.giartzu.com

# Gaztetxeko zineklubak hilabeteko geldialdia izango du ekainean

## Azken hiru urteetan 100 filmetik gora eskaini dituzte domekero

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Ekaina hilabete lanpetua izaten dela kontuan hartuta eta, gainera, ekainean Bergarako jaiak ospatuko dituztela kontuan hartuta, gaztetxeko zinekluba hilabetez etetea erabaki dute. "Urte osoko dinamika apurtu eta uztailean indar berrituekin hastea erabaki dugu", azaldu du Ander Bolibar antolatzaileak.

**Zineklubak lau denboraldi**

"Dagoeneko lau denboraldi doa zine-kluba Bergarako gaztetxean, bat lehengo antolatzaileekin eta beste hiru gurekin", dio Bolibarrek. "Bergaran Novedades itxi ondoren pare bat urtez ez zen zinemaz gozatzeko aukerarik izan herrian; hori dela eta, herriko zinemazale batzuek elkartu eta gaztetxean zineklubа antolatzea erabaki zuten", gaineratu du.

**Uztailean itzuliko dira**

Ziklotan antolatuta eskaini dituzte filmak. "Azken hiru urteetan 100 filmetik gora eskaini ditugu", adierazi du Bolibarrek. "Harrera ona da, jendeak eskertzen du domeketan musu-truk zinema alternatiboa eskaintzea; hala ere, ikusle kopurua nahiko irregularra izaten da, eguraldiak eta beste ekimen kulturalek gehiago baldintzatzen dute jendearen presentzia filmaren aukeraketak baino", dio Bolibarrek.

Ekainean gaztetxearen 11. urteurrena ospatuko dute eta baliteke data horretarako emanaldiren bat antolatzea. Gainerakoan, uztailean itzuliko dira berriro ere gaztetxeko zineklub emanaldiekin. Domeketan beharrean, astean zehar egingo dute aurrerantzean saioa.



MARIJE UGALDE

# Bergararrak konkistatzaileekin

Musika Eskolako haurren abesbatzako 70 neska–mutikok Olatu Talka jaialdian parte hartu zuten joan den domekan Donostian. Nagore Sanz eta Marije Ugalde irakasleek zuzendu zuten abesbatza. Gipuzkoako hainbat abesbatza eta musika bandak jardun zuten kantuan eta musika jotzen ekitaldian. Musika Eskolako ikasleak oso gustura aritu ziren. Gainera, aukera izan zuten *El conquistador del fin del mundo* ETBko saioko partaideekin argazkia ateratzeko; eta baita Olatu Talka ekitaldiko aurkezle Aitziber Garmendiarekin ere.



*Platycnemis Latipes* argazkia izan da onena koloretan. | AGUSTIN BUSSELO

# Bergara Hiria lehiaketako argazkiak ikusgai

## Manu Barreiro eta Agustin Busselo dira irabazleak

A.E. | BERGARRA

Bergara Hiria 27. argazki lehiaketak baditu irabazleak: Manu Barreiro beasaindarraren *Vicky* argazkiak jaso du zuri-beltzeko argazkien lehenengo saria eta Lasarteko Agustin Busselok koloretakoa, *Platycnemis latipes* argazkiarekin. Guztira, 254 argazki aurkeztu dituzte lehiaketara; 126 zuri-beltzean eta 128 koloretan. Horien artean, 23 bergararrek aurkeztu dituzte euren lanak herriko lehiaketara –10 zuri-beltzean eta 13 koloretan–.

**Erakusketa zabalik 19ra arte**

Sari banaketa gaur izango da, egubakoitza, 20:00etan, Aroztegi aretoan. Ondoren erakusketa zabalduko dute Aroztegin bertan. 40 argazki jarriko dituzte ikusgai, 20 lan kategoria bakoitzeko. Hilaren 19ra arte egongo da zabalik erakusketa. Argazkilaritzaz gozatzeko aukera paregabea.



# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
- Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30
*http://merkatua.net/argiplastik*

**ION LEIHOAK**
Arrasate
Debagoiena Industrialdea 11.Pab
Tel.: 943 79 11 35
F: 943 773 120
*http://www.ventaion.com*

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



Bildu koalizioko kideetako batzuk, martitzeneko agerraldian, kultura etxean. | MIREIA BIKUÑA

# Bildu: "Botoa eman diguten herritarrei ez diegu hutsik egingo"

Koalizioak agerraldia egin zuen hauteskundeen emaitzen balorazioa egiteko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bilduk agerraldia egin zuen martitzenean udal hauteskundeen balorazioa egiteko. Maiatzaren 22a egun berezia izan zela esan zuten: "Bilduko hautagaitza osatzen dugunondako egun berezia izan zen. Batez ere, aurretik egindako lanaren fruituak emaitzetan islatu zirelako. Harro gaude Oñatik emandako konfiantzarekin", esan zuen Mikel Biainek.

**Pazientzia**

Dagoeneko lanean hasi direla esan zuten, "gogotsu". Dena den, pazientzia eskatu zieten oñatiarrei: "Gurekin zorrotzak izan daitezela eskatzen diegu, baina, era berean, pazientzia izateko. Talde gaztea gara eta udal administrazioan eskarmentu bakoa", esan zuten. Dena den, garbi utzi zuten zein den euren helburua. "Botoa eman digutenei ez diegu hutsik egingo. Eurek emandako konfiantza eskertzen dugu", esan zuen Biainek.

**Parte-hartzea**

Bilduk 3.308 boto eta 11 zinegotzi lortu zituen. Eurek ere ez zituzten espero halako emaitzak. "Ardura garrantzitsu bat hartzen dugu gure gain. Herriak ozen esan du aldaketa politiko eta soziala gura duela, eta orain guri dagokigu aldaketa horrekin hastea, Udaletik", esan zuten.

Aldaketarako lehen pausoetako bat eredu parte-hartzailea bultzatzea izango da."Gure lehentasuna parte-hartzea izanik, hura gauzatzeko bitartekoak jarriko ditugu. Herritarrendako, eragileendako eta Udaletik kanpo geratu diren gainerako alderdiendako ateak zabalik egongo dira", azpimarratu zuen Biainek.

**Batzordeburuak**

Bestalde, esan zuten egun Udalean dagoen batzordeen eraketan aldaketak egingo dituztela, eta berriak sortu: adibidez, Berdintasun batzordea. Gaineratu zuten dagoeneko hasi direla batzordeburu izango direnak zehazten, eta alkatea aukeratzeko osoko bilkura ekainaren 11n egingo dela, 12:00etan.

# Olakuako eta Murgiako jaiak, gaur hasita

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte bi auzoetan: musika, jolasak, bazkaria, kirol ikuskizunak...

M.B. | OÑATI

Murgiako eta Olakuako jaiek hartuko diete lekukoa Errekaldekoei aste bukaeran. Gaurtik domekara arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte bi auzoetan.

Olakuan, esaterako, txorimaloak eta rock kontzertua izango dira nagusi gaur. Musika saioa 22:30ean hasiko dute Gas, Bitz, Nos la Suda eta El Trio Calabera taldeek. Bihar, Oñatzeko gazteen emanaldia, bertso saioa, auzobazkaria eta *Kantuan kalean* ikuskizuna izango dira protagonista. Azken horretan (17:30ean), Ganbarako hainbat abesbatzak eta herriko ikastetxeetako neska-mutikoek abestuko dute. Biharko erromeria Luhartz taldeak egingo du.

Domekako ekitaldien artean aipagarriena Benito Rosek egingo duen bike-trial eta freestyle ikuskizuna izango da (13:00etan). 15:30ean mus txapelketa egingo dute Olakua tabernan eta 16:00etan, jaiak bukatzeko, umeendako jolasak.

**Auzo-afaria Murgian**

Bestetik, Asentzio jaiak ospatuko dituzte Murgian. Gaur, 21:00etan, afaltzeko elkartuko dira auzoko elkartean. Bertsolarien eta trikitilarien laguntza izango dute.

Bihar, zapatua, 16:00etan mus txapelketa, haurrendako jolasak eta txokolate-jana egingo dituzte Asentzio elkartearen inguruan. Domekan, jaiak bukatzeko, 11:00etan meza nagusia egingo dute ermitan. Horren ondoren, kirol emanaldia egingo dute, eta luncha banatu.

# Grabatu duten maketa erakutsi zuten jendaurrean

Jose de Azpiazu musika eskolako triki–pandero taldekoek erakustaldia egin zuten martitzenean. Hain zuzen ere, maketa baten grabatutako 35 kantuak eskaini zituzten. Ordubeteko ekitaldia egin zuten Ona aurreko plazatxoan.



JULEN IRIONDO

## Elkar Heziko ikasleek festa eguna ospatuko dute gaur

Elkar Heziko ikasleek jaialdi erraldoia egingo dute gaur. Adinka prestatu dituzten ikuskizunak egingo dituzte 10:00etan eta 18:30ean, eskolako aretoan. 14:30etik 17:30era puzgarriak eta jolasak egongo dira.

Bestalde, DBHko eta Batxilergoko ikasleek irteera egingo dute Iturrigorrira. Han, askotariko ekitaldiak egingo dituzte. Festa bukatzeko, auzoko afari-merienda egingo dute Santa Marina plazan: musika, bertsoak, sagardo kupela...

## Herri mailako arrantza txapelketa bihar arratsaldean

Herri mailako arrantza txapelketa egingo dute bihar, zapatuan, 16:00etan, Arantzazu errekan. Pago Uso elkarteak eta Alzu dendak antolatutako txapelketa Etxe Aundi jatetxe ondoan hasiko dute, eta amuarrain gehien harrapatzen duen parte-hartzaileak irabaziko du. 19:00ak arte izango dute arrantzale guztiek.

Horren ondoren, sari banaketa ekitaldia egingo dute. Guztiek jasoko dute sariren bat. Bukaeran, merienda egingo dute.

## OHARRAK

**ERAKUSKETA**

Gaur da Xabier Rezabalen *Photorro* erakusketa ikusteko azken eguna: kultura etxean 18:00etatik 20:00etara. Formatu handiko 100 bat erretratu ipini ditu.

**ERREKALDEKO ZOZKETA**

Errekaldeko jaietan sarituta-ko zenbakian dira: lehenengo saria: 4.526; bigarren saria: 4.651; eta hirugarren sariak: 2.206 eta 2.625. Txartelen jabeek jai batzordeko antolatzaileekin jarri beharko dute hartu-emanetan.

**DEIALDIA**

Ekainaren 10ean egingo dute udako oporren aurreko azken odol-ateratzea. Txantxiku ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

**BEKA**

Udako Unibertsitatearen udako ikastaroetan parte hartu gura duten ikasle eta langabeek Udalaren dirulaguntza jaso ahalko dute; gehienez, matrikularen %50. Eskaerak, udal bulegoetan.

**KZGUNEA**

Askotariko ikastaroak egingo dituzte ekainean KZgunean. Informazio gehiagorako edo izena emateko: 943 08 16 34 edo *tutor.onati@kzgunea.net*.

# Desfibriladoreak jarri dituzte bi eraikinetan

## Udaletxean eta Arkupen daude eta bertako hainbat langilek ikastaroa jaso dute

**M.A.** | ARETXABALETA

Desfibriladoreak, bihotzekoak emanez gero suspertzeko makinak, jarri dituzte Udalaren bi eraikinetan: udaletxean eta Arkupen. Bihotzekoak edozein unetan eta gero eta sarriago gertatzen direla jakinik eta halakoetan azkar erantzutea erabakigarria izan daitekeelako erabaki dute jartzea.

### Makinak esan zelan jokatu

Desfibriladore horiek zelan erabili jakiteko ikastaroa egin dute hainbat udal langilek. Hala ere, samur erabil daitezkeenak direla iragarri dute, diagnostiko automatikoa eta laguntza automatikoa ematen dutenak. Hala, makinak berak esaten du ondoeza izan duenak deskargarik behar duen eta jarraitu beharreko pausoak. Gainera, makina bere lekutik kentzerakoan udaletxean ezarritako koordinazio-gunera jakinarazpena bidaltzen du, handik larrialdi zerbitzuetara bideratzeko.

"Desfibriladore eramangarriak dira eta udaletxean dagoena udaltzainen ardurapean egongo da, edonora atera behar izanez gero ere. Arkupekoa, ostera, herritarren eskura jarri dugu, behar izanez gero hartzeko", jakinarazi du Inaxio Garrok. Eta gaineratu du kiroldegi berria zabaltzerakoan han ere jartzea komeniko litzatekeela.

## OHARRAK

**'ANAKI' ANTZEZLANA**
Logela Multimedia taldeak *Anaki* lana eskainiko die umeei domekan Arkupen (17:00).

**ODOL ATERATZEA**
Odol ateratzeak egingo dituzte bi astelehenetan, ekainak 6 eta 13, osasun etxean (16:30-20:00).

**'ARETXABALETA ATZO ETA GAUR' IKUS-ENTZUNEZKOA**
Argazki taldeak gertatutako ikus-entzunezkoa eskainiko dute bi astelehenetan, hilak 6 eta 13, Arkupen (19:00).

**BERBALDIA BASOTXON**
*Hirugarren adinean bidaiatzea* berbaldia egingo du ekainaren 8an Mertxe Uribeetxebarria adituak Basotxon (17:00).

**GORBEIARA IRTEERA**
Murrukixo mendizale elkarteak irteera antolatu du ekainaren 12rako Araba aldera (autobusa 07:30ean, Azbe pareko geltokian): Barazar, Gorbeia eta Murgia. Izena emateko azken eguna martitzena da, ekainak 7, Murrukixoren egoitzan (19:00-20:00). Autobusaren prezioa: 15 euro.

# Emakumeak protagonista diren argazki bila dabiltza

## Kultura eta Berdintasun sailek egin dute deialdia, Martxoaren 8ari begira

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA



San Migel jaietan emakume koadrila taloak egiten. | MIRARI ALTUBE

Herriko emakumeak protagonista dituzten argazkiak jasotzen hasi dira Kultura eta Berdintasun sailak. Datorren urteko Emakumeen Nazioarteko Egunari begira antolatu gura duten erakusketa eta ikus-entzunezkoa egiteko gura dituzte. Abuztua bitartean jasoko dituzte argazkiok, Arkupe kultura etxeko bigarren solairuan, eta herritarrei dei egin diete hara eroan ditzaten.

### Arkupeko bigarren solairura

Aretxabaletako emakumeen lanak, ardurak, asmakizunak, kultura ekarpenak, zereginak, bizipenak, interesak, garaipenak, ilusioak eta beste hainbat kontu jasotzen dituzten argazkien bilduma osatzea da Udalaren helburua, eta herritarren laguntza eskatu dute horretarako. "Emakumeak urteetan zehar ikusezinak izan direnez, erabateko protagonista diren argazki erakusketa antolatzea da asmoa", jakinarazi dute Kultura eta Berdintasun teknikariek.

Antzinako argazkiak eta hurbilagokoak, guztiak jasoko dituzte. Arkupe kultura etxeko bigarren solairura eroan behar dituzte herritarrek: goizean, argazki artxiboak duen bulegora; eta arratsaldean, Kultura Sailaren bulegora. Argazkiak eskaneatu egingo dituzte, haien gaineko argibideak jaso, eta ondoren itzuli. Argazkiok modu digitalean ere itzuliko dizkiete jabeei.

Zenbat argazki jaso diren jakindakoan, irail inguruan, erabakiko dute antolatzaileek zelan gertatu Martxoaren 8ari begira egin gura duten lana, eta antolatzen hasiko dira.

> **ESANAK**
> "Emakumeak urteetan zehar ikusezinak izan dira"
> INMA MIGUEL | KULTURA TEKNIKARIA

### Orain dagoen artxiboa osatu

Udalaren argazki artxiboan gordeko dituzte, gero, jasotako argazki guztiak. Bertako arduradun Amaia Murgiondok jakinarazi du orain ere badaudela emakumeen gainekoak: Azbe lantegiko langileak; Justinok ateratakoak baserri inguruetan; jaunartzeak; agurrak... Dena dela, herritarrek eroandakoekin osatu egingo dute dagoen artxiboa.

Emakumeen argazkiekin ez da halakorik egin gurean, baina Aratusteetakoekin bai. Argazkiak jaso eta erakusketa eta ikus-entzunezkoa egin gero. Herritarrek, gainera, gustura ikusi zituzten egindako lanok.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Dirulaguntzak enpresa berri eta kontratazioendako

**M.A.** | ARETXABALETA

Iaz abian jarritako enpresa eta kontratazio berrien laguntzei jarraipena emango die Udalak, eta oinarriak zehaztuta ditu. Bi laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea azaroa bukatu artean izango da zabalik.

Enpresa berriei dagokienez, hona hemen bete beharreko baldintzak: Aretxabaletan izatea lantokia eta gehienez urtebeteko lan jarduna; eta bideragarritasun plana eginda izatea.

Iragarritako dirulaguntzak izango dira inbertsioak egiteko, lokalaren egokitzapen eta ekipamenduetarako, eratze gastuetarako... Gehienez, 7.000 euro emango dituzte. Udalak 36.800 euro bideratu ditu laguntza horietara.

### Kontratu berriak bultzatzea

Bestalde, enpresek –50 langileitik beherako lantegiak, autonomoak, komertzioak...– kontratazio berriak eginez gero, dirulaguntza eskatzeko aukera dute. Kontratua mugagabea bada, 2.000 euro jasoko ditu enpresak –lan jardun osoa– eta urtebetekoa bada, 1.000 euro. Laguntza horietara 50.200 euro bideratu dituzte.

Gertu
Aurrez prestatutako jakiak

ARETXABALETA
Tel.: 943 77 06 12
gertujanariak@euskalnet.net

# Kartel eta esaldi lehiaketak deitu dituzte Andramaixa jaietarako

M.A. | ARETXABALETA

Andramaixak iragarriko dituen kartela hautatzeko lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Edonork parte hartu ahal izango du eta teknika librea izango da. Bi baldintza bakarrik bete beharko dituzte egindako lanek: kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izatea edo DIN-A3 formatukoa; eta honako testua izatea: *Andramaixak 2011; abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a; Aretxabaleta*.

Lanak udaletxean edo Arkupe kultura etxean utzi beharko dira uztailaren 5a baino lehen. Epaimahaiak –Kultura batzordeko kideek eta hainbat herritarrek osatua– uztailaren 8an emango du irabazlearen berri, eta hark 300 euro jasoko ditu. Antolatzaileek egoki iritziz gero, erakusketa antolatuko dute kartel guztiekin.

**Esaldiak ekainaren 30erako**

Bestalde, Prebentzio Zerbitzuak Kultura Sailarekin batera Andramaixetarako esaldi lehiaketa deitu du. Jaiak ondo pasatzera gonbidatuz botatako leloak gura dituzte, eta jakinarazi dute ez dituztela onartuko neurriz kanpoko kontsumoa eta jarrera sexistak bultzatzen dituztenak.

12 urtetik gorako aretxabaletarrek parte har dezakete (taldean ere bai), eta gura beste esaldi aurkeztu. Horretarako txartelak udaletxean eta Arkupe kultura etxean dituzte, eta bertara eroan behar dira bete ondoren. Aurkezteko azken eguna ekainaren 30a da.

Andramaixetako egitarauan erabiliko duten esaldiaren jabeak 120 euro jasoko ditu; eta pegatinak egiteko erabiliko direnak asmatutakoek, 60 euro.

## Gorputz espresiotik abiatuta argazkilaritza eta bideogintza lantzeko ikastaroa antolatu du Jaikik

Jaiki elkarteak bost orduko sormen ikastaroa antolatu du ekainaren 18rako (15:30-20:30). Gorputzaren jarreratik eta jolasetatik hasi eta pinturatik pasatuta argazkilaritza eta bideogintza lantzeko asmoa dute Laia Bedos –Arte Ederreak– eta Carla Fernandez –Arte Dramatikoa– adituen laguntzarekin. Izena emateko epea ekainaren 14an bukatuko da –*jaikielkartea@yahoo.es* edo 943 53 43 96–; prezioa: langileek 20 euro eta langabe eta ikasleek 15 euro.



Apirilean surfean jardutera joandako ikasle eta guraso taldea Kantabrian. | M.A.

# Kurtzebarri institutuko guraso elkarteak saria eskuratu du

Hezkuntza Saileko ordezkarien eskutik jasoko dute eskola publikoaren jaian

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Guraso elkarteen hezkuntza-jarduera onen lehiaketa egin du lehenengoz Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak (EHIGE) eta Kurtzebarri institutuko guraso elkarteak eskuratu du lehenengo saria, 1.500 euro. 27 elkarte aurkeztu dira lehiaketara, eta Kurtzebarriren atzetik geratu dira: Bilboko Juan Delmas guraso elkartea; eta Olaberriko elkartea.

Domekan, Bilbon ospatuko duten Euskal Eskola Publikoaren 20. Jaialdian jasoko dute saria, Arriaga antzokian egingo duten ekitaldian (11:00).

**Kantabriara surfean jardutera**

*Bidai lehiaketa eta ikasle guztientzako ikasbidaia* izeneko proiektuagatik eman diete saria Kurtzebarriko gurasoei. "Orain hiru bat urte erabaki genuen ikasbidaiarako ideien lehiaketa jartzea abian institutuan. Ikasleek eurek proposatzen dituzte bidaiak eta aste bukaerarako egitaraua gertatu, aurrekontua eta guzti", argitu du Koldo Zubillaga guraso elkarteko kideak. Hala, azken bi urteotan egindako bidaiak ikasleen proposamenak izan dira: iaz, Sella errekaren jaitsiera probatzera (Asturias) eta aurten, Kantabriara surfean jardutera.

Aurten zazpi proposamen jaso dituzte ikasleengandik eta irabazleek bidaia debalde izan dute. "Beste saritxo batzuk ere ematen dizkiegu, eta gainerakoei zergatik ez ditugun hautatu azaltzen diegu, hurrengorako kontuan har ditzaten", dio Zubillagak. Izan ere, hainbat irizpide dituzte ezarrita, tartean bideragarritasuna eta originaltasuna, eta horren arabera hautatzen dute proposamen egokiena.

**12 eta 16 urte arteko ikasleak**

Ikasleek proposatu eta gurasoek antolatutako bidaia horretan 12 eta 16 urte arteko ikasleek parte har dezakete, eta gurasoak joaten dira arduradun: "Ez da adin samurra, baina orain arte egindakoetan gazte benetan jatorrak elkartu dira eta giro polita izan dugu".

Apirilean egin zuten Kantabriarako irteera, San Vicente de la Barquera herrira, surfean jardutera. 25 bat lagun joan ziren eta denek ezin izan bazuten ere ohol gainean zutik jarri, ederto pasatu zutela aitortu dute.



# Iluntzera arte iraungo du aurten Arizmendiren urteroko Ferixiek

## Oilasko-pintxo dastatzea eta txapel jaurtiketa txapelketa egingo dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aspertzeko astirik ez da egongo Arizmendi Ikastolak gertatutako Ferixien. Aurten, 15 urte betetzen ditu jaialdiak, eta hamarkada bete zuenean moduan, egun osoan izango dira ospakizunak.

Ohikoa den moduan, 09:00etan etxafuego jaurtiketa egingo dute eta ordu erdi geroago txistularien kalejira hasiko da. Azoka, berriz, 10:00etan hasiko da. Jarriko diren 92 postuetan denetarik erosi ahal izango dute hara joaten direnek. Arizmendi Ikastolako koordinatzaile Lierni Altunak jakinarazi digunez, baserriko produktuak eskaintzen 32 postu izango dira, eta 34 artisautzarekin. Gobernuz kanpoko erakunde bi ere egongo dira: Gizaki eta Txiapas, hain justu.



Aurten ere kale animazioa izango da goiz partean. | GOIENA

### Txorimalo lehiaketa

Urtero legez, txorimalo lehiaketa ere egingo dute, 10:15etik 11:15era bitartean. Altunak azaldu du 4 urtetik gorako neska-mutikoek parte har dezaketela horretan, taldeka edo bakarka. Lehiaketa egiten duten bitartean, haur eta gazteendako tailerrak eta puzgarriak izango dira Santa Marina plazan.

Gazta dastatzea eta txapelketa ere ez da faltako. Ikastolan egingo dute hori, 11:30etik 13:00etara. Bada, batzuek inguruko gazta goxoa probatzen duten neurrian, beste batzuk Zornotzako zanpantzarrekin ibiliko dira herriko kaleetan. Horretaz gainera, trikitilariek ere kaleak hartuko dituzte eguerdi partean.

Eskoriatzako dantza taldearen emanaldia ere izango da; 13:00etan hasiko da. Hori amaitzean, goiz osoan azokan parte hartu duten postuen lehiaketa egingo dute, eta jarraian, sariak banatuko dituzte. Horretaz gainera, txorimalo lehiaketako irabazleak ere ezagutaraziko dira ordu berean. Horren ondotik, herri bazkaria egingo dute; 250 lagun inguruk eman dute azken egunotan horretarako izena. Bi menu izango dituzte gertu, helduei eta umeei zuzenduta.

### Txapel jaurtiketa txapelketa

Arratsalde partean, bi ekimen egingo dituzte, 19:30ean. Batetik, Eusko Labela duten oilasko erre pintxoak banatuko dituzte Herriko Plazan, eta bestetik, I. txapel jaurtiketa txapelketa izango da toki berean. Egitarau erakargarria gertatu dute. Horren harira, Altunak eskerrak eman gura izan dizkie jaialdia antolatzen lagundu duten guztiei.

### Autobusetan aldaketak

Bestalde, Ferixiek aldaketak ekarriko ditu autobusetan. Gaurko 14:00etatik biharko 16:00etara bitartean, Gaztañadui kaleko 15. zenbakitik Aranburuzabala kaleko 12ra bidea itxita egongo da. Zerbitzu guztiak Alza lantegiaren ondoan hartuko dira; eta hiri barrukoek, Aingeru Guardako geralekuez gainera, Intxaurtxuetan ere izango dute geralekua.

# Zaharren egoitzarako 82.000 euro batu dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Zaharren egoitza kudeatzen duen patronatuak jakinarazi du 82.000 euro batu dituztela egoitzaren "egoera larriari aurre egiteko". Otsailean martxan jarri zuen *Salba dezagun Eskoriatzako Zaharren Egoitza* izeneko kanpaina, eta orain, eskerrak eman nahi izan dizkie herritarrei emandako laguntzagatik.

Patronatuak esan duenez, kopuru horren zatirik handiena, 60.000 euro hain zuzen, herriari askotan lagundu dion partikular batek eman du: "Eta hari bereziki eskertuko diogu egin duen ekarpena". Baina gaineratu du ekarpen guztiek, "txikiek nahiz handiek, piloa sortzen" lagundu dietela. Euskadiko Kutxako kontu honetan egin daitezke ekarpenak: 3035 0044 82 0440028200.

# Turtle Giant brasildarrak daude etzi kontzejupean

M.B. | ESKORIATZA

Turtle Giant brasildarren kontzertu akustikoa izango da etzi, domeka, kontzejupean. 19:30ean hasiko da musika emanaldia, Aitzorrotz kultura elkarteak antolatu eta Eskoriatzako Udalak lagunduta.

Turtle Giant taldea Sao Paulon (Brasil) sortu zen orain dela zortzi urte. Musikalki oso koktelera bitxiko musika nahasten dute. Taldearen esanetan, Beatles, Kinks, Beach Boys, Fugazi, MGMT , Outcast, Caetano Veloso, Astrud Gilberto eta Otis Redding izan dituzte eredu eta erreferentzia musika egiterakoan. Euskal Herrian egunotan egiten dabiltzan biran, *Feel to Believe* izeneko diskoa aurkeztuko dute zuzenean.

# 'Yurre': "Oso garrantzitsua da Txiapasko egoeraz kontziente izatea"

## XI. Aste Zapatista egingo dute astelehenetik domekara bitartean

M.B. | ESKORIATZA

Urtero moduan, Aste Zapatista egingo dute herrian. Astelehenean, hilak 6, hasiko dira 11. edizioko ekimenak; 16:00etan, plaza apaintzen hasiko dira. Horretaz gainera, Txiapasko egoerari buruzko argazki erakusketa jarriko dute kultura etxean; zapatura arte egongo da zabalik.

Martitzenetik egubakoitzera bitartean, ostera, hitzaldiak izango dira nagusi; 19:30ean izango dira, kultura etxean. Martitzenean, zapatismoaz jardungo dute Iruñeko *Pixpi*-k egingo duen *Zapatismo: utopia o realidad* izeneko berbaldian. Gaur egungo egoeraz gain, irtenbideak ere bilatuko dituzte batzen direnen artean.Eguaztenean, *La mejor medicina, una buena alimentación* hitzaldiaren txanda izango da; horren ondotik, luncha egingo dute horretan parte hartzen dutenen artean. Eguenean, *MST, Brasilgo nekazal erreformaren aldeko borroka*-z jardungo du Iñaki Arnaizek. Egun berean, 22:15ean, *El infierno* filma emango dute.

> **ESANAK**
>
> **"Aste horren bidez jendeari gogorarazi nahi diogu posible dela beste mundu bat eraikitzea"**
>
> 'YURRE' | ANTOLATZAILEA

### Antzerkia

Bestalde, egubakoitzean, Josu Velaskok *Titirimundi pedaletan: Mekong ibaian zehar bizikletan* izeneko berbaldia egingo du. Gauean, ostera, antzerkia izango da: Jurgi Etxeberriaren *Eunon: bi kate, biak ebaki beharrekoak* antzezlana izango da 22:30ean unibertsitatean. Asteburuan ere Aste Zapatistarekin jarraituko dute; zapatuan, jai zapatista egingo dute, eta domekan, Rosa Sanchez abeslaria eta Egiptoko dantzen erakustaldia izango dira.

Urtero moduan, *Yurre* Romaratezabala ibili da Aste Zapatista antolatzen. Honakoa esan digu: "Kontzientziazioa oso garrantzitsua da. Aste Zapatistaren bidez jendeari gogorarazi nahi diogu posible dela beste mundu bat eraikitzea".

REHABILITACIONES IKERRA S.L.
ERAIKUNTZAK - PROIEKTUAK
Aranburuzabala 27 - ESKORIATZA
Tel.: 943 53 38 31. Mugikorra.: 630 087 071
E-posta.: re-ikerra@hotmail.com




### Sanpedroetarako esaldi lehiaketan parte har daiteke etzira arte

Domeka, hilak 5, da sanpedroetako lehiaketarako esaldiak aurkezteko azken eguna. 13 urtetik gorako eskoriatzarrek har dezakete parte, hiru eta bost pertsona bitarteko taldeak sortuta. Udaletxeko eta kultura etxeko eskailerapeetako gutunontzietan sartu behar dira, kartazal baten. Ekainaren 8an *www.eskoriatza.net* webgunean iragarriko da irabazlearen izena.









Herriko zenbait mugarri. | JOSE MARI ITURBE

# Mugarri berriak jarriko dituzte aurtengo udan

## Zortzi puntuko mugarriak desagertuta daude

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

2007an, Landarraitz eta Arrola mendiak gurutzatzen dituen gasbideko bikoizte lanetan udalerriko hainbat mugarri kendu zituzten. Hori dela-eta, udala mugarrien inbentarioa eta lan horien jarraipena egiten hasi zen eta gasbideko lanak bukatzean mendi-gain horietan falta ziren mugarriak jarri zituzten.

Horren ostean hasi ziren gainerako mugarriak bilatzen, 2009an zenbait ibilbide antolatu zituzten horretarako, Arrolarekin batera. Jose Mari Iturbe nekazaritza zinegotziak azaldu digunez, "mugarriak bilatzeko laguntza izan dugu Antzuola, Bergara, Urretxu eta Legazpitik. Joseba Alonso goierritarrak ere asko lagundu digu. Eskerrak denei".

**Txosten berria**

Foru Aldundiak Gipuzkoako herrien arteko mugarrien gaineko azterketa topografikoa egin zuen 1939 eta 1942 urteen artean. Orduko aktak kontuan hartuta eta udalak azken urteotan batutako informazioarekin txosten berri bat egin dute orain. Mugarri bakoitzaren kokapenaren koordenadak, ezaugarriak eta argazkiak biltzen ditu txostenak; kopia bat dago udaletxean.

Txosten horren arabera, 63 mugarri-puntu daude Antzuolako udalerrian, baina horietako zortzi puntutan falta dira mugarriak. Udalak mugarri horiek jartzeko diru-partida aurreikusi du 2011ko aurrekontuetan. Hala, 1.879 euro bideratuko dituzte falta diren mugarriak jartzeko: Antzuola eta Urretxu artean hiru; eta Antzuola eta Bergara artean, berriz, bost. Jose Mari Iturbek esan digunez mugarrien kokapena zehaztuta eta adostuta dute muga egiten duten udalekin, "falta zaiguna mugarriak prestatu eta jartzea da; aurtengo udan egiteko asmoa dugu".

**Mugarriak, erreferentzia**

Herriaren mugak orokorrean elementu orografikoek zehazten dituzten arren (errekak, sakonerak, egiak...), lagungarri edo erreferentzia moduan jartzen dira mugarriak.

Antzuolako udalerria osatzen duten lurrek 22,3 km-ko perimetroa dute eta 63 mugarri daude guztira ibilbide horretan: 29 Bergararekin mugan, 13 Oñatirekin, 13, Legazpirekin, 11 Urretxurekin, 2 Zumarragarekin eta 2 Azkoitiarekin.

**Zaharrenak, XVIII. mendekoak**

Iturberen arabera, udalerrian jarritako lehen mugarriak 1768 ingurukoak izan daitezke, baina horietako gutxi gelditzen dira, "Gipuzkoan, 1889an jarri ziren mugarri gehienak". Mugarrien lehen aktak 1770ekoak dira. Gaur egun ofizialak direnak dira 1939 eta 1942 urteen artean Foru Aldundiak egindakoak. Herri ezberdinetako arduradunak testigu hartuta bete ziren akta horiek; *Gipuzkoa.net* webgunean kontsulta daitezke.

Iturbek esan digunez lehen ohitura zen pare bat urtez behin udalerrietako arduradunen artean mugarrien ibilbidea egitea, egoera zein zen jakiteko.

### Mendi irteera eta umeendako jolasak, domekan

Arrolak eta Pausoka guraso elkarteak mendi irteera eta umeendako jolasak antolatu dituzte domekarako, ekainak 5. Goizeko 9:00etan egin dute hitzordua Torresoroa aurrean Oñati aldera mendi irteera egiteko. Orkazategira joango dira goizean eta arratsaldean umeendako jolasak egongo dira Araotzen, Oñatiko auzoan.

### Gasik gabe geratu zen herria eguaztenean, hodiak apurtzeagatik

Joan den eguaztenean gas-hodia puskatu zuten Kalegoi 22an egiten ari diren lanen atzealdean. Ihesaren berri izan bezain laster itxi zituzten herriko gas-giltza guztiak. 17:00etan izan zen matxura eta 17:45erako konpondu zuten. Hala ere, guztia ondo zegoela egiaztatu arte zenbait ordu pasa ziren eta iluntzean itzuli zen gasa etxe denetara.

### Antzuolako dantzak erakutsiko dituzte Hondarribian

Bihar, zapatua, Euskal Herriko txoko ezberdinetako dantzariek emanaldia egingo dute Hondarribia Dantzan ekimenaren barruan. Bakoitzaren herriko dantzak eskainiko dituzte eta han egongo dira Oinarinekoak. 18:00etan kalez kale ibiliko dira eta 19:00etan Santa Maria Madalena plazan bilduko dira talde guztiak.



J. GOIKOETXEA

## Iturri berria Beheko auzoan

Iturri berria jarri dute Beheko auzoko kantxa beltzeko harmailen atzean, loratęgian. Kirola egiten dute herritar askok bertan eta iturria jartzeko eskaera asko izan dituztela adierazi digu Valen Moñux udaleko aparejadoreak. Iturria kantxarako sarrera ondoan jartzea zegoen lehen aurreikusita, baina lorategian jartzea erabaki dute azkenean, ur–isuriek sor ditzaketen arazoak ekiditeko.

## Ondarreko eta Kalebarrengo jaiak batera ospatuko dituzte aurten

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Ekainaren azken aste bukaeran izango dira Corpus jaiak eta Kalebarrenen egiten diren San Pedroekin bat egiten dute aurten. Hala, bi auzoetako antolatzaileek ekitaldiak elkarrekin antolatzea erabaki dute.

Zapatuan, ekainak 25, eguerditik iluntzera arte Ondarren izango dira ekintzak (gimkana, igerilekuak, krosa...); iluntzegauean, berriz, Kalebarrenen (arbola-jasotzea, auzo-afaria, sagar dantza...). Domekan, hilak 26, Ondarren egingo dira goizean ekintzak (prozesioa, dantzariak...); arratsaldean, berriz, Kalebarrenen (jokoak, kale-antzerkia...).

### OHARRAK

**TRIKITIXA KONTZERTUA**

Edurne Iturberen ikasleen kontzertua eguaztenean, 19:00etan, Torresoroan.

**HITZALDIAK**

Eguenean bi hitzaldi izango dira: "Erretiro aktibo eta solidarioa", 17:00etan erretiratuen elkartean; eta "Erlazionatzen, komunikatzen gara seme-alabekin?", 18:00etan eskolan.

ANTZUOLA
Apainketak eta solamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA


Itxaso Aspiazu, Sastiña kanpoan, eguazten arratsaldean. | ITXASO ASPIAZU

**Itxaso Aspiazu** | Kultura teknikaria

## "Sastiña aprobetxatu gura dugu herriari askotariko eskaintza proposatuta"

Hiru kontzertu ekainean, besteak beste: gaur, Jam Pak in Purple talde gasteiztarra (20:00)

**J.B.** | ARAMAIO

Itxaso Aspiazu (Legutio, 1981) 2004a ezkero da Zuiako Koadrilako kultura teknikaria; Aramaiora eguazten eta egubakoitzetan etortzen da.

**Nondik dator ekaineko ekimena?**
Iazko harrera ezin hobea ikusita, aurten ere kontzertuak antolatzea erabaki dugu. Iaz jarri zen martxan, ekain eta iraileko egubakoitzetan zuzeneko musika eskaintzeko asmoz. Aurten hiru saio antolatu ditugu ekainerako –20:00etan–, eta bestelako ekintzak ere izango dira: erakusketak eta ipuin kontalariak, besteak beste. Izan ere, Sastiñak hainbat aukera eskaintzen ditu, eta leku pribilegiatuan dago. Horren harira, gogoratu gura dut herriko kirol eta kultura taldeek eraikina erabiltzeko aukera dutela, betiere udaletxean behar den moduko eskaera eginda: erakusketak, bideo-proiekzioak, antzerkiak, hitzaldiak eta bestelakoak antola daitezke.

**Zein da helburu nagusia?**
Herritarrei kultura ekintza ezberdinekin gozatzeko aukera eman gura diegu, askotariko eskaintza proposatuz eta adierazpen ezberdinen bidez. Eskaintza irekia da, publiko eta interes guztiei zuzendua. Kalitatezko musika emanaldiak bilatzen saiatu gara. Bigarren urtea izan arren, ekimena finkatzea gura dugu, hots, urtero egitea.




# Leintz Gatzagako argia Aramaiok kudeatuko du

Leintzargiren pertsonal falta dela-eta, Aramaioko Argindar Banatzaileak kudeatuko du hango argindarra; bi alkateek hitzarmena sinatu zuten atzo

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

2007ko agintaldiaren hasieratik Aramaioko Udalak herriko argindarra enpresa batek kudeatzea erabaki zuen, Aramaioko Argindar Banatzailea enpresaren jarduna indartuta.

Izan ere, ordura arte udal langileek kudeatzen zuten argindarra, eta oraindik jarduneko alkate den Asier Agirreren arabera, ez zen behar den moduan egiten: "Enpresa moduan funtzionatzen hasi ginenean konturatu ginen hainbat kontu eguneratuta eraman behar zirela eta duela bi urte egindako balorazio baten ostean dena ondo eramatea posible zela ondorioztatu genuen". Hala, dena ondo joan dadin 700 bazkide daudela gogoratu du Agirrek eta horrela errentagarria dela egun enpresa kudeatzen duten langileei ordaintzeko.

Leintz Gatzagan, berriz, Aramaio duela lau urte zegoen egoeran daude egun. Honela azaldu du Eusebio Villar alkateak: "Gure udaletxeak ez du azpiegitura nahikorik herriko argindarra kudeatzen jarraitzeko eta Aramaion lan hori hartzeko gertu daudela ikusi ostean sinatu dugu hitzarmena". Azpiegiturarik ez dutela dioenean langilerik ez dutela esan gura du Villarrek: "Halakoez arduratzen diren bi langile ditugu, eta udaletxeko beste kontu batzuekin larri dabiltza. Beraz, argindarraren gaia kudeatzera ez dira heltzen".

**ESANAK**

**"Ez dugu langile nahikorik guk kudeatzeko"**
EUSEBIO VILLAR
LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA

**"Hurrengoek aldatu gura badute, ez gara oztopo izango"**
ASIER AGIRRE
ARAMAIOKO ALKATEA

**Bi urterako eta aldakorra**

Atzo sinatu zuten bi alkateek hitzarmena. Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da eta bi aldeak adostu dute edozein momentutan kontratua bera eten edo kontratuan jasotzen diren puntu ezberdinak aldatu ahalko direla. Honela azaldu du Agirrek: "Udalgintzan ari gara, enpresa publiko baten kudeaketan. Enpresa ikuspegiaz ari gara baina ezin dugu ahaztu herriari begira ari garela. Hala, hurrengo korporazioak kontratua behar dela uste badu, gu ez gara oztopo izango".

Helburua da halako hitzarmen batek agintaldi osoa ez baldintzatzea; bi urteko proba bat da: bi aldeak ados badaude luzatu ahalko da eta Leintzargi enpresak ikusten badu euren kabuz kudeatzeko gai direla, lehengo egoerara bueltatuko dira.


Eusebio Villar —Leintz Gatzagako alkatea— eta Asier Agirre, atzo, argindarraren gaineko hitzarmena sinatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

## Santi Kurtz eguna domekan: jana, edana eta giro paregabea mendian

**J.B.** | ARAMAIO

Aspaldiko ohiturari jarraituz, Santi Kurtz eguna ospatuko dute domekan. Ekaineko lehen domekako urteroko hitzordua da aramaioarrendako.

Arriola eta Arexola auzoetako bizilagunek antolatzen dute, eta, hain justu ere, Orixol mendirako gailurrera bidean dagoen Santi Kurtz ermita ondoan dagoen txabolan egingo dute ospakizuna. Josu Olaizolak, Arexola auzoko alkateak, adierazi duenez, eguraldi ona egin duen urteetan jende asko joan izan da ermitara: "Aramaioarrak izaten dira gehienak, baina mendi bueltatik datozen beste asko ere etortzen dira".

**Meza, eguerdian hasita**

Meza izango da eguneko lehen hitzordua: 12:00etan izango da, ermitan bertan. Gero, 14:00etatik aurrera, jatekorik eta edatekorik ez da faltako ermitatik 200 metro ingurura dagoen txabolan: salda beroa eta txorizoa izango dira, besteak beste. Pintxoak ez dira doakoak izango, baina prezio sinbolikoa izango dute; hau da, gastuak estaltzea da helburua.

Eta, noski, ospakizunari giroa emateko, trikiti doinuak entzun ahalko dira.

ELGETA

# Uztaileko udaleku irekietan izena emateko epea zabalik da

Bihar, zapatua, Sendavivara egingo dute txangoa gaztelekuko neska-mutilek

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Gero eta aisialdi eskaintza zabalagoa dugu Elgetan eta erabiltzaile kopurua ere gero eta handiagoa da. Akaso, arrazoien artean egongo da zerbitzuan aurten izan diren hobekuntzak; hezitzaile gehiago, zerbitzuaren jarraipena Aste Santu ostean... Ekaineko eskaintza, gainera, ez da nolanahikoa izan. Esate baterako, bihar, zapatua, gaztelekuko neska-mutikoek egun-pasa egingo dute Nafarroako Bardean dagoen Sendaviva parkean eta martitzenean biodantza tailerra izango dute ludotekako erabiltzaileek.



Neska-mutikoak eta hezitzaileak iaz, uztailean, ludotekan. | L.Z.

Hilean zehar, bestalde, San Juan bezperako prestaketa lanak aurreratuko dituzte eta gaupasa ere egingo dute; ludotekan txikienek eta Asentzion, uztailean, nagusiagoek. Jaietako asto karreran ordezkari bat izan nahi dutela ere jakin dugu; entrenatzen hasiak omen dira Sesto baserrian.

**Uztaileko eskaintza prest**

Urtero moduan udaleku irekiak izango ditugu aurten ere Elgetan. Zerbitzua Ferixa Nagusiko jaien ostean zabalduko du Udalak eta hil osoan emango du; uztailaren 4tik 29ra, zehatz esanda. Zerbitzu hori Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako neska-mutikoendako da; astelehenetik barikura bitartean egongo da zabalik 09:00etatik 13:00etara. Zabalik dago izena emateko epea eta interesatuek ekainaren 7a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Prezioa hileko eta umeko 90 euro da. Zerbitzua aste bakar batez erabili nahi dutenendako 30 euro, bi astez erabiliko dutenendako 55 euro eta hiru asterako 70 euro. Familia ugariek %15eko deskontua izango dute eta gurasoak langabezian badaude beherapena %40 da.

**Argazki erakusketa**

San Juan bezpera hurbiltzen ari dela-eta gogoratu argazki erakusketa egiteko argazkiak eskatu dituztela Txirikil taldeko Mireia Berriozabalek, Maialen Elortzak eta Ane Elortzak. Udaletxean, liburutegian edo ludoteka-gaztelekuan jasotzen dituzte. Guztiak itzuliko dituzte erakusketa amaitutakoan.

### Baserritarren kooperatibak erlezaintzari buruzko ikastaroa antolatu gura du; izen-ematea zabalik da

Ikastaroa oinarrizko erlezaintzari buruzkoa izango da eta ekaina hasierarako antolatu gura dute Elgetako baserritarren kooperatibatik. Erreginaren ugalketa izango dute hizpide ikastaroan. Parte hartzeko interesa izanez gero jarri lehenbailehen harremanetan kooperatibako presidente Luis Mari Arantzetarekin (685 769 983) edo Javier Leanizbarrutiarekin (943 76 80 67).

### Gaur, 18:00etan, gurasoendako hitzaldia Herri Eskolan; autoestimuaren garrantziaz ariko dira

Maala guraso elkartearen eskutik gaur, barikua, egingo du bigarren saioa Elgetan Baikarako teknikari Esther Martinezek. Autoestimua izango du hizpide, 18:00etan, Herri Eskolan; nortasunaren garapenean autoestimuaren garrantziaz, pentsamendu sortzaileaz eta auto-kontrolaz arituko da interesa duten guraso guztien aurrean.

### Domekarako antolatu dituzte Asentzio eguneko ekitaldiak: haur jolasak, meza eta txosna

Gaztetxeak eta Guraso elkarteak antolatuta, gaur hasiko dira ospakizunak: Soraluzeko Xero Xette taldeak kontzertua egingo du gaztetxean, 23:00etan hasita. Domekan, berriz, 11:00etan, haur jolasak, trikitilariak, edariak eta pintxoak egongo dira Asentzion. Asentzioko ermitan urtero egiten den meza ere domekan egingo da, ekainaren 5ean. Fernando Esnaolak esango du, 12:00etan.

### Ozkarbi mendi taldeak Arantzara antolatu du hurrengo irteera; ekainaren 11n egingo dute

Nafarroara antolatu du Ozkarbiko mendi taldeak hurrengo txangoa. Sei bat orduko ibilaldia proposatzen dute; Arantza-Mendieder-Ekaitza-Komisko-Arantza. Ekainaren 11n, zapatua, 08:00etan abiatuko dira Elgetatik. Interesatuek ekainaren 9a baino lehen eman behar dute izena udaletxean edo *ozkarbi.menditaldea@gmail.com* helbide elektronikoan. Prezioa 10 euro da.

NIRE USTEZ

SEBASTIAN ARANTZABAL



## Benetako demokrazia?

Badirudi batzuk orain konturatu direla benetako demokraziaren alde borroka egitearen beharraz. Euskal Herrian batzuk urteak daramatzagu Estatuen ukazioei aurre egiten, benetako demokrazia aldarrikatzen... Azken hauteskunde hauetan ere sarri entzun dugu guztiek izan dutela aurkezteko aukera. Ez da egia; Sortu ez dute legalizatu, eta milaka herritarrek ez dugu hautagai izateko aukerarik izan *kontaminatuta* gaudelako. Elgetan 40 lagunetik gora egongo ginateke egoera horretan.

Euskal Herria kontutan hartzen badugu eta gelditu den mapa politikoari begiratzen badiogu, aldaketarako bidea lehenengo aztarnak sumatzen hasiak gara. Aukera politikoetan gauza itzel argitu dira; lau zutabe nagusi nabarmentzen dira. Txikiak, ordea, txikiago gelditu dira.

Herritarren parte-hartzerako grinak une zailak bizi dituen garai hauetan erroka polita izango zen beste alderdiendako ere herriko 40 alderdikide esanguratsuenak alde batera utzi eta zerrendak osatzen hastea. Galtzak bete lan! Beraz aipatzeko modukoak dira Elgetan eman diren emaitzak. Hilabetean, parte hartzerik izango zuten jakin gabe egotetik izena eta izana sortu dute; talde berria bildu eta herritarren babesa jasoz boto kopuru historikoa lortu dute. Zorionak denoi!

Abertzaleek alde handia atera diete espainolistei eta lehenengo indarra izateko bidean dema galanta aurreikusi daiteke etorkizun hurbilean. Euzko Alderdi Jeltzaleak 30.000 bozka inguru atera dizkio Bilduri, baina polo soberanista deitutako esparru hori oraindik osatzeke dago eta sektore berriak gehitzen joan daitezke. Egin apustu!

# Goiena telebistaren seinalea hobetzeko lanak amaituta

L.Z. | ELGETA

"Probak eginda daude eta seinalea ona da", adierazi du lanak egin dituen antenistak. "Goiena telebista ondo ikus daiteke herri barruan", ziurtatu du.

Asteotan aritu dira egokitzapen lanak amaitzen. Helburua zen Lasao kale inguruan detektatuta zegoen itzalguneari konponbidea ematea, eta beste errepikagailu bat ipinita gainditu egin da arazo hori. "Ez dago itzalgunerik erdigune osoan", adierazi dute teknikariek. Goibeko euskara elkarteak ordainduko ditu Goiena telebistaren seinalea hobetzeko lanak. "Mundumirako txosnan ateratako diruarekin", adierazi dute elkartetik.

**Nola sintonizatu**

Gainerako telebista kateekin egiten dugun moduan, saiatu behar da Goiena telebista etxeko aparailuan sintonizatzen; 52. kanalean dago. Ikustea lortzen ez duenak dei diezaiola antenistari, baliteke-eta teilatuko antenan egokitzapen lanak egin beharra izatea. Zortzi etxebizitzako eraikin bateko teilatuko antenan egokitzapen lanak egitea bizilagun bakoitzari 25 euro inguru kosta dakioke.

LEINTZ GATZAGA

# Gazteek pilota txapelketako lehen partiduak dituzte etzi, domekan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Martxoan jokatzen hasitako Dorleta pilota txapelketa aurrera doa, eta gero eta jarraitzaile gehiago elkartzen dira Gatzagako pilotalekuko harmailetan. Antolatzaile Mauri Zubillaga oso pozik dago txapelketaren jardunarekin: "Joan den domekan ia 20 lagun zeuden 09:00etarako, eta Gatzagako bikoteek elkarren aurka jokatu zutenean ia 60, oihuka eta animatzen. Gero, umeen arteko partiduak antolatu nituen eta harmailek beteta jarraitu zuten. Benetan pozgarria da hori".

Domekan, ekainak 5, gazteek txapelketako lehen partiduak jokatuko dituzte (09:30). Hona: Barandiaran I.a eta Aizpuru I.a (Gatzaga), Arregi eta Prietoren aurka (Arrasate); eta gero, Urrutia eta Urtzelai (Aretxabaleta), Arabaolatza eta Etxagibelen aurka (Arrasate).

Ondoren, seniorren partiduak izango dira: Uriarte eta Mondragon (Aretxabaleta), Urrutia eta J. Zubizarretaren aurka (Eskoriatza); eta Lazkano eta Agirre (Arrasate), Oiarzabal eta E. Zubizarretaren aurka (Eskoriatza).

Eta eguerdi inguruan (12:00) txikienen arteko partiduak izango dira.

# Toki Eder elkarteko erretiratuak Kantabria aldera doaz eguenean, hilak 9

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Udaberriko irteera egingo dute erretiratuek datorren eguenean, hilak 9. Iaz legez, Kantabria aldera joango dira egun-pasa. Interesatuek lehenbailehen jakinarazi diezaietela Toki Eder elkarteko batzordeko kideei; Pedro Mari Elkorobarrutia eta Tere Aranburuzabalari. Autobusean lekua egonez gero, bazkide ez diren erretiratuek ere izango dute aukera joateko.

Kantabrian dagoen Isla herri inguruko paraje dotoreak bisitatuko dituzte eguenean. Oso gustura itzuli ziren iaz bertatik, eta errepikatzea erabaki dute. Era berean, leku berriak ezagutu eta bisitatzeko irteera ere izango da.

MAIATZEKO SARIEN IRBAZLEAK

ASTEBURU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN



Ignacio
Toledo Lizarralde
Antzuola

MUNDUMIRAKO SARIAK

KAMISETAK

| | |
|---|---|
| Luziano Galdos Urzelai | Oñati |
| Nekane Gabilondo Ugarte | Bergara |
| Pilar Calvo Sodupe | Arrasate |
| M. Angeles Arriolabengoa Unzueta | Aramaio |
| Mikel Larrañaga | Arrasate |
| Jose Antonio Auzmendi | Arrasate |

HARPIDETZAK

| | |
|---|---|
| Gotzon Agirre Arregi | Arrasate |
| Axun Otxoa Ugalde | Arrasate |
| Ramon Ugalde Arrieta | Elgeta |
| Jose Manuel Elkoroberezibar Mújica | Bergara |
| Beñardo Balerdi Gomez | Arrasate |

LIBURUAK

| | |
|---|---|
| Irene Madinabeitia Uriarte | Bergara |
| Jesús Belamendia Agirre | Elgeta |
| Jose Luis Aizpurua | Bergara |

ZORIONAK, GUZTIOI !

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: *kluba@goiena.com*
*www.goienakluba.com*
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

AUTOMOBILISMOA

# Gorlako Igoerak 82 piloturekin ospatuko du 20. urteurrena

Biharko lasterketarako antolatzaileek komisarioen esanak betetzeko eskaera egin dute

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Gorlako Igoerak 20 urte beteko ditu bihar –14:00etan itxiko dute errepidea– eta ospakizunera pilotu mordoa animatu dira, 82 guztira: "Egia esateko, larregi. Baina poztu egiten gara gure lasterketak zelako harrera ona duen ikusita. Kontua da horrenbeste piloturekin luzatu egingo dela arratsaldea".

82 pilotu horien artean Debagoienak ordezkaritza zabala izango du, hamabost ibarrekoak izango direlako, eta tartean egongo dira txapelketan lider dauden Aitor Zabaleta (BMW Lola) eta Aitor Ramirez (BMW 320ST). Zabaletarengatik ahalik eta gertuen egoten saiatuko da Ruben Nogueiras (Silver Car), baina oñatiarrak gertutik jarraitu beharko du Joseba Iraola (Speed Car) bizkaitarraren lana; hura du kontrario zuzen. Eta aipatzekoa, baita ere, Bernardo Cardinek ekarriko duen Ferrari 360 Modena autoa.

**Segurtasun neurriak**

Duela hilabete pasa Udanako Igoeran izan zen istripua eta gero, federazioak are eta gehiago zaintzen ditu segurtasun neurriak: "Aste barruan Bergarara etorri dira, zinta gorriak non jarriko ditugun ondo zehaztera. Eta, Oñatin gertatu zena eta gero, ikusleei esan nahi diegu, mesedez, zinta gorri horiek errespetatzeko, eta baita kurba bakoitzean egongo diren komisarioen esanak ere. Boluntario moduan daude hor, eta herrian lasterketa bat antolatu ahal izateko beharrezko lana egiten dute", adierazi du Xabier Zabaletak.

ESANAK

> **"Errespetatu zinta gorria, eta komisarioen esanak"**
> XABIER ZABALETA | ANTOLATZAILEA



Aitor Ramirez Aiako igoeran, joan den astean, turismoetan lider dago Oñatikoa. | EAF-FVA

NATURGAS BBK/TRANSANTARTIKOA

# "Lehertuta gaude, baina animo aldetik geroz eta hobeto"

**ASIER ALKORTA.** | ARRASATE

"Erabat lehertuta gaude, baina animo aldetik geroz eta hobeto". Mikel Zabaltzak azken komunikazioan esandako hitzek mendizaleen "poza eta baikortasuna" adierazten dutela esan dute espedizioaren babesleek. Halaber, martitzenean taldeak marka berri bat hautsi zuela diote. "Bederatzi ordu nekagarri eta luze eskien gainean eman ondoren, 160 kilometro egin dituzte egun bakarrean".

Baldintza txarretan ere, eguna "handia" izan zelan esan zuten mendizaleek. "Orduak eta orduak lanean eman eta gero hainbeste kilometro egitea lortu dugu". Eta ez da gutxiago ere. Zero azpitik 28 graduko tenperaturarekin, BAT Basque Team Desafioko kirolariak egindakoaz aseta daudela diote.

Azken egun hauetan eguraldi ona, "orain arteko onena", eduki eta gero, gaur 50 k/h haizea espero dute. Aditu en esanetan, egoera hori ez da egokia mendizaleentzat. "Kometak erabili ahal izateko gehiegizko haizea da hori".

SQUASH

## Squash topaketa egingo dute bihar Musakolan

Zapaturako, ekainak 4, AKE Squash taldeak II. lagunarteko squash topaketa antolatu du Musakolako kiroldegian. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Horretarako, honako helbide elektronikora idatzi (*iuribetxeba@akesquash.com*), edo 656 73 60 17 telefono zenbakira deitu.

MENDIA

## Besaidek bi irteera eta batzar orokorra egingo ditu ekainean

Hilaren 11ko eta 12ko aste bukaerarako prestatu dituzte bi irteerak: batetik, GR10 ibilbidearen barruan Iparla mendira joango dira. Bestetik, Pirinioetan asteburu-pasa egingo dute: Panticosa inguruan mendi zeharkaldia. Izen-emateak dira ekainaren 6an, 7an eta 8an (19:30-20:30). Bestalde, hilaren 7an batzar orokorra izango da Kulturaten, 19:00etan.

KARATEA

## Ibarreko kyokushinkai taldeek txapelketa egingo dute Bergaran

Bihar, zapatua, Debagoieneko Uda (Aretxabaleta), Saioa (Arrasate) eta Giartzu (Bergara) karate taldeek txapelketa egingo dute Bergaran, Labegaraietan. Guztira, 77 lagun batuko dira txapelketan, gazteenetatik hasi –6 urte– eta nagusietara, eta kata eta kumite modalitateetan jardungo dute.

ZIKLISMOA



Eneko Lizarralde (Sumofic), azken metroetan. | ARGAZKIAK: XABIER ARANTZETA



Iker Ezkibel (Mugarri-Jay), esfortzu betean.



Mikel Aristi (Sumofic), erlojupekoa hasi berritan.

ESANAK

## "Penaz goaz, herrian halako proba bat izan eta ordezkaririk izango ez dugulako"

**IKER SANCHEZ** | ENTRENATZAILEA

ZIKLISMOA

# Amateur mailako ziklismoak hitzordu bikoitza du Bergaran

Euskal Herriko erlojupekoa egingo dute bihar, eta errepideko proba etzi

**XABIER URTZELAI** | AIZARNAZABAL

Bergaran amateur mailako puntako bi lasterketa egingo dituzte asteburuan: Euskal Herriko erlojupeko txapelketa bihar eta errepidekoa domekan (Pentekostes saria).

Bihar Euskal Herriko txirrindulari onenak batuko dira, eta, segundo gutxiko tarteagatik bada ere, Debagoienak ez du ordezkaririk izango. Zapatuko lasterketan ze gipuzkoar egongo zen erabakitzeko Gipuzkoako erlojupekoa egin zuten eguaztenean Aizarnazabalen, eta gazte mailan lasterketan egon ziren Lokatza-Sumoficeko Eneko Lizarralde, Mikel Aristi eta Hodei Orobengoa; eta baita Mugarri-Jay taldeko Iker Eskibel ere. 15 kilometroko ibilbidean erlojupeko gogorra izan zuten, eta Aizarnazabalgo herri barruko malda gogorrak hankak leherrarazi zizkien. Tamalez, lau ordezkarietako inork ez zuen lortu lehen lau sailkatuen artean egotea eta biharko probarako txartela eskuratzea –Aristi egon zen gertuen, bosgarren.

Jon Rivero bergararra (Debabarrena) amateur mailakoekin lehiatu zen, eta hark ere ez zuen lortu etxean korritzeko behar zuen postu onik lasterketarako.

**"Penaz goaz"**

Ibarreko ziklistak lan ona egiteko asmoz joan ziren eguazteneko hitzordura: "Ibilbide gogorra da eta ezingo gara hasieratik topera irten, bestela ito egingo gara-eta berehala", adierazi zigun berotze ariketak egiten zebilen Eskoriatzako Iker Eskibelek. "Guretako proba garrantzitsua da, etxean korrituko dutelako zapatuan, eta hor egon nahi dugulako", esan zigun Sumoficeko Eneko Lizarraldek. Lasterketa amaieran, penatuta zegoen euren entrenatzaile Iker Sanchez: "Hiru taldekideetako bat sartzeko asmoz etorri gara, eta ez dugu lortu, pena da. Batek daki noiz izango dugun berriro Euskadiko erlojupekoa Bergaran. Dena dela, lasterketako antolatzaile moduan gonbidapen bat izan beharko genukeela uste dut".

**09:00etan hasita**

Zapatuko lasterketarako antolatzaileek erlojupekoa egiteko tratzatu aproposa prestatu dute. Zirkuitua Bergarako hegoaldean jarri dute, Labegaraietako zuzengunea, Ibargarai, Urteaga, Antzuolarako saihesbidea GI-632 eta Bergarako saihesbidea GI-627 aprobetxatuta. 09:00etan hasiko dute lasterketa, eta gazte (zirkuituari bi itzuli, 15 km), 23 urtez azpiko (3 itzuli, 26,7 km) eta elitekoek (3 itzuli) hartuko dute parte.



Jon Rivero amateur mailan lehiatu zen. | X. ARANTZETA

### "Erritmo altua eta iraunkorra"

Erlojupeko bati aurre egiteko orduan ziklistak erronka gogorra du aurrean: "Etengabeko sufrimendu proba da, hor ez dago indarrak gordetzerik. Ziklistak erritmo altuari eutsi behar dio, eta erritmo horrek iraunkorra izan behar du. Ez da modalitate batere erraza", azaldu digu Iker Sanchez entrenatzaileak.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA

# 'Monzon' pastorala, gurera

▸ 'Telesforo Monzon' pastorala irailaren 17an eskainiko dute Bergaran

▸ Larraineko herriak egingo du aurten pastorala; idazlea Jean Bordaxar da



Telesforo Monzon. | ARTXIBOA

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

"Bai!" ozen eta bateratua jaso zuten bergararrek Larraineko herriaren partetik. Maiatzaren 21ean Bergarako udal ordezkariak Larrainen izan ziren. Telesforo Monzoni buruz prestatzen dabiltzan pastorala Bergarara ekar dezaten eskatu zioten modu formalean Larraineko herriari, eta, esan bezala, erantzuna baiezkoa izan zen. Irailaren 17an, zapatua, San Martin jaietan eskainiko dute pastorala.

**Eskaera, ahoz eta idatziz**

Lantaldea asteon hasi da lanean. Udal ordezkariez gain, Olaso Dorrea Fundazioko ordezkariak eta herritarrak ere badaude antolakuntza taldean. "Hilaren 21ean eskaera formala egitera joan ginen, bai ahoz eta baita idatziz ere egin genuen eskaera", azaldu du Maite Guridi zinegotziak. Lantaldearen lehenengo lana pastorala egiteko beharrezkoak diren bitarteko teknikoak zehaztea izango da. Horren arabera egingo dituzte gainerako lanak.

**Seminarioa, aukera ona**

Pastorala non egin aztertzerakoan lantaldeak uste du Seminarioa leku egokia izan daitekeela. "Esan digute agertokiak altueran egon behar duela eta 12x10 metrokoa izan behar duela", adierazi dute. Seminarioan egiteak eguraldiaren menpe egon beharko dutela esan nahi du; horregatik, euria eginez gero Labegaraieta izan daiteke irtenbide egokia.

Zuberoan egiten dituzten pastoraletan jendetza handia batzen da, 4.000 lagun inguru. Hala, Bergarako ere aurreikuspen handia egin dute. Espero dute 2.500 edo 3.000 lagun etorriko direla. "Alde batetik, Hegoaldean eskaintzeak jendea erakartzen du; eta, bestetik, Monzon pertsonaia ezaguna da, oinarri politikoa ere badago...", azaldu du Maite Guridik.



Anaje Narbaiza, Peio Belastegi, Enara Mingez, Kristina Elkoro eta Maite Guridi. | ARANTZAZU EZKIBEL

**JEAN BORDAXAR** | IDAZLEA ETA MUSIKARIA

## "Omenaldi gisa egin dut pastorala; gure historia ezagutzeko modua da"



J. Bordaxar. | ARTXIBOA

Jean Bordaxar musikariak idatzi du *Telesforo Monzon* pastorala. "Merezi duen omenaldia" izan dela azaldu digu.

**Nolatan erabaki zenuen pastoral hau idaztea?**

*Agirre presidenta* pastorala egin genuen Arrokiagan 1995ean. Orduan, Monzonen papera egin nuen eta erabaki nuen ezagutu egin behar nuela eta haren bizitza ikertu. Euskal Herri mailan pertsonaia handia izan da, eta, nolabait, markatu egin du herria.

**2002an idatzi zenuen.**

2002an idatzi nuen, baina orain arte ez da antzeztu. Orain dela urte eta erdi erabaki zuen Larrainek pastoral hau egitea, eta urte hasieratik gabiltza entseguak egiten.

**Garrantzitsua da Bergarara ekartzea?**

Nire ustez, zinez garrantzitsua da. Omenaldi gisa egin dut pastorala eta haren etxean antzezteak garrantzi handia dauka. Gure historia ezagutzeko modua da.

**Ardiak eta astoak**

Larraineko lagunek eskatu dute artalde bat eta asto bat beharko dituztela emanaldirako. Bestalde, egin beharko diren lanen artean dago emanaldian banatuko dituzten liburuxkak. "1.000 liburu inguru aterako dira", diote. Pastorala zuberotarrez izaten da; hala, liburuxken bitartez "ulergarriagoa" egiten da emanaldia.

Bergarako saioa irailean izango den arren, Larrainen abuztu hasieran estreinatuko dute pastorala. Hain zuzen, abuztuaren 7an –domeka– eta 13an –zapatua– egingo dituzte emanaldiak. Bergaratik hainbat lagun joango dira Larrainera Monzoni buruzko emanaldia ikustera.

Bestalde, ekitaldiaren berri emateko eta informazioa zabaltzeko prentsaurrekoa egingo dute. Bergarako alkatea, Larraineko ordezkariak eta Jean Bordaxar idazlea izango dira prentsaurrekoan. Eguna zehaztu barik dute, baina prentsaurreko bat Baionan izango da eta beste bat Donostiako Koldo Mitxelenan.

**Arrasaten, 1991n**

Maiatzaren 21ean Larrainen entsegua ikusten egon zirenak txundituta geratu dira zuberotarren ahotsekin. "Izugarri ahots politak dituzte, txundituta geratu gara... batez ere Telesfororen papera egiten duenarekin", esan zuen Anaje Narbaiza antolakuntza ataldekoak.

Zuberoan errotuta dagoen herri-antzerkia ikusteko aukera paregabea izango da, hortaz, irailean gurean. Baina ez pentsa gurean pastorala egiten den lehenengo aldia izango denik. 1991n Muskildi herriak *Harizpe* pastorala egin zuen. Orduan, Arrasaten izan ziren emanaldia eskaintzen. *Harizpe* pastorala Pier Paul Berzaitz-ek (Muskildi, 1952) idatzi zuen.



Agurne Barruso alkatea eskaera ofiziala egiten. | ANAJE NARBAIZA



Larraineko herritarrak entseguan. | ANAJE NARBAIZA

DATUA

**70**

LAGUN

Bergarara 70 bat lagun etorriko dira Larrainetik. Gehienak emanaldirako etorri eta bukatutakoan joan egingo dira. Hala ere, gazteak geratu egingo dira.

# Bertsolari gazteendako plaza berria izateko asmoz hasi dute ibarreko sariketa

- Bertsolariek binaka jardungo dute txapelketan
- Finala ekainaren 19an izango da Arrasaten



Jokin Labayen bertsolari arrasatearra. | GOIENA

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Dagoeneko martxan dago sariketa. Lehenengo kanporaketa Oñatiko San Migel Txikitan jokatu zuten; gaur Uberan jokatuko dute bigarren saioa eta hirugarrena Aramaion izango da.

Debagoieneko bertso eskolen artean antolatutako txapelketa da, bertako bertsolariz osatua. Izan ere, hori da txapelketa horren xedea: bertsolari gazteendako plaza berri bat izatea.

**Bertako bertsolariak**

Aramaio, Arrasate, Bergara eta Oñatiko bertso eskolak parte hartzen dabiltza txapelketan. Guztira, 24 bertsolarik jardungo dute kantuan oholtza gainean. "Bertso eskola bakoitzak erabaki du bikoteak nola antolatu", azaldu du Xabier Igoa bertsolari aramaioarrak.

Txapelketaren helburu nagusia bertsolari gazteendako plaza berria izatea da. Hala ere, beste helburu garrantzitsu batzuk ere baditu txapelketak. Besteak beste, Debagoieneko bertso eskolen arteko harremanak sendotu eta bertsolariok elkarren artean ezagutzeko helburua dago. Eta baita bailaran bertsolaritza sustatzeko asmoa ere.

**Lehenengo saioan sailkatuak**

Maiatzaren lehenengo aste bukaeran jokatu zuten lehenengo saioa. San Migel Txiki jaietan, Kale Zaharreko plazatxoan jardun zuten lau bikotek. Finalerako sailkatu ziren bertsolariak izan ziren: Urko Egaña eta Josu Igartua bikotea eta Joseba Lasagabaster eta Gorka Larrea bikotea. Ekainaren 19an jokatuko duten finalerako dagoeneko lortu dute txartela bertsolari oñatiarrek. Gainerako txartelak jokoan daude.

Gaur, egubakoitza, Uberan jokatuko dute bigarren saioa. 20:30ean izango da eta parte hartuko dute lau bikotek. Antolatzaileek azaldu dute bertso-afaria izango dela bai gaurkoa eta baita datorren astekoa ere.

**Hurrengoa, Aramaion**

Datorren egubakoitzean Aramaion jokatuko dute hirugarren eta azken saioa. Uribarrin izango da, 20:30ean.

Parte hartuko dute Manex Agirre, Maria Izaga, Andere Arriolabengoa, Sabin Aranburu, Iker Agirre, Beñat Burgi, Iñaki Viñaspre eta Beñat Zalakainek.

Gaur Uberan jokatuko duten saiotik eta datorren astean Aramaion jokatuko duten saiotik bina bikote sailkatuko dira finala jokatzeko. Finala Arrasaten izango da, gaztetxean, ekainaren 19an.

**Gipuzkoako txapelketa**

Gipuzkoako txapelketari dagokionez, Jokin Labayenek eta Urko Egañak eskuratu dute udazkenean hasiko den hurrengo kanporaketa jokatzeko txartela.

**HURRENGO SAIOAK**

| EKAINAREN 3AN | EKAINAREN 10EAN |
|---|---|
| Jokin Labayen - Ane Zuazubizkar | Manex Agirre - Maria Izaga |
| Enaitz Alustiza - Maddi Labayen | Andere Arriolabengoa-Sabin Aranburu |
| Xabi Igoa - Paula Amilburu | Iker Agirre - Beñat Burgi |
| Iñigo Arzelus - Eñaut Uriarte | Iñaki Viñaspre - Beñat Zalakain |



# Ume eta gurasoen arteko harremana dantzaren bidez

## 'Río de Luna' dantza ikuskizuna eskainiko dute domekan Zabalotegin, 18:00etan; sarrera 3 euro da

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Ikuskizun berezia izango da domekan Zabalotegi aretoan eskainiko dutena. Da.te danza taldeak *Río de Luna* dantza ikuskizuna eskainiko du. Berezia da, haurrei zuzendutako lana izango delako; hain zuzen, 4 eta 8 urte bitarteko umeei zuzendutakoa.

Eusko Jaurlaritzaren 2011ko dantza zirkuituaren barruan sartu dute ikuskizuna.


Bi dantzarik parte hartuko dute ikuskizunean. | DA.TE DANZA

### Artea eta umeak

Da.te danza taldeak helburu bakarra dauka: dantzaren alde lan egitea. Gainera, dantzan ere hezkuntza balioak badaudela aldarrikatu gura dute taldekideek. Hala, euren ikuskizunen bitartez mundua ikusteko beste modu bat azaldu gura dute. Dantza egiten dute zerbait kontatzeko eta gainerakoen subkontzientean eragiteko.

Umeei zuzendutako ikuskizunak adinaren arabera sailkatzen dituzte. Hala, 0 eta 3 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioetan ikusle kopuru txikia izaten dute, 70 lagun besterik ez; eta 4 eta 8 urte bitarteko saioetan 250 lagun inguru.

### Gurasoekin harremana

*Río de Luna* ikuskizunean, umeen eta haien gurasoen arteko harremanaz berba egiten da. Ikuskizunean garrantzi berezia du musikak. Jesus Fernandezek sortutako musika da, eta hainbat erritmo nahasten ditu. Horrez gain, argiek ere garrantzia dute: LED argien bitartez kolore bereziak sortzen dituzte oholtza gainean. Ikuskizunean bi dantzarik parte hartuko dute: Ivan Montardit eta Rosa Maria Herradorrek.

Ikuskizuna 18:00etan izango da eta sarrera 3 euro da.

# Poesiak, dantzak eta musikak girotuko dute Jardunen jaialdia

**A.E.** | BERGARA

Jardun euskara elkartearen eskutik Ain_1 taldeko nesken kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da gaur Bergarako San Martin plazan, 22:00etan.

"Topaguneak duen Kultur Errota ekimenaren barruan daude arrasatearrak", azaldu du Maitane Arizabaletak, Jarduneko kultura koordinatzaileak. Hala, Kultur Errota ekimenetik aukeratutako emanaldia izango da gaurkoa.

### Poesia, dantza...

2007an jarri zuten martxan proiektua Arrasaten hainbat neskak. Musika eta poesia irakurketa eskaintzeko asmoz sortu bazen ere, poliki-poliki hazten joan da, musika tresna eta partaide berriak sartuta. Egun, dantza, ikus-entzunezko baliabideak eta agertoki bakoitzaren araberako elementuekin osatutako ikuskizuna lantzen saiatzen dira.

Doinu malenkoniatsuak, berbaren garrantziak eta dantzaren espresibotasunak emankizun ezberdin bat osatzen dute, leku txiki eta goxoetan antzezteko egokia. *Musika kaxa* azken proiektuarekin dabiltza arrasatearrak orain.

Gainera, Jardun euskara elkarteak ikasturte amaierako jaia egingo du San Martin plazan, 18:00etatik 19:00etara.

## Gozategik 'Bizi-bizirik' diskoa aurkeztuko du Bergarako gaztetxean

UEMA egunaren barruan antolatutako ekitaldia izango da. Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 23:00etan, Bergarako gaztetxean. *Bizi-bizirik* diskoa aurkeztuko dute oriotarrek Bergaran. Euren azken laneko abestiez gain, betiko abestiek ere izango dute tokia.

## Jose Antonio Azpiazuk liburua aurkeztuko du eguaztenean

*Esa enfermedad tan negra* liburua aurkeztuko du Jose Antonio Azpiazu oñatiarrak datorren eguaztenean Donostian. Ekitaldia 11:00etan izango da, Donostiako Elkar aretoan (Fermin Kalbeton 21). XVI. mende amaierako izurriteek Euskal Herrian izan zuten eraginaz dihardu liburuak.



**Oihana Agirre** | Gazte Ekoliderrak proiektuko partaidea

# "Naturak ematen diguna finitua da eta horren aurrean zer edo zer egin behar dugu"

ASIER ALKORTA | OÑATI

Industria Antolakuntzan Ingeniaritza ikasi, eta Kutxak garapen jasangarriaren eta gazte lidergoaren alde egiten duen Ekoliderrak proiektuaren barruan sartu zen Oihana Agirre (Oñati, 1982), beste 32 lagunekin batera. Lotsatia da, hasiera baten, baina berak duen naturaltasuna erakutsiz, ekoliderra izatea zer den kontatzeko jarri da.

**Zelan sartu zinen Gazte Ekoliderren proiektuan?**
Ikasketak amaitzeko, industrialde bat ekosistema industrial bilakatzeko proiektua egin nuen, eta gai horrekin hasi nintzen alor honetan sakontzen. Gero, iaz proiektu honetan parte hartu zuen batek ere animatu ninduen.

**Baina edonor ez da proiektuaren parte izaten, aukeraketa egiten dute. Nonbait, meritua duzu.**
Elkarrizketa pertsonala egin ziguten, eta gero, aukeratu egin ninduten. Arrazoi zehatzak ez dakizkit.

**Zein izan zen ikasketen amaieran egin zenuen proiektuaren funtsa?**
Industrialde bat hartu genuen, eta, bertan ekoizten zena kontuan hartuta, hondakinak murrizteko, dirua aurrezteko eta jasangarritasuna eta iraunkortasuna bermatzeko sare berriak diseinatu genituen. Azken finean, enpresa batentzako hondakinak direnak beste batentzako lehengaiak dira, eta horiek egoki kudeatzea zen guk proiektuarekin proposatzen genuena.

**Gaur egun gauza asko alferrik galtzen dira?**
Bai. Batek zakarretara botatzen duena beste batek produktua ekoizteko lehengai moduan erabiltzen du.

**Ikuspegi ekologikotik begiratuta, zu bizi zaren ingurua zelan deskribatuko zenuke?**
Industrialde asko daude inguru honetan eta azken urteetan hainbat gauza egin dira, batik bat kutsadura txikitzeko. Hala ere, oraindik ez dakit kontzientziazioa zein mailatan dagoen. Askotan, enpresek kalera begira egiten duten aurpegi zuritzea izaten da; legeak esaten duena egin eta listo. Norbanakoak kontzientziatuago daudela esango nuke, azken urteetan batik bat.

**Ikuspegi horretatik legea leunegia dela deritzozu, ala?**
Europatik-eta lege batzuk heltzen dira, baina haiek ere ez dakite zelan jarri indarrean. Enpresa handiek ere gauzak egin behar dituzte.

**Zure zaletasunak jasangarritasunaren alorrarekin lotuta daude?**
Ez asko. Kontzertuetara joatea gustatzen zait, eta orokorrean musika entzutea.

**2011ko Gazte Ekoliderra izango zinela esan zizutenean pozik sentitu zinen?**
Egia esan, bai. Abenduan esan zidaten, eta, langabezian nengoenez, pozik hartu nuen proiektu honetan parte hartzeko aukera. Eta ez naiz damutzen.

**Zer da proiektu honetan egiten duzuna?**
Hiru fase daude: *Trebatu*, *Ekin* eta *Izan*. Lehenengo fasean hitzaldiak eta bestelako mahai-inguruak egiten ditugu. Gero, *Ekin* fasean, alor ezberdinetako proiektuak egiteko aukera daukagu, Kutxak babestuta. Azken fasea izatearena da. Entretenigarria da.

**Epe luzera alor honekin lotutako helburu finkoren bat baduzu?**
Momentu honetan gure proiektua, energia berriztagarriekin lotutakoa, martxan jartzea litzateke helburu nagusia.

**Zer esango zenieke ekologian sinesten ez dutenei?**
Jasangarritasuna eta iraunkortasuna nahastu egiten ditugu eta azken hori da bultzatu behar duguna. Naturak ematen diguna finitua dela esango nieke eta horren aurrean zer edo zer egin behar dugula.

**Zer iritzi duzu biodiesel eta bestelako produktuen gainean?**
Ez naute konbentzitzen. Behin entzun nuen moduan, garraioa helbide izan beharrean helburu bilakatu da.

**Etorkizunean non ikusten duzu zure burua?**
Alor honek ate ugari zabaltzen ditu eta lanerako aukera asko daude. Baina bai, horrelako zer edo zertan lan egin nahi dut.

### MARRA AZKARREZ

- **Janari gustukoena:** Txokolatea.
- **Oporretarako leku bat:** Kanada.
- **Kolorea:** Gorria.
- **Animalia:** Lehoia.
- **Filmea:** *En la cuerda floja*, James Mangold zuzendariarena.
- **Liburua:** *Everyone deserves something good in their life. At least once*, Morris Gleitzman idazlearena.
- **Paisaia bat:** Pilateko Duna Handia (Frantzia); ikusgarria iruditu zitzaidan.
- **Kostaldea ala barrualdea?** Barrualdea.



Oihana Agirre, Olakua auzoko urmaelean egindako hitzorduan.

ASIER ALKORTA

## ASTEA GOIENAN


IRATI AGIRREAZALDEGI

### Gorlako Igoeran jasotakoak ikusgai

Gorlako Igoeran jasotako irudiez gain, Euskadiko erlojupeko txapelketari jarraipena egingo diogu eta Gipuzkoako txapelketan debagoiendarrek egindako lana ere gertutik jarraituko dugu asteleheneko *Harmailatik* saioan.

**'Harmailatik'**
Astelehena, 20:45


JOSU TXINTXURRETA

### Alkatetza utziko duten kideekin elkarrizketak

Debagoieneko zazpi herrietan aldatuko dira alkateak laster. Bada, guztiak elkarrizketatuko ditugu, banan-banan, euren lau urteetako agintaldiaren gaineko balorazioa egiteko. Astelehenetik egubakoitzera izango da.

**'Magazinea'**
Astelehena, 19:45

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 3**
**13:45** Marrazki bizidunak
**14:15** Kantari
**14:45** Onein
**15:15** Berriak
**15:45** Tertulia
**16:15** Leku txiki bat
**16:45** Onein
**17:15** Berriak
**17:45** Berbetan
**18:15** Ur eta lur
**18:45** Leku txiki bat
**19:15** Berriak
**19:45** Kantari
**20:45** Magazinea
**21:15** Gipuzkoa kultura
**22:15** Magazinea
**22:45** Bi tartean
**23:15** Filma: 27 ordu

**ZAPATUA, 4**
**08:00** Marrazki bizidunak
**09:30** Ipupomamua
**10:00** Sakonduz
**10:35** 28.Klip
**11:00** Ur eta lur
**11:37** Onein
**12:00** Berriak
**12:15** Kantari
**13:50** Gipuzkoa kultura
**14:20** Marrazki bizidunak
**15:45** Tertulia
**16:45** Filma: 27 ordu
**16:05** Magazinea
**19:05** Berbetan
**19:40** Bi tartean
**20:15** Erreportajea: Zegama Aizkorri maratoia
**20:50** Berriak
**21:05** Sakonduz
**21:40** Magazinea
**22:40** Bi tartean
**23:10** Hamaika.bit
**23:45** Magazinea

**DOMEKA, 5**
**08:00** Marrazki bizidunak
**08:35** Erreportajea: Azpeitiko Rallysprinta
**09:20** Ipupomamua
**09:50** Marrazki bizidunak
**10:20** Kantari
**11:30** Zegama Aizkorri
**12:0** Berbetan
**12:35** Ur eta lur
**13:10** Onein
**13:30** Gipuzkoa kultura
**14:00** Hamaika.bit
**14:30** Magazinea
**15:30** Ikusten
**16:05** Marrazki bizidunak
**16:35** Berriak
**16:50** Kantari
**17:25** Ipupomamua
**18:00** Magazinea
**19:00** Tertulia
**20:00** Filma: 27 ordu
**21:20** Bi tartean
**21:50** Zegama Aizkorri
**22:25** Azpeitiko Rallysprinta
**23:10** Gipuzkoa kultura
**23:40** Magazinea

**ASTELEHENA, 6**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:10** Berbetan
**14:45** Berriak
**15:15** Sakonduz
**15:50** 28.Klip
**16:15** Gipuzkoa kultura
**16:45** Berriak
**17:15** Leku txiki bat
**17:45** Erreportajea: Azpeitiko Rallysprinta
**18:25** Onein
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Harmailatik
**21:30** Magazinea
**22:30** Harmailatik
**23:15** Gipuzkoa kultura

**MARTITZENA, 7**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Harmailatik
**16:00** Hamaika.bit
**16:30** Ikusmira
**16:50** Berriak
**17:15** Sakonduz
**17:50** Bi tartean
**18:20** Ikusten
**18:55** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Sakonduz
**21:15** Magazinea
**22:15** Harmailatik
**23:00** Magazinea

**EGUAZTENA, 8**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:35** Kantari
**14:00** Harmailatik
**14:45** Berriak
**15:10** Onein
**15:40** Hamaika.bit
**16:10** Erreportajea: Zegama Aizkorri maratoia
**16:45** Berriak
**17:15** Bizitegia
**17:40** Bi tartean
**18:15** Gipuzkoa kultura
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Tertulia
**21:45** Magazinea
**22:45** Tertulia
**23:45** Erreportajea: Zegama Aizkorri maratoia

**EGUENA, 9**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Kantari
**14:15** Onein
**14:45** Berriak
**15:15** Hamaika.bit
**15:45** Tertulia
**16:45** Berriak
**17:15** Ikusten
**17:45** Ipupomamua
**18:15** Ikusmira
**18:45** Berriak
**19:15** Kantari
**19:45** Magazinea
**20:45** Bi tartean
**21:15** Magazinea
**22:15** Gipuzkoa kultura
**22:45** Bizitegia
**23:45** Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

### Udaixeren udako programa ezagutuko dugu gertutik

Udaixe Txatxilipurdiren proiektua ezagutzeko aukera izango dugu Arrasate Irratian. Aurtengo udararako gaztetxoendako dauden ekintzen berri eta izen-ematea berri emango digute Txatxilipurdikoek 107.7an.

### Ardo eta Gazta Egunaren harira, sariak zozketan

Mondra futbol taldeak hilaren 11rako Ardo eta Gazta Eguna antolatu du. Horren harira, 4 pack zozketatuko ditugu; kopak eta txartelak, egun horretan nahi duzuena dastatzeko. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena*.com-era.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 4** | ALBERTO AZCOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Domeka, 5** | M. FCA. AZCOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| **Astelehena, 6** | ANA FDEZ. CORCUERA | Aranbarri plaza, 1 | 943 79 22 26 |
| **Martitzena, 7** | JUAN ANTONIO IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Eguaztena, 8** | LOURDES AMEZUA | Sta. Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Eguena, 9** | ANA ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Egubakoitza, 10** | AURORA RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 4** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Domeka, 5** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Astelehena, 6** | MERCEDES GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Martitzena, 7** | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguaztena, 8** | L. ALVAREZ-M. MOZOS | Iparragirre | 943 76 12 15 |
| **Eguena, 9** | A. URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| **Egubakoitza, 10** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 4** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 5** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 6** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 7** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 8** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 9** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Egubakoitza, 10** | JULDAIN | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 4** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Domeka, 5** | M. VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Astelehena, 6** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |
| **Martitzena, 7** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |
| **Eguaztena, 8** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |
| **Eguena, 9** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |
| **Egubakoitza, 10** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 1 | 943 79 21 99 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA



**Max.** 19º
**Min.** 10º

**ZAPATUA, 4**
Egun motela izango dugu. Euria, zaparradak eta trumoi-ekaitzak espero dira. Tenperaturak pixka bat igoko dira.



**Max.** 19º
**Min.** 9º

**DOMEKA, 5**
Iparraldeko haizea ibiliko da eta giro freskoarekin jarraituko dugu. Eguzkia izan arren, euria ere egingo du.

### EUSKAL HERRIA



Eguraldi nahasia izango dugu asteburu guztian zehar. Tenperatura freskoak eta zaparradak espero dira.

## GAZTE INFORMAZIOA

### LEHIAKETAK

**Argazkilaritza.** Arizmendi Ikastola. Photomiradas Argazki Lehiaketa. Epea: ekainaren 20a.

**KALDeARTE.** Nazioarteko Kaleko Artearen Mostra Gasteizen, ekainaren 10etik 12ra.

**Donostiako zinemaldiko gazte epaimahaia.** Ikasle bazara, epaimahaikide izan zaitezke.Epea: ekainak 15.

### GAZTE IKASTAROAK

**Udako sukaldaritza.** Ekainaren 28tik uztailaren 19ra, martitzenetan, 6:30-8:30. Igor Otaduiren eskutik, Lanbide Hastapeneko sukaldean. Matrikula: 20 euro /12 euro ikasle edo langabeak.

**Bitxigintza.** Ekainaren 29tik uztailaren 20ra, eguaztenetan, 6:00-8:00, Txus Gruzetaren eskutik, Kulturaten. Matrikula: 20 euro /12 euro ikasle edo langabeak.

### LANA

**AUKEArako atezaina.** Arrasateko Udalak lan poltsa osatu nahi du 3 urtetan sortuko diren beharrei erantzuteko. Baldintzak: eskola ziurtagiria, 2. hizkuntza eskakizuna. Epea: ekainak 3.

**Bake epailea.** Arrasaterako bake epailea behar da. Baldintzak: arrasatearra izatea, lege aholkulari edo abokatu lanetan ez aritzea, funtzionario edo sindikatuko partaide ez izatea. Epea: ekainak 13.

**Begirale.** Lana udarako. Oraindik badaude hainbat deialdi parte hartzeko. *www.gipuzkoagazteria.net/uda.*

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



## Amanda eta Urtzi

Arrasateko Amanda Sánchez eta Urtzi Apraiz zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ostean, Etxe-Aundira joango dira ospatzera. Eztei bidaia New Yorkera egingo dute. Lagunen eta senidekoen partetik ondo-ondo pasatu eguna eta ezkonbidaian. Zorionak eta urte askotarako, bikote!



## Aitziber eta Gaizka

Aitziber Axpe eta Gaizka Casares ekainaren 4an Aramaioko Azkoaga auzoan ezkonduko dira eta bazkaria Larrabetzun, Azurmendi jatetxean. "Ordue zan! Ondo-ondo pasatu! Disfrutau egune eta biajie!".



## Amaia eta Mikel

Mikel Aranburu eta Amaia Igartua ekainaren 4an Zañartuko Santikurtz ermitan ezkonduko dira eta ondoren Gure Ametsa jatetxean bazkalduko dute. Estatu Batuetara egingo dute bidaia. "Ondo pasatu, bikote. A! eta poliki sartu e? jeje".

---

ESKER ONA

## Asintxio Irizar Aranguren

Orain dela gutxi hil den Axenen familiak, Aita-Menni ospitaleko langile eta lagun guztiei bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu.
Mediku, erizain, auxiliar eta gainontzeko gaixo eta familiei, eskerrikasko, emandako laguntza eta babesagatik.

Horrela segi

**Axenen anai-arreben partetik.**
**Antzuolan, 2011ko ekainaren 3an.**

---

OROIGARRIA

## Victor Diaz Pinilla



Logroñon hil zen 2011ko maiatzaren 29an.

*Gazteen topaleku bilakatu zenuen Sokoa.*
*Zenbat barre, algara eta momentu on.*
*Gure bizitzetako zati garrantzitsua izan zara*
*eta betiko izango zara gure bihotzetan.*
*Eskerrik asko eta gero arte, Bittin!*

**Azkenpote koadrila.**
**Arrasaten, 2011ko ekainaren 3an.**

---

## HILDAKOAK

**Luis Ayerbe Lizarralde**. Oñatin, maiatzaren 26an.
**Antonio Balenciaga Juaristi.** Arrasaten, maiatzaren 26an, 86 urte.
**Victoria Abarrategi Gorosabel.** Arrasaten, maiatzaren 26an, 83 urte.
**Teresa Bilbao Mujika. Bergaran**, maiatzaren 27an, 90 urte.
**Fernando Revuelta Ruiz.** Bergaran, maiatzaren 27an, 67 urte.
**Txomin Arana Barandiaran.** Arrasaten, maiatzaren 28an. 81 urte.
**Enriqueta Arana Barandiaran.** Arrasaten, maiatzaren 29an.
**Victor Diaz Pinilla.** Logroñon, maiatzaren 29an.
**Dorotea Azkargorta Errasti.** Antzuolan, maiatzaren 30ean. 91 urte.
**Aquilina Mendizabal Gorosabel.** Arrasaten, ekainaren 1ean. 92 urte.

---

ESKER ONA

## Dorotea Azkargorta Errasti



Lapatza baserrikoa. Tiburcio Larrañagaren alarguna

2011ko maiatzaren 30ean hil zen, 91 urte zituela.

Haren seme-alabak: M. Carmen eta Jokin Esnaola, Tomas eta Maje Gorritxo; bilobak: Koldo, Txomin eta Jone; anai-arrebak: Anbrosi (†) eta Andoni (†), Leandro (†), Hilario eta Justina, Asun (†) eta Rufino, M. Luisa eta Andres, eta Jose Antonio (†); koinatu-koinatak: Andresa eta Andres (†), Carmen, Nicolas (†) eta Pilar, Clarita eta Tomas (†), eta Sor Julita (lekaimea); iloba, lehengusu eta gainerako ahaideen izenean hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko.

**Antzuolan, 2011ko ekainaren 3an.**

---

URTEURRENA

## Rufina Gastañaga Heriz



Boni Akizuren alarguna

2010eko ekainaren 6an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 5ean, 11:30ean, Aretxabaletako parrokian ospatuko da.

—

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko*
*ez zaitugu inoiz galduko*
*gure artean izango zaitugu betiko.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

MEZA

## Bittori Larrañaga Eguren



Oñatin hil zen 2011ko maiatzaren 4an, 67 urte zituela.

Haren aldeko meza domekan, ekainaren 5ean, 10:30ean, Bergarako San Prudentzio elizan ospatuko da.

—

*Guretzat oso lagun berezia izan zera.*
*Muxu bat.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko lagunen izenean.**

---

ESKER ONA



## Enriqueta Arana Barandiaran

2011ko maiatzaren 29an hil zen.

## Txomin Arana Barandiaran



2011ko maiatzaren 28an hil zen.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Ondra meza domekan, ekainaren 5ean, 11:00etan, Uribarri auzoko elizan ospatuko da.

**Arrasaten, 2011ko ekainaren 3an.**

---

URTEURRENA

## Damian Zumalde Arana



Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 4an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

---

ESKER ONA

## Luis Ayerbe Lizarralde



Oñatin hil zen 2011ko maiatzaren 26an.

Lerro hauen bidez Luisen familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi dizkiguzuen guztioi.

**Oñatin, 2011ko ekainaren 3an.**

---

URTEURRENA

## Xabier Ilzarbe Rekarte



Hirugarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 5ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

—

*Denborak aurrera egin arren,*
*gure artean jarraitzen duzu.*
*Gogoan zaitugu.*

**Elizkizunera joango zaretenoi,**
**aldez aurretik eskerrik asko familiakoen izenean.**

---

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

**BERGARA Bertso jaialdia**
Debagoieneko binakako bertsolari txapelketaren bigarren saioa. Jokin Labayen-Ane Zuazubizkar, Enaitz Alustiza -Maddi Labayen, Xabi Igoa -Paula Amilburu eta Iñigo Arzelus-Eñaut Uriarte bikoteekin. Hurrengo saioa Aramaion izango da eta finala Arrasateko gaztetxean. 24 bertsolarik dihardute.
Gaur, egubakoitza, Uberan, 20:30ean.


GOIENA


GOZATEGI

**BERGARA Gozategi**
Uema eguna dela eta, Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du gaztetxean. Gipuzkoarrek *Bizi-bizirik* diskoko abestiak aurkeztuko dituzte; horixe da, hain zuzen ere, talde eraberrituak atera duen azken lana
Bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

# NON-ZER

EKAINA 03
EKAINA 09

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## MUSIKA

**ANTZUOLA Edurne Iturberen trikiti ikasleen kontzertua**
Ikasturtean ikasitakoak erakusteko aukera.
Ekainaren 8a, eguaztena, Torresoroan, 19:00etan.

**ARETXABALETA Perkusio emanaldia**
Leizarra musika eskolako perkusio ikasleek emanaldia egingo dute.
Ekainaren 8a, eguaztena, Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

**ARETXABALETA Piano emanaldia**
Leizarra musika eskolako piano ikasleek emanaldia egingo dute.
Ekainaren 8a, eguaztena, Arkupeko Zaraia aretoan, 17:30ean.

**ARETXABALETA Flauta eta biolin emanaldia**
Leizarra musika eskolako ikasleek flauta eta biolin emanaldia egingo dute.
Ekainaren 7a, martitzena, Arkupeko Zaraia aretoan, 18:30ean.

**ARRASATE MobyDick bakarlaria**
MobyDick kantariak kontzertua eskainiko du domekan Arrasateko Irati tabernaren kanpoaldean. Orhipean kultura eragintzak antolatutako saioa da.
Ekainaren 5a, domeka, Irati tabernan, 19:00etan.

**ARRASATE La Madriguera**
Arrasateko La Madriguera punk -rock taldeak emanaldia egingo du.
Gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:00etan.

**ELGETA Xero Xette taldea gaztetxean**
Soraluzeko taldea gaztetxean Asentzio eguneko ospakizunen barruan.
Ekainaren 3a, egubakoitza, Elgetako gaztetxean, 23:00etan.

**BERGARA AIN_1 taldearen kontzertua**
Sarrera doan. Jardunek antolatuta.
Gaur, San Martin plazan, 22:00etan.

**ARAMAIO Jam Pak taldearen kontzertua**
Bossa nova, blues eta jazz saioa, zuzenean.
Ekainaren 3a, egubakoitza, Sastiñan 20:00etan.

## ANTZERKIA

**ARETXABALETA 'Anaki' umeendako ikuskizuna**
Logela Multimedia taldeak *Anaki* ikuskizuna eskainiko die 3 urtetik aurrerako umeei. Sarrera 3 euro da.
Ekainaren 5a, domeka, Arkupeko Zaraia aretoan, 17:00etan.

**ESKORIATZA 'Problemas de pareja: la solución AQUÍ' antzezlana unibertsitatean**
Ikusi Makusi taldearen ikuskizuna. Euren seigarren obra da dagoeneko eta orain arteko guztiek izan dute arrakasta nahikoa.
Ekainaren 8an, eguaztena, unibertsitateko areto nagusian, 17:00etan.

## DANTZA

**BERGARA Da.te dantza taldearen emanaldia**
Da.te danza konpainiak *Río de Luna* dantza ikuskizuna eskainiko du Zabalotegin. Eusko Jaurlaritzaren 2011ko Dantza Zirkuitoaren barnean dagoen ikuskizuna da.
Ekainaren 4a, zapatua, herrian zehar.

## JAIAK

**ELGETA Jokoak Asentzion**
Gaztetxeak antolatuta umeendako jokoak, txosna eta pintxoak Asentzio egunaren ospakizunen barruan.
Ekainaren 5a, domeka, Asentzion 11:00etan.

**BERGARA Jardun elkartearen ikasturte bukaerako jaialdia**
Bertsolariak, trikitilariak eta dantzak egongo dira.
Gaur, San Martin plazan, 18:00etan.

**BERGARA Zubiaurre-Martoko Aszenzio jaiak**
Zapatuan, 11:00etan salda eta txorizoa banatuko da, 12:00etan herri-txikiteoa, 16:00etan mus txapelketa, 17:30ean kukañak, 18:00etan buruhandiak eta ondoren San Migel-pe elkarteak eskainitako txokolada. 19:00etan toka txapelketa, 20:00etan herri txikiteoa eta 22:30ean dantzaldia Javishou taldearekin. Domekan 09:00etan diana eta txokolatada eta ondoren San Migelera ibilaldia, 11:00etan meza ermitan, 16:00etan tute txapelketa, Txarrantxa tabernan eta 18:00etan azken txupinazoa.
Ekainaren 5a, domeka, Asentzion 11:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**ELGETA Meza, Asentzion**
Fernando Esnaolak esango du Asentzioko ermitan.
Ekainaren 5a, domeka, Asentzioko ermitan 12:00etan.

**ARRASATE Arrasateko elkartasun eguna**
12:30etan: Iratitik hasita, Jokin Labayen eta Beñat Gaztelumendirekin bertso triki poteoa. 14:30etan: Biteri plazan, parrilada herrikoia. 17:00- 18:00 Daten : Repelencia, Mondra tabernan: Drop!, Monte tabernan: The Kate´s Maniacs, Ekaitz tabernan: Achtung! eta Ederra tabernan: Transit Blues. 18:00- 19:00, Jai-Zale tabernan: Brain Shake, Zarugalde tabernan: Mery May, Taupa tabernan: AMD, Iluntz tabernan: Fly Shit. 19:00- 20:00 Haizea tabernan: Gazte Iraultza, Irati tabernan: Bugatti, Gure-Leku tabernan: CC 627 eta Basati tabernan: White Shadow. Gauean kontzertuak gaztetxean, 22:30ean, sarrera 5 euro: 22:30etan, Slamtilt, Itziarren Semeak, Sermonds eta The Motherfuckers.
Ekainaren 4a, zapatua, Biteri plazan, tabernetan, eta gaztetxean. 12:30etik 03:00etara.

**BERGARA UEMA eguna**
11:00etan umeentzako puzgarriak egongo dira, 12:00etan hitz-gurutzatuen lehiaketa, 13:00etan ekitaldi instituzionala, 14:30etan bazkaria San Martin plazan, 15:30etan umeentzako tailerrak eta puzgariak eta 18:00etan dantzaldia.
Ekainaren 5a, domeka, Asentzioko ermitan 12:00etan.

**BERGARA Atzegiren jardunaldia**
Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko elkartearen urtereko bailara mailako jardunaldia.
Ekainaren 4an, zapatua, batzarra Zabalotegi aretoan izango da eta bazkaria Munibe plazan.

**ARRASATE Garagardoaren XIII. festa handia**
Alemaniar jaki zein edarien dastaketa egin ahal izango da egun guztian zehar. Karpa bat ipini dute horretarako. Hain zuzen, atzo hasi ziren garagardoaren festarekin.
Gaur eta bihar, herriko plazan.

**ARRASATE Elkartasun Eguneko kontzertuak**
Egitarau zabala prestatu dute: eguerdian bertso-poteoarekin hasi eta arratsaldean erdialdeko tabernetan egongo dira makina bat kontzertutaraino. Erdialdeko taberna gehienetan egongo dira saioak. Gauean, Slamtilt, Itziarren Semeak, Sermonds eta The Motherfuckersek joko dute.
Zapatuan, tabernetan eta gaztetxean.


ITZIARREN SEMEAK



TURTLE GIANT

**ESKORIATZA Turtle Giant**
Sao Paulon, Brasilen, taldea sortu eta munduan zehar ibili da bikotea azken urteetan. Estiloen nahasketa bitxia da eurena, gitarrak oinarri beti, eta Eskoriatzan egingo duten saioa akustikoa izango da.
Domekan, kontzejupean, 19:30ean.

## BERTSOLARITZA

**ARETXABALETA Bertso jaialdia**
Arizmendi ikastolako eta Kurtzebarri eskolako gaztetxoek bertsotan jardungo dute Herriko Plazan. Eguraldi txarrarekin, Iturrigorri pilotalekuan egingo dute.
Ekainaren 2a, eguena, Herriko Plazan, 17:00etan.

## UMEAK

**ANTZUOLA Mendi irteera Oñati aldera**
Goizean Orkazategi aldera eta arratsaldean Araotzen umeendako jolasak. Arrola eta Pausokakoekin.
Ekainaren 5a, domeka, Torresoroa 09:00etan.

## IRTEERA

**ELGETA Lubakietara bisita gidatua**
Ekaineko lehenengo domekan bisita gidatua egongo da Intxortako ibilbide tematikora. Iraupena 3 ordu. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea; Elgetako udaletxean (943 76 80 22) edo Debagoieneko Mankomunitatean (943 79 33 99).
Ekainaren 5a, domeka, Irteera Espaloitik 10:00etan.

## HITZALDIAK

**OÑATI Afrika astea Arantzazun 2011**
Ekainaren 8tik 11ra Afrikako V astea ospatuko da Arantzazun Baketik eta Tau fundazioak antolatuta. Ekuatore Gineako ordezkariak izango dira aurtengo Afrikako Astean. Asteazkenetik ostiralera, 18.00etatik 20.00ak bitarte, "Demokratizazioa, etnizitatatea eta itxaropena Afrikan: Bubi herriaren kasua Ekuatore Ginean" gaia jorratuko da. Saio bakoitzak bi zati izango ditu. Lehenengoan ikuspegi global batetik landuko da gaia eta bigarrengoan Bubi herriaren kasua aztertuko da bertako ordezariekin. Ekainaren 11ean, hitzaldia eta dokumental bat izango ditugu eta asteari amaiera emateko herri -bazkaria izango da.
Ekainaren 8a, eguaztena, Gandiaga Topagunean, Arantzazu (Oñati) 18:00etan.

**ARRASATE Ekonomia eredu berri baten aldeko jardunaldia**
Juan Antonio Talledo UNEDeko filosofia irakaslearen eskutik, eredu ekonomiko berri baten aldeko aldarrikapena abiapuntu duen hitzaldia: *Del egoísta racional a la racionalidad imperfecta*. Horrez gain, *La obsolescencia programada* izeneko dokumentala ere emango dute.
Ekainaren 7a, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 18:30etan.

**ELGETA Autoestimua, hitzaldia**
Baikarako teknikari Eshter Martinezen eskutik.
Ekainaren 3a, egubakoitza, Herri Eskolan 18:00etan.

## DEIAK

**ARRASATE Jabetze eskolako urte bukaerako eztabaida eta hausnarketa**
Jaialdi topaketa izango da *World Cafe* eran. Feminismoa eta horrek Arrasaten dituen erronkak izango da gaia. Mural pintaketa ere egingo da Ainara Azpiazuk zuzenduta. Saioak gaztelaniaz izango dira.
Ekainaren 10ean, Biteri plazan, 17:00etan.

## ERAKUSKETAK

**BERGARA Bergara Hiria argazki lehiaketa**
Herriko argazki lehiaketako lanak egongo dira ikusgai Aroztegin.

Ekainaren 3tik 19ra, Aroztegi aretoan.

## KIROLAK

**BERGARA Pentekoste jaietako txirrindulari lasterketa**
Sub-23 ea Elite mailetako Euskadiko banakako ordupeko txapelketa 09:00etan Irteera eta helmuga Labegaraietako industriagunean izango da. Domekan 09:30ean hasiko da lasterketa
Ekainaren 4ean eta 5ean, zapatuan eta domekan izango dira lasterketak.

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Agua para elefantes**
Eguaztena: 21:30.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**El patio de mi cárcel**
Egubakoitza: 22:30.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**X-Men: Primera generación**
Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 1**

**The company men**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**Los chicos están bien**
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

**BOULEVARD**

**Sin identidad**
Egubakoitzetik eguenera: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.
Bariku eta zapatuetan, baita: 00:50.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:00, 18:45, 19:45, 22:00, 22:30.
Bariku eta zapatuetan, baita: 00:45.

**Arthur y la guerra de los mundos**
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:15.

**El inocente**
Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:40.
Bariku eta zapatuetan, baita: 01:00.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:15, 22:15
Bariku eta zapatuetan, baita: 01:00.

**Brutal box**
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:20

**Thor**
Egubakoitzetik eguenera: 20:20, 22:40.

**¡Qué dilema!**
Egubakoitzetik eguenera: 15:50, 18:05, 20:20, 22:35.
Bariku eta zapatuetan, baita: 00:45.

**X Men: Primera generación**
Egubakoitzetik eguenera: 16:30, 19:15, 22:15
Bariku eta zapatuetan, baita: 00:50.

**GURIDI**

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas 3D**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:40, 22:20.
Martitzena eta eguaztena: 18:00, 20:40.
Eguena: 17:30

**Fast & Furious 5**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**El inocente**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.
Astelehena eta martitzena: 17:30.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.

**El castor**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Agua para elefantes**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Sin identidad**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguaztena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**X-Men: primera generación**
Egubakoitzetik domekara: 17:300, 19:45, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.
Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**FLORIDA**

**Midnight in Paris**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguatzena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**En un mundo mejor**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguatzena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**Nowhere boy**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguatzena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**Piratas del Caribe: en mareas misteriosas**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:15.

**No mires atrás**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguaztena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**Inside job**
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:15, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 18:00, 20:15.
Eguatzena eta eguena: 18:00, 20:15, 22:30.

**Pequeñas mentiras sin importancia**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:15.

**GORBEIA**

**X-Men: Primera generación**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 18:45, 20:15, 21:30.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 23:00, 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 16:00.

**Qué dilema**
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 22:00.
Zapatu eta domekan, baita: 15:45.

**Piratas del Caribe 4**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 19:00, 20:30, 22:00.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 22:45, 23:30, 00:15.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30, 16:00, 16:45.

**Pequeñas mentiras sin importancia**
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 21:20, 22:20.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:20.
Zapatu eta domekan, baita: 15:30.

**Midnight in Paris**
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:30.

**El Castor**
Egubakoitzetik eguenera: 18:30, 20:25.
Zapatu eta domekan, baita: 16:30.

**El inocente**
Egubakoitzetik eguenera: 20:10, 22:30.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:45.

**Sin identidad**
Egubakoitzetik eguenera: 17:45, 20:00, 22:15.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:35.

**El sicario de dios**
Egubakoitzetik eguenera: 20:30, 22:30.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:30.

**Código fuente**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10.
Zapatu eta domekan, baita: 16:10.

**A todo gas 5**
Egubakoitzetik eguenera: 19:00, 21:45.
Egubakoitz eta zapatuan, baita: 00:30.

**Agua para elefantes**
Egubakoitzetik eguenera: 22:20.

**Thor**
Egubakoitzetik eguenera: 18:10.

**Arthur y la guerra de los mundos**
Zapatu eta domeka: 18:10.

**Hop**
Zapatu eta domeka: 16:10.

**Rio**
Zapatu eta domeka: 17:00.

**Gnomeo y Julieta**
Zapatu eta domeka: 15:50.

## KRITIKA

**EL CASTOR** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Jodie Foster.
**Herrialdea:** Estatu Batuak.
**Urtea:** 2011.
**Aktoreak:** Mel Gibson, Jodie Foster, Antón Yelchin.
**Iraupena:** 91 minutu.



# Depresioari aurre egin nahian

Depresioak geroago eta indar handiagoa du gure gizartean. Askotan pentsatzen dugu dirua izan eta egoera erosoan bizi izanda zoriontsu izango garela, baina ez da beti horrela gertatzen. Bizitzak baditu momentu suntsitzaileak, bizitzari buruz espero duguna eta honek ematen diguna sarritan gauza nahiko desberdinak izaten dira. Horrela, desoreka sortzen da gizakian: kanporantz modu baten jokatzen dugu eta gure barnean frustrazioak eta kezkak ezkutuan geratzen dira. Horren ondorioz, besteengandik geroago eta aldenduagoak sentitzen gara. Gai hauxe da *El castor* filmaren ideia nagusia. Jodie Fosterrek egin duen filmean esaten zaigu bizitza ez dela momentu askotan saltzen zaigun bezain polita. Egoera latzei aurre egiteko besteengandik ihes egitea eta sentimenduak barnean lagatzea ez da batere ona. Denok dauzkagu momentu txarrak eta besteen laguntzarekin errazago lor dezakegu gaixotasun horretatik irtetea.

*El castor*–en agertzen den familia –bikotea, bi semerekin– krisialdia jasaten ari da. Gurasoen arteko harremanak ez dira onak, aitak ez ditu bere sentimenduak azaleratzen, depresioa du eta haren portaerak kalte handia egiten die familiako kide guztiei. Aitak (Mel Gibsonen interpretazioa aipatzeko modukoa da) irtenbide bat topatu nahian bere ezkutuko sentimenduak kastore txotxongilo baten bidez islatuko ditu. Eta portaera horrek nahiko egoera nahasiak sortuko ditu: terapia bitxi horrek komunikazio aldetik hobekuntza nabarmena ekartzen badu, aitak txotxongiloarenganako sentitzen duen menpekotasuna geroago eta nabarmenagoa da. Filmak errealismo eta momentu bitxiekin jokatzen du, drama eta zentzugabekeriarekin ere. Egoera, pertsonaia eta tonu desberdinekin jokatzen du, agian ez du oso argi nola batu osagai horiek guztiak, baina orokorrean nahiko lan txukuna eta bitxia da.

ANTONIO ZABALA




goiena"
2011-06-03
HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

# Goi mailako sukaldaritza, merke-merke

- Aitor Etxeberria bergararrak Langarikako Laua Jantokian egiten du lan orain dela bost urtetik
- Esperimentatu eta gauza berriak probatu ostean, bezeroei eskaintzen dizkiete oso prezio onean

**ARRITXU BARRUSO** | BERGARA

Aitor Etxeberria bergararrak 1992an bukatu zituen Ostalaritza ikasketak Gasteizen. Ordutik hona, munduko hainbat hiriburutan eta jatetxetan ibili da lanean, baina azken bost urteetan Langarikako (Araba) lasaitasunaz inguratuta bizi da.

Hango Laua jantokian egiten du lan; ez da ohiko jatetxea, Etxeberriaren eta beste bi sukaldariren laborategia edo esperimentu-gela dela esan daiteke: "Gamarrako Ostalaritza Eskolako irakaslea naiz, eta baita Santi Ramirez ere. Hark ireki zuen jatetxea anaiarekin batera –Jose Ramirez– eta nik ere hementxe egiten dut lan. Eskolan probatu eta esperimentatu ezin ditugun gauzak hementxe probatzen ditugu, eta bezeroei eskaini. Ikasten eta berritzen jarraitzeko modu bat da. Guri, sukaldean ibili eta janaria prestatzea gustatzen zaigu, eta horixe da hemen egiten duguna. Goi mailako sukaldaritza da, baina merke", kontatu digu bergararrak.


Aitor Etxeberria, Laua jantokiaren aurrean. | ENEKO AZKARATE

### Goi mailako sukaldaritza

Etxeberriak azaldu digu orain, esaterako, ostra zaporedun hosto batzuk ekarri dituztela eta horiekin probak egiten ari direla. Horrez gain, teknologia berrienak ere erabiltzen dituzte: "Izotz lehorra egiteko makina bat daukagu; horrez gain, kopak ere izozten ditugu. Horrela, gintonic bat ateratzen dugunean, esaterako, izotza ez da urtzen eta ur gutxiagorekin irauten du denbora luzeagoa".


Jangelako irudia. | WWW.LAUAJANTOKIA.COM

Laua jantokiak ia sei urte daramatza zabalik eta arduradunak oso pozik daude izan duten erantzunarekin; bezero bergararrak ere bisitan joaten zaizkiola kontatu digu.

Dastatze menua eskaintzen dute 50 euroren truke. Jantokia txikia dela-eta –30 pertsonarentzat du lekua–, aurrez erreserba egiteko aholkatu digu Etxeberriak.

AZKEN BERBA


XABIER ZUBIZARRETA

## Zaude lasai; BDO

Benetako Demokrazia Orain; bai eta 1975, 1995, 2005 edota 2015ean ere; behar genuela eta dugula; gogoratzen, adibidez, Alternatiba Demokratikoa aurkezten saiatu zirenek non bukatu duten?; Soleko demokrazia zaleek kanpaldia bukatzea erabaki dute; horretan bukatuko al da guztia?; mereziko luke, ba, benetan saiatzeak; agian BDO eskuratu dute?; ez hala Cataluñako enparantzan daudenak; hara, behar bada beranduxeago helduko da; zentralismoaren eragozpentxoak; demokrazia banatzen hasi (Solen, noski, dagokion bezala) baina periferiara heldu orduko denbora pixka bat igarotzen dela; Iberiar penintsula, oso orografia zailekoa izan ere; eta bereziki Ebro ibaitik goranzkoa; horregatik izango da, guri, halako bat egitea bururatu orduko, aurrean ditugula, Ordenaren Zaindariak eta baimenik gabeko agerraldi bat egiten ari garela argudiatuz, makilka eta tiroka sakabanatzen gaituzte, edota atxilotu; azkena, Biteri plazan, Arrasaten; eta merkatarien presiorik gabe; baina zaude lasai, BDO helduko da; beno, agian beranduxeago; baina zaude lasai. Laboak ere hala zion: "Askatuko zaituen zai bazaude...".




*Eraman dotoretasuna zure etxera*
gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51